

ANIZTASUNA ETA BIZIKIDETZA NAFARROAN

**euskara eta nazio
identitateak**

**Amaia Nausia Pimoulier
Julen Zabalo Bilbao
Txoli Mateos González**



**EUSKO
IKASKUNTZA**
Asmoz ta Jakitez

**Gobierno
de Navarra**



**Nafarroako
Gobernua**



Egileak

Amaia Nausia Pimoulier, Julen Zabalo Bilbao,
Txoli Mateos

Sustatzailea



Babesleak



Aurkibide orokorra

	Eusko Ikaskuntzako Lehendakariaren agurra	7
01	Aurrekariak: gatazka eta polarizazio soziala Nafarroan	9
	1.1. Gerturaketa historikoa	11
	1.2. Nafarroa anitza	13
02	Gure azterketa	21
	2.1. Egindako lanaren deskripzioa	23
	2.2. Taldeen eta elkarrizketen taula	33
	2.3. Ondorioen deskripzioa	36
03	Gatazka Nafarroako gizartean. Aniztasuna, bizikidetzeta eta konfiantza	37
	3.1. Bizikidetzeta, tolerantzia eta errespetua	40
	3.2. Kultura eta nazio aniztasuna: bizikidetzaren erronka	43
	3.3. Konfiantza eta bere mugak	45
	3.4. Gazteriaren ekarpena	47
04	Gatazka Nafarroako gizartean. Euskara eta nazio identitateak	57
	4.1. Euskara, Nafarroako ondarea. Euskararen sustapenez	60
	4.2. Euskararen politizazio eta ideologizazioari buruz	62
	4.3. Euskara polemikaren erdian	66
	4.4. Euskararen tratamenduari buruzko jarrerak Nafarroan	72
	4.5. Euskararen inguruko bizikidetzaren bila	75
	4.6. Bizikidetzeta eta nazio arazoa Nafarroan	76
	4.7. Baina bada nafar nortasunik?	79
05	Gure gogoeta. Inork eskatu gabeko iradokizun gisa	89
	5.1. Euskarari buruz	91
	5.2. Nazio identitateei buruz	100
	5.3. Nafarroako bizikidetzari buruz. Amaiera gisa	103
06	Erreferentzia bibliografikoak	121

Ekarpenen aurkibidea

03	Gatazka Nafarroako gizartean. Aniztasuna, bizikidetza eta konfiantza	
	3.1. David Thunder: Adiskidetasun zibikoa	49
	3.2. Eduardo Ruiz-Vieytes: Identitate kulturala eta identitate nazionala: posible da bizikidetza?	51
	3.3. Lohitzune Zuloaga: Aniztasuna eta bizikidetza ikuspegi feministatik	53
04	Gatazka nafar gizartean. Euskara eta nazio identitateak	
	4.1. Asier Etxenike: Lurralde sentimendua eta nazio eta subiranismo auzia Nafarroa Garaian	82
05	Gure gogoeta. Inork eskatu gabeko iradokizun gisa	
	5.1. Haritz Garmendia: (Ez)ezagutzaren kontakizuna	106
	5.2. Aritz Romeo: Euskararen babes juridikoa Nafarroan: ofizialtasuna eta gehiengo soziala	110
	5.3. Cristina Osés: Euskara, Erribera eta borondatetasuna euskalduntze politika gisa	113
	5.4. Iñaki Sagardoi eta Oskar Zapata: Aldekotasuna helburu, Nafarroarako proposamen bat	115
	5.5. Ane Larrinaga: Emozioei buruz	118

Eusko Ikaskuntzako Lehendakariaren agurra

Argitalpen honetan gauzatzen den lan programak 2018an egin zen Eusko Ikaskuntzaren XVIII. Kongresuan du jatorria. Nortasun anitzeko gizartea arloaren barruan, gure komunitateetako aniztasunaren eta kohesioaren kudeaketaren joera positiboak eta negatiboak aztertu ziren, eta, aldi berean, prospektiba egin zen immigrazioaren, hezkuntzaren eta eleaniztasunaren erronken inguruan, besteak beste.

Bere ondorioetan, Eusko Ikaskuntzak herritartasun eredu berri bat bultzatzea defendatu zuen, errealitate sozial eta kulturalen aniztasuna onartuz eta aniztasunari balioa emanez. Horretarako, erakundeek eta eragileek ahalduz soziala sustatzen duten tresnak ezartzearen alde egin zen, «indibidualismoa gaingitzen duten proiektu kolektibo komunen garapena bideratzeko».

Asmo handiko lan horren lehen mugarriztat Nafarroako Foru Komunitatea aukeratu genuen. Arragoa horretan hizkuntzak eta kulturak daude, nazio identitatea ulertzeko modu desberdinak eta gero eta immigrazio handiagoa. Horrela, Foru Gobernuaren laguntzarekin, 2019an Aniztasunaren kudeaketa demokratikoa Nafarroan lan-programa sortu zen. Partaidetzarako, eztabaidarako eta herritarrei, gizarte eragileei eta adituei irekia, bi bektorek bideratu dute ordutik aurrera egindako prozesua: aniztasunean oinarritutako bizikidetzeta eta haren kudeaketa demokratikoa, adostutako gutxieneko premisen bidez.

Lehen ekitaldian, Nafarroako aniztasuna ordezkatzeko duten hiru herritan egin ziren herritarren mahaiak eta gizarte foroak. Eremu kontrastatuetan murgiltze horretatik abiatuta, eta mundu akademiko, profesional eta gizarte zibilaren beraren ekarpenekin, bizikidetzaren elementu desitxuratuak eta eman dakizkiekeen erantzun demokratikoak aztertu ziren. Hizkuntza eta konplexutasun ideologiko eta identitarioa izan ziren desadostasunaren arrazoi nagusiak.

Nafarroako Gobernuko Bake, Bizikidetzeta eta Giza Eskubideen Zuzendaritzak bultzatutako Bizikidetzarako I. Plan Estrategikoan sartuta, lan horren guztiaren emaitza Foru Parlamentuko Herritarrekiko Harremanetarako Batzordearen aurrean jakinarazi zen 2021eko maiatzean, Iruñean *Gure desadostasunak: konfiantza sortuz Nafarroako ezberdinen artean jardunaldia* egin baino aste batzuk lehenago, nazioarteko espezialisten eta unibertsitateko irakasleen parte hartzearekin.


Lan programaren azken fasean, Foru Komunitateko gazteen iritzia aztertu zen; izan ere, beraiek kudeatu beharko baitute etorkizuna, eraldaketa azkarrean. Politizatutako eta politizatu gabeko gazte talde banak, Nafarroako gizarte berri baten adierazgarri, lau atalen inguruko hausnarketak eta proposamenak egin zituzten: Erkidegoko iparraldearen eta hegoaldearen arteko harremanak, euskararen aurreko jarrerak, ideologia politikoak eta belaunaldi aldaketa.

Horren guztiaren berri ematen du txosten honek, proiektu berritzaile bat laburbiltzen duena. Proiektu horretatik, kontrastez betetako lurralde baten erradiografia lortzen da, XXI. mendeko Nafarroarena, hain zuzen. Horrez gain, gatazkaren gako batzuk eskaintzen ditu eta gizarte moderno demokratikoen berezko erronketan sakontzen du. Aniztasuna eta haren kudeaketa aberastu eta ahalmenak ematen dituen balio gisa ikusi behar da, komunitate modernoa, irekia eta plurala eratzeke.

Ana Urkiza, Eusko Ikaskuntzako lehendakaria

01

**Aurrekariak:
gatazka eta polarizazio
soziala Nafarroan**



Nafarroako aniztasunaren kudeaketa demokratikoa proiektua Eusko Ikaskuntzaren eta Nafarroako Gobernuaren arteko lankidetzaren hitzarmenaren barruan kokatzen da. Proiektu honek 2018an gauzatutako Gure jendea, aniztasuna eta kohesio bideak ekimenean sakondu nahi izan du, funtsezko bi ardatz nabarmenduz: aniztasunean oinarritutako bizikidetzaren eta proiektu partekatutako baterako kultura demokratikoa. Helburu orokor gisa, Nafarroako Gobernuari gutxienezko balio esparru batera hurbiltzea eskaini nahi izan zaio, herritarren arteko bizikidetzari laguntzeko, hori baita partekatutako edozein proiekturen baldintza nagusietako bat.

Aurreko urteetan egindako lanean islatuta geratu da Nafarroan dagoen bizikidetzaren gatazkaren arrazoi garrantzitsu bat – ez bakarrik – nazio nortasunarekin eta gizartearen polarizazio ideologikoarekin lotuta dagoela.

Gatazka hori gainditzeko asmoz, Eusko Ikaskuntzak beharrezkotzat jo du ondorengo gaien inguruan gogoeta egitea: konfiantza, euskararen balizko politizazioa, nazio identitatearen arteko talka eta Nafarroako Administrazioaren zeregina. Beraz, jarraian aurkezten den lanak galdera horiei erantzun nahi die.

1.1. Gerturaketa historikoa

Nafarroako Erresumaren bilakaera politiko instituzionalak eta sozialak lagundu du, segur aski, proiektuan parte hartzen duten eragile eta herritarrek gaur egungo Nafarroako gizartearen ezaugarritzat jotzen duten polarizazioan. Nafarroako Erresuma zaharraren bilakaera aztertu duen historiografia bat dator bere azterketaren konplexutasuna azpimarratzean, etengabeko aldaketa politiko-instituzionalekin, XVI. mendearen hasieran konkistatu zutenetik XIX. mendean Espainiako beste probintzia bat izatera igaro zen arte. Prozesu horren azalpen historikoak ere eztabaida sortzen du, eta batzuek Ituna, Eransketa edo Anexioa ikusten duten lekuan, besteek Konkista, Foruak eta Subiranotasuna aipatzen dute.

Aurreko mendeen analisiak eztabaida sortzen badu, XX. mendea ez da atzean geratzen. Altxamendu Militarrak eta ondorengo Gerra Zibilak, Erregimen Frankistak eta Frankismoaren aurkako erresistentzia mugimenduek Nafarroako gizartearen polarizazioa lagundu zuten. Nafarroan, XX. mendean, espainolismoa eta euskal nazionalismoa, katolizismoa eta laikotasuna edo izaera ultra-kontserbadorea eta ezkerreko ideia iraultzaileak elkarrekin bizi izan dira.

Euskarak ere, gure gizartearen eztabaida gehien sortzen duen beste gaietako batek, bilakaera desberdina izan du denboran zehar. Gai honetaz iritzi desberdinak dauden arren, azken ikerketen arabera, XVI. mendean Nafarroan lurralde osoan hitz egiten zen euskara (Monteano 2017 eta 2019), egia bada ere, Hegoaldean euskaldunak komunitate txikiagoak zirela. Bestalde, euskal jentilizioa ez zaio aplikatzen hizkuntzaren hiztunari, baizik eta mendialdean bizi denari (Monteano, 2005: 122-123). Mikelarenaren arabera, XVII. mendean Iruñeko biztanleen % 75 euskaldunak izango ziren (2003: 190). Hurrengo mendeetan beste zenbaketa batzuetako datuek erakusten dute euskaldunen ehunekoak eta kopuruak behera egin zuela (1778an 123.000-118.000 hiztun, 1863an 90.344 eta 1936an 60.724, hau da, biztanleriaren % 17). Beherakada horrek ez zuen etenik izan, eta XIX. mendearen amaierarako, euskal abertzaletasunaren garapenarekin batera, euskararen aldeko lehen mugimenduak sortzen lagundu zuen (Mikelarena, 2003: 192). Eta Erresumaren bilakaera politiko-instituzionalarekin gertatzen den bezala, gainbehera horren arrazoiak ere eztabaida historiografikoaren xede izan dira; prozesu natural bati buruz hitz egin duenaren aurrean, kausa exogenoak, diglosiaz eta euskararen aurkako errepresioak hitz egitea nahiago duen ildoak ere badago.

Argi dagoena da, besteak beste, gaztelania eta erlijio katolikoa oinarri zituen nazio identitate bakar baten bilaketan, Erregimen frankistak Estatuko gainerako hizkuntza periferikoak bezala, gogor zapaldu zuela euskara (Jimeno, 1996: 509). Eta errepresioari ere oso goizetik erantzun zitzaion. Nafarroan euskarazko eskolak berreskuratzeko proposamena egin zen 1949. urterako, eta horri esker 70eko hamarkadara arte ez zen erabat desagertu ikasgeletatik (Jimeno, 1996: 510).

Joan den mendeko 60ko hamarkadan, euskal nazionalismoak joera kulturalista bat hartu zuen Nafarroan, arreta nagusiki euskarari jarritz, gainerako euskal lurraldeetan baino gehiago ere (Garmendia, 1989: 90). Horrela, Erregimenaren azken urteetan, mugimendu antifrankistak euskara erresistentziaren sinbolotzat hartu zuen. Testuinguru horretan, alderdien “euskalduntze prozesua” ez zen euskal abertzaletasunarena bakarrik izan, ezker iraultzailea ere horren partaide izan baitzen (Diaz, 2012: 298). Horri gehitu behar zaio ETAk egin zuen euskararen defentsak hizkuntza biolentziarekin lotzea ekarri zuela, eta ideia horrek oraindik dirau hainbat diskurtsotan (De Pablo, 2009: 55). Horrek euskara erabat politizatzea ekarri zuen, eta euskara mehatxu gisa ikusarazi euskal abertzaletasunari lotuta ez zeuden alderdi eta sektore batzuen artean, PSNren kasuan bezala (Bueno, 2020: 663).

80ko hamarkadan Herri Batasunak Nafarroan euskara ofizial egiteko aurkeztu zuen mozioak ondorioak izan zituen ondorengo hamarkadetako hizkuntza politikan (Alli, 2017: 500). 1982an, Nafarroako Foru Araubidea Hobetzeko Lege Organikoan,¹ gaztelania Nafarroa osoko hizkuntza ofizialtzat jo zen, eta euskara, aldiz, ofiziala eremu euskaldunetan bakarrik. Urte batzuk geroago, 1986an, Euskarari buruzko Foru Legean, biak Nafarroako berezko hizkuntza gisa aitortu ziren, baita horiek ezagutzeko eta herritarrek erabiltzeko eskubidea ere. Baina, eskubide horrekin batera, lurraldearen zonifikazioa ezarri zen: eremu euskalduna, eremu mistoa eta eremu ez-euskalduna (Etxeberria, 2015: 21). Zonifikazioa, gaur egunera arte iritsi diren ondorioekin, izan da, hain zuzen ere, azken lau urteotan gure parte-hartzaileen artean eztabaida gehien piztu duen gaietako bat.

Azkenik, azpimarratzekoa da joan den mendeko 90eko hamarkadatik hona egindako inkesta soziolinguistikoek euskararen sustapenaren inguruan adierazten duten bilakaera: gaitzespena, kontsentsuaren beharra, aldeotasun osoa... Gai horrek lekua izango du hurrengo orrialdeetan jasoko dugun lanean, eta hausnarketa sakona merezi du. Baina hori baino lehenago, zehaztu dezagun zenbait datuekin zertan datzan polaritate eta aniztasun hori gaur egun.

1 Ley Orgánica 13/1982, de 10 de agosto, de reintegración y mejoramiento del Régimen Foral de Navarra.

1.2. Nafarroa anitza

Nafarroako aniztasuna lelo turistiko bat da, bere lurraldearen errealitatea ondo islatzen duena, eta horrela ikusten du bertako biztanleriaren zati handi batek ere, azterlan honetan berriro egiaztatu ahal izan dugun bezala. Bere aniztasuna askotan beste gizarte batzuenaren antzekoa da, baina baditu berezitasun batzuk, txosten honen arrazoia, alegia. Ikus ditzagun datu batzuk.

Nafarroaren irudia, duela ehun urte, nagusiki nekazaritza eta abeltzaintzara dedikatutako lurralde batena zen, emigrantea, katolikoa, bi hizkuntza zituen, gaztelania eta euskara, eta politikoki kontserbadorea. Zer dugu gaur egun?

Sektore ekonomikoen arabera, eta nekazaritzaren ospea gorabehera, lehen sektorea Barne Produktu Gordinaren % 4,31 baino ez zen 2021ean (edonola ere, sektore horrek Espainian duen pisua baino ia puntu bat gehiago). Industria, azken hamarkadetan Nafarroako ekonomia dinamizatu duen sektorea, % 29,03 (Espainiak baino hamahiru puntu gehiago). Eta nagusi den sektorea, mendebaldeko Europako gainerako herrialdeetan bezala, zerbitzuena da, guztizkoaren % 60,93 (Espainian baino lau puntu gutxiago). Eraikuntza, azkenik, guztizkoaren % 5,73 da. Ikusten dugunez, ekonomikoki aldaketa handia izan da.²

Gauza bera esan dezakegu migrazio balantzeei buruz. Eskualde emigratzailea izatetik (XX. mendearen lehen erdian biztanleriaren 1/3 galdu zuen), saldo positiboa izatera pasatu zen 1960ko hamarkadatik aurrera, industrializazio prozesuarekin, bereziki, hasiera batean, Nafarroa barneko mugimenduengatik. Edozein modutan, hurrengo hamarkadan erkidegotik kanpo jaiotakoen kopurua % 18,5ekoa zen (datuok in Zabalo, Bastera, Iraola, Mateos 2011:11 eta hurr.). Ordutik aurrera, Nafarroak hazten jarraitu du biztanlerian, ondorengo nazioarteko immigrazioaren ekarpenarekin ere, halako moldez non, etorkinak gaur egun (2020) Nafarroako biztanleriaren % 16,12 dira. Maroko, Ekuador eta Kolonbia dira immigrazio horren jatorri nagusiak. Modu esanguratsuan, Nafarroak 2020an izan zuen saldo positiboa (oso arina izan bazen ere) immigranteen ekarpenagatik bakarrik izan zen posible.³

Nafarroan gatazka sor dezakeen gaietako bat konfesio erlijiosoena da. Izan ere, Nafarroako katolizismo historiko eta tradizionalak ez du honezkero iraganean izan zuen indarra, nahiz eta oraindik presente egon gizartean. 2018ko datuen arabera, Nafarroako biztanleen erdiak baino gehiagok (% 54,7) adierazi zuen ez zela erlijio batekin ere identifikatzen, eta datu horrek gora egiten jarraitzen du. Iturri beraren arabera, Nafarroa da gai horretan autonomia erkidegoen zerrendako lehena. Biztanleriaren herenak (% 38,1), aldiz, katolikotzat jotzen du bere burua. Geratzen den hondar txikiaren barruan, Nafarroa osoaren % 4,8k beste erlijio bat praktikatzen du.⁴ 2022ko datu berriagoekin, Andalusi Behatokiaren arabera, Nafarroako biztanleriaren

2 Nafarroako Lan Merkatuaren Txostenetik hartutako datuak, 2021ekoak, Servicio Público de Empleo Estatal delakoak landuak, INEren datuetan oinarrituta. <https://sepe.es>


3 Nafarroako Gobernuaren Migrazio Politiken Departamentuaren datuak. <https://www.navarra.es/es/noticias/2020/11/02/la-poblacion-navarra-de-origen-migrante-crecio-un-7-62-el-ano-pasado>

4 Joana Lizarraga eta Unai Beroizen erreportajea: Navarra, la Comunidad en la que más personas declaran ser no religiosas, según el CIS. Diario de Noticias, 2018-11-5. <https://www.noticiasdenavarra.com/sociedad/2018/11/05/navarra-comunidad-personas-declaran-religiosas-2466358.html>

% 4 baino gehiago musulmana da (35.644 pertsona).⁵ Erlijio fededunen kopuruari buruzko datuak garrantzitsuak dira gerora Nafarroako gizartean eragina duten hainbat jarrera sozial eta politiko ulertu ahal izateko, hala nola hezkuntzarena, abortatzeko eskubidearena, etab.

Euskarari dagokionez, Nafarroa euskal hiztuna ez den lurralde bat da gehienbat, biztanleriaren 3/4ek ez baitaki.⁶ Hau da, gaur egun, % 24,7k du euskararen nolabaiteko ezagutza, handiagoa edo txikiagoa, baina oso garrantzitsua da ohartaraztea 1991tik hona jasotzen diren datu horietan euskararen ezagutza 10 puntu baino gehiago handitu dela (% 14,1 1991n). Guztira, 1991n 59.467 euskal hiztun zenbatu ziren, eta 2021ean 134.618. Hazkunde horretan berebiziko garrantzia izan du hezkuntzak, eta, beraz, adinen arabera ezagutza mailari begiratuta, euskaldunen ehunekoak gora egiten du adinak behera egin ahala: gaur egun, euskararen ezagutzarik handiena duen tartea 16-24 urtekoa da, % 40,2koa (eta % 50,8k ez daki). Pixkanakako igoera da, neurketa bakoitzean areagotuz doana.

EUSKARAREN EZAGUTZA, 2021, NAFARROA (%)



Iturria: VII. Inkesta Soziolinguistikoa, 2021. Nafarroako Foru Komunitatea.


Nafarroako berezitasun bat da euskarari eman beharreko trataera desberdina dela lurralde eremuaren arabera, zonifikazio eztabaidatua. Gai arantzatsua da, ikusiko dugun bezala, baina bere eragina agerikoa. Horrela, eremu euskaldunean, biztanleriaren zati batek euskara ezagutzen duela azaltzen duen bitartean, eremu ez-euskaldunean, hamarretik batek baino ez du ezagutzen (% 90,9k ez daki). Eremu mistoa, azkenik, Nafarroako datu orokorren antzekoa da, biztanleen 3/4ek ez dauka euskararen ezagutzarik. Eremu misto horri dagokionez, Nafarroako jendetsuena eta Iruñea barne hartzen duena, esan dezagun euskararen ezagutza ere pixkanaka handitzen ari dela (adibide gisa, 16-24 urte bitarteko Iruñeko biztanleriaren % 41,5ek ezagutzen du).

5 Observatorio Andalusi 2022: Biztanleria musulmanaren azterketa demografikoa. Argitalpena UCIDE, Unión de Comunidades Islámicas de España, 2023. <https://ucide.org/islam/observatorio/informes/>


6 Euskarari buruzko datu guztiak VII. Inkesta Soziolinguistikotik hartu dira, 2021. Nafarroako Foru Komunitatea.

EUSKARAREN EZAGUTZA HIZKUNTZA EREMUAREN ARABERA, 2021 (%).


EREMU EUSKALDUNA



EREMU MISTOA



EREMU MISTOA



■ Euskaldunak

■ Euskaldun hartzaileak

■ Erdaldunak

Iturria: VII. Inkesta Soziolinguistikoa, 2021. Nafarroako Foru Komunitatea.


Orain arteko datuetan talde euskaltzaleen baikortasun erlatiboa ageri bada ere, euskararen benetako erabilerak gero eta kezka handiagoa sortzen du, nabarmen murrizten baita: % 12,3k bakarrik erabiltzen du, eta horietatik % 5,5ek gaztelania baino gutxiago erabiltzen du. Edonola ere, goraka doa oso astiro.

Azkenik, baikortasuna ezkortasun bihurtzen da Nafarroako biztanleek euskararen sustapenaren aurrean erakusten duten jarreraz hitz egitean. Espero izatekoa da Nafarroako bereizgarrietako baten aldeko jarrera ia ahobatezkoa izatea, baina, jakina denez, ez da horrela: Nafarroako biztanleria hiru herenetan banatzen da, bat sustapenaren alde dago, beste bat aurka, eta bestea axolagabe agertzen da. Gai hori 4.1 puntuan aztertuko dugu berriro.

Hitz egin dezagun orain sentimendu nazionaleraz, gai eztabaidatua ere bai. Nafarroako Parlamentuaren Iritzi Publikoaren IV. Barometroaren arabera (2019ko datuak; argitaratutako azkenak), nafar sentimendua da aukera nagusia, % 44,4rekin; ondoren, nafar-euskal herritarra, % 21,5ekin; nafar-espainiarra, % 9,4rekin; euskal herritar-nafar-espainiarra, % 8,4rekin; espainiarra, % 8,2rekin; eta euskal herritarra, % 5,1ekin.⁷ Ikerketa honetan Nafarroa banatzen den bost eremuetatik, nafar sentimendua handiagoa da bi eremutan, Lizarraldean eta Erdialde-Ekialdeko Nafarroan, batetik, eta Erriberan eta Tuteran, bestetik, % 55 baino gehiagorekin; eta eskuineko alderdietan (garai hartan Navarra Suman elkartuak) eta PSNn. Soilik euskal herritar eta nafar-euskal herritar sentimenduak, berriz, nagusiagoak dira Ipar Mendebaldean eta Pirinioetan: % 11,8.

7 Gai honetaz, eta datu horiek erabilita, artikulu bat argitaratu genuen Diario de Noticias egunkarian. Txoli Mateos, Amaia Nausia, Julen Zabalo: Hablemos de identidades en Navarra. 2021-07-08

IDENTITATE SENTIMENDUA NAFARROAN, NAFARROAKO PARLAMENTUKO
IRITZI PUBLIKOAREN BAROMETROAREN ARABERA



Iturria: IV Barómetro de Opinión Pública del Parlamento de Navarra

Beste informazio iturri bat Naziometroan dugu.⁸ 4.6 puntuan zehatzago ikusiko dugunez, Asier Etxenik 2023ko datuak ematen dizkigu, baina bestelako modu batean lortuak, hau da, galderan aukera guztiak eskaintzen dira, eta librea da aukerak hartzea eta konbinatzea, elkarren eskluiete izan gabe. Horrela, inkestatutako 10 pertsonatik 8 baino gehiago (% 83,8) nolabait nafarrak sentitzen dira; % 64 espainiarrak; eta % 32,2 nolabait euskal herritar. Inkestatuek aukeratu dituzten konbinazioetara pasatzen garenean, konbinazio gogokoena nafarra eta espainiarra da (ez du zertan zehazki nafar-espainiarra izan), % 46,2an; ondoren, alde handira, konbinatzen dira nafarra eta euskal herritarra, % 16,3rekin; eta hiru sentimenduak (nafarra, euskal herritarra eta espainiarra), % 12,3rekin. Konbinatu gabeko sentimenduek, azkenik, ez dute onarpen handirik: soilik nafarra % 9; soilik espainiarra % 5,5; eta soilik euskal herritarra % 3,6.

IDENTITATE SENTIMENDUA NAFARROAN, NAZIOMETROAREN ARABERA



Iturria: V. Naziometroa, 2023-Maiatza (Asier Etxenike)


Deigarria da inkestatuen % 9,1ek ez aipatzea beren nafar sentimendua, espainiar sentimenduan edo euskal sentimenduan sartzen dutelako. Era berean, beste % 9k ez du bi sentimendu horiekin uztartu nahi, eta nahiago du nafarra edo nafarra bakarrik sentitu. Eta % 12,3k hautatzen du hiru aukera nagusiak konbinatzea: nafarra, espainiarra eta euskal herritarra.

Naziometroaren datuekin jarraituz (ikus 4.1 ekarpena), Espainiako estatuaren lurralde antolaketa moduei dagokienez, nafarren % 27ri gustatuko litzaioke autonomia erkidegoek eskumen gehiago izango lukeen estatu bat (soilik nafar sentitzen direnen aukera gogokoena); eta % 25i gustatuko litzaioke estatu horrek erabakitze eskubidearen aukera jasotzea (nafar eta euskal herritar sentimenduaren aukera hobetsia). Bestalde, % 21ek egungo ereduarekin bat egiten du, eta % 15ek estatu zentralizatuagoa nahiko luke.

8 Naziometroa Euskal Herriko subiranotasunari buruzko behatokia da, Telesforo Monzon eLab fundazioak sustatua, eta Parte Hartuz Ikerketa Taldearen laguntza duena (UPV/EHU).

2023ko Naziometroaren datuak ere erabiliz, ikus dezagun nola sentitzen den nafar gizartea alderdi ideologiko batzuetan. Aukeratutako sei kategorietatik, inkestatuei galdetu zitzaizen nola sentitzen ziren proposatutako gai bakoitzaren inguruan: 0 ez zen batere aldekoa, eta 10 erabat aldekoa, ezker/eskuin kategorian izan ezik, non 0 ezkerrekoa zen eta 10 eskuinekoa. Ikusten dugunez, Nafarroako biztanleak nahiko feminista eta ekologista sentitzen dira (+6) eta Nafarroan euskara normalizatzearren alde daude (baina, grafikoak gehiegi ez erabiltzearren, jasota utzi ez dugun arren, nafar eta espainiar sentitzen diren gehienak normalizazioaren aurka daude). Ezkerra, 0, eta eskuinaren, 10, artean, jendea nahiko zentrokoa sentitzen da, ezkerreko joerarekin.⁹ Azkenik, biztanleak ez dira oso espainiar nazionalista sentitzen, eta are gutxiago, euskal nazionalista.

NAFARROAKO BIZTANLERIAREN JARRERA IDEOLOGIKOAK



Iturria: V. Naziometroa, 2023-Maiatza (Asier Etxenike)


Politikoki, indar nagusiak bi ardatzen inguruan antolatzen dira: ezker-eskuinekoa eta espainiar-euskal nazionalismoa. Horrek ez du esan nahi halabeharrez bi ardatzetan kokatu behar direnik, bi ardatzetako batek besteak baino pisu handiagoa eduki dezake eta. Indar politiko nagusia UPN da (espainiar erregionalista eta liberal-kontserbadorea). Tarte batera ezkerreko edo zentro-ezkerreko lau indar biltzen dira, denak batera UPNk baino indar handiagoarekin, eta horrela, azken urteotan hainbat gobernu osatu dituzte: PSN (espainiar sozialismoa), Zurekin Nafarroa (ezkerreko indarren koalizioa 2021ean osatua), EH Bildu (ezkerrekoa eta abertzalea) eta Geroa Bai (zentro-ezkerra eta abertzalea gehienbat). Azkenik, bi indar eskuindar eta espainiar gehiago agertzen dira (PP eta Vox), UPNk baino indar gutxiagorekin.

⁹ Oso antzeko datua aurkitzen dugu Nafarroako Parlamentuaren Iritzi Publikoaren IV. Barometroan-2019: 4,54.

Planteatu berri ditugun gai horietatik urrun samar, herritarrei Nafarroako arazo nagusiak zein diren galdetzen zaienean, trafikoaz, langabeziak eta autonomoen egoeraz hitz egiten dute (% 10 baino gehiago aukera bakoitzak). Ondoren, osasuna, hezkuntza eta ekonomia aipatzen dituzte (% 6-7). Nahikoa jaitsi behar da immigrazioa aurkitzeko (% 3), eta are gehiago euskara aurkitzeko (% 0,7) eta are interes txikiagoarekin, Euskal Autonomia Erkidegoarekiko harremanak, politika eta nazionalismoak (Nafarroako Parlamentuaren 2021eko Iritzi Publikoaren VI. Barometroko datuak; 2.4.1 puntua).

Azkenik, Nafarroako biztanleei oro har gogobetetze- eta zoriontasun-mailari buruz galdetzen zaienean, 10 pertsonatik 8k erantzuten du nahiko edo oso zoriontsuak direla (% 81,5, 2019ko Nafarroako Parlamentuaren Iritzi Publikoaren IV. barometroaren datuen arabera; 3.1 puntua). Estimazioa altua izan arren, datua Espainiako zoriona baino apur bat baxuagoa da, ikerketa berean aipatzen denaren arabera (83. or.).


ZORIONTASUNA NAFARROAN



Iturria: IV Barómetro de Opinión Pública del Parlamento de Navarra (2019)

Azken gai batean, nafarrenganako konfiantzari buruz galdetzen denean, 6,7ko batez besteko nota lortzen da, 10etik (Nafarroako Parlamentuaren 2019ko Iritzi Publikoaren IV. barometroko datuak; 3.4 puntua).

KONFIANTZA NAFARROAN



Iturria: IV Barómetro de Opinión Pública del Parlamento de Navarra (2019)

02

Gure azterketa

Gure azterketaren abiapuntua da nazio identitateak eta gizartearen polarizazio ideologikoa faktore garrantzitsua direla Nafarroan dagoen bizikidetzat gatazkan.

Polarizazio hori kudeatzeko, funtsezkotzat jotzen dugu honako premisa hauek kontuan hartzea:

- Gizarte konfiantza kultura demokratiko baten lanketa prozesu luzetik sortuko da, barne hartuko dituen nazio, kultura, erlijio eta ideologia aniztasuna, eta horrekin batera, aniztasun horren eragileen aitormena. Administrazioaren bultzada sendo batek bakarrik azkartu dezake prozesu hori.
- Zaila da euskararen inguruko tentsioa lasaitzea, hizkuntza hori proiektu politikoren bati estuki loturik doalako susmoa badago.
- Herritar guztiak ordezkatzeko dituen heinean, Nafarroako Administrazioaren papera funtsezkoa da euskararen inguruan dagoen tentsioa lasaitu, eta nafar guztien ondaretzat hartua izan dadin, eta beraz, gizarte konfiantza handitu dadin.

2.1. Egindako lanaren deskripzioa

Proiektua 2019an hasi zenetik, Eusko Ikaskuntzak prozesu irekia, parte-hartzailea eta deliberatiboa jarri zuen abian, Nafarroako aniztasunaren kudeaketa demokratikoari erantzun nahian. Lau urte hauetan herritarren, gizarte eragileen eta adituen ordezkariak zabal batek parte hartu du, ikuspegi inklusibo, integratzaile eta pluraletik. Azkenik, proiektuak arreta berezia ipini du aniztasun hori antolatu diren eztabaidagune guztietan islatuta gera zedin, ahots guztiak entzun zitezkeen. Horrela, parte-hartzaileen generoa, adina, baliabide ekonomikoak, ideologia eta abar hartu dira kontuan. Elkarrizketak eta taldeak batzuetan euskaraz eta besteetan gaztelaniaz egin dira. Hala ere, lan hau gaztelaniaz eta euskaraz idatzi da, eta itzuli egin dira, batera edo bestera, jatorrizko esku hartzeak. 2.2. koadroan ikus daitezke zer hizkuntza erabili zen benetan kasu bakoitzean.

Julen Zabaloren (UPV/EHU) zuzendaritzapean eta Amaia Nausia Pimoulier Eusko Ikaskuntzako proiektuaren arduradunaren laguntzarekin, proiektuaren lehen zirriborroa egin zen eta Julen Zabalok berak, Amaia Nausiak eta Txoli Mateos soziologoak osatutako Talde Eragile bat sortu zen. Talde horren ardura izan da proiektua diseinatzea, zuzentzea, eztabaida taldeak osatzea eta urte hauetan aurkeztutako txostenak idaztea.

Diagnosi Fasea (2019-2021)

Proiektua 2019an hasi zen, Eusko Ikaskuntzak Azterketa Talde bat deitu zuenean Nafarroako Foru Komunitatearen aniztasunari buruzko hurbilketa teorikoa egin zezan. 2019ko udaberrian eta udazkenean talde horren eginkizuna izan zen Nafarroako herritarrei egin beharreko galderak diseinatzea, lurraldeko pertsona esanguratsuak identifikatzea eta abian zeuden esperientziak biltzea.

Honako hauek izan ziren talde horretako kideak:

Udal teknikariak: Baztango Euskara teknikaria, Berriozarko Kultura teknikaria eta Castejongo Kultura teknikaria.

Eusko Ikaskuntzako lantaldea, Amaia Nausia Pimoulier eta Josune Etxaniz

Proiektuaren zuzendari zientifikoa; Julen Zabalo, UPV/EHUko irakaslea eta Parte Hartuz ikerketa taldeko zuzendaria.

Gaian adituak; David Thunder (Nafarroako Unibertsitatea), Txuri Ollo (Nafarroako Unibertsitate Publikoa), Txoli Mateos (Euskal Herriko Unibertsitatea), Iker Iraola (Euskal Herriko Unibertsitatea), Eduardo Ruiz Vieytes (Deustuko Unibertsitatea), Gaizka Aranguren (Labrit Multimedia), Aitziber Pérez (Berriozarko Ikastetxe Publikoa).

Azterketa Taldeak (GA) egindako galderak Nafarroako hiru udalerritako herritarrei helarazi zitzaizkien:

- Baztan
- Berriozar
- Castejon

Talde Eragilearen iritziz, udalerrri horiek egokiak ziren Eusko Ikaskuntzaren proiektua abian jartzeko, kultur eta nortasun aniztasun eredu desberdinak dituztelako eta errealitate sozio-demografiko oso desberdinak islatzen dituztelako immigrazioari dagokionez. Horrela, hiru herrietan bi partaidetza gune antolatu ziren: **Herritarren Mahaia**k, non udalerriko kultura teknikariek aukeratutako biztanleek parte hartu zuten (Taldea Eragileak ezarritako irizpideen arabera, hala nola generoa, adina, jatorria, nazio nortasuna, etab.), eta **Gizarte Foroak**, tokiko komunitateetako eragileen, teknikarien eta ordezkarien topaketa, non Herritarren Mahaietan lortutako emaitzak alderatzeko aukera izan zuten.

Proiektua gauzatzeko erabili zen lagina 91 pertsonakoa izan zen; horietatik 47k Herritarren Mahaietan hartu zuten parte, eta gainerako 44ek Gizarte Foroetan. Horietatik 49 emakumeak izan ziren eta 42 gizonak; gainera, 91 horietatik 34 euskaldunak ziren.

Desberdinen arteko sinergiak sortzeko eta Nafarroako herritarrentzat elkarbizitzarako elementu posibleak lantzeko asmoz, Herritarren Mahaietan Nafarroari buruz zuten kontzeptuaz eta eguneroko bizitzan identifikatzen zituzten gatazkez galdetzen hasi ginen. Nafarroako aniztasunaren ideia etengabe errepikatu zen mahai eta foro guztietan, eta bizikidetza kontzeptua agertu zen herritarren gatazketan aurrera egiteko ardatz gisa. Bizikidetza horretarako oztopo nagusi gisa, lurraldearen gehiegizko polarizazio politiko eta ideologikoa nabarmendu zen, erantzukizuna alderdi politikoengan jarritz.

Herritarren Mahaietan eta Gizarte Foroetan parte hartu zuten pertsonak aniztasuna askotan aberasgarritzat jo bazuten ere, akordioak lortzeko zailtasunaren eragileztat ere hartu zen. Elkarbizitza sendo baten eraikuntza zalantzan zegoen. Bi izan ziren gai nagusiak, behin eta berriz azaleratu zirenak, eta sarritan, elkarren ondoan ez ezik, bestea konpontzeko gako gisa ere ikusi zirenak: euskararen kudeaketa eta nortasun nazionalak, eta lehenengo gaia bigarrenari gailendu zitzaion. Edo bestela esanda, euskarak ezkutatu egingo luke, gure informatzaileen ustez, nazio-identitate desberdinen arteko gatazka. Beraz, euskararen gaia konpontzea ezinbesteko gakoa zen elkarbizitza leuntzeko, konpontzeko edo nolabaiteko adostasuna lortzeko.

Bigarren Fasea: Elkarbizitzarako oztupoak identifikatzea (2020)

2020rako Eusko Ikaskuntzaren Talde Eragilearen abiapuntua izan zen bizikidetzak balio erantsia ematen diola bizitza sozial demokratikoari, horren oinarrian honako ideia hau dagoelako: ez da nahikoa elkarren ondoan bizitzea, elkarrekin bizi behar da. Eta elkarrekin bizitzeko zerbait partekatu behar da. Horregatik, Nafarroako herritarren artean partekatu beharreko gutxieneko horiek zehazten saiatu gara.

Premisa horretatik abiatuta, 2020an, aniztasun horren bi osagaik, euskararen kudeaketak eta polarizazio politikoak, eragindako konfrontazioaren arrazoietan sakontzea izan zen helburu nagusia. Nolabait esateko, behin diagnostikoa eginda, balizko adostasunen kudeaketan zentratu ginen. Posible zen gutxieneko adostasun batzuk lortzea hizkuntza politikan? Horrek esparru politikoan eta sozialean dagoen gatazka murriztea eragingo zuen? Noren ardura litzateke adostasun berri horiek egitea? Eta, azken batean, erantzun nahi genuen galdera nagusia: nola eraiki edo hobetu daiteke Nafarroako herritarren arteko bizikidetza? Betiere kontuan hartuta bizikidetza bera ulertzeko modu asko daudela, geroago ikusiko dugun bezala.

Galdera horiei erantzuteko, Aditu Talde bat osatu genuen (AT), eta, besteak beste, kultura aniztasuna, bizikidetza, demokrazia eta identitatea bezalako kontzeptuei buruz hausnartzeko eskatu genien. Taldeko kideen egokitasun zientifikoa bermatzeaz gain, ahalegin berezia egin zen Nafarroako gizartearen espektro ideologiko eta politikoa isla zedin.

Taldeari galdera desberdinen inguruan hausnartzeko eskatu zitzaion: Zertan datza adostasuna? Zer da aniztasuna? Zer da elkarbizitza? Helburua ez zen kontzeptu horien inguruan adostasunak bilatzea, horietan sakontzea baizik, hainbat alderditatik ikustea.

Parte-hartzaileak (kide bakoitzak bere izenean parte hartu zuen, ezein erakunderik ordezkatu gabe) honako hauek izan ziren:

- Álvaro Baraibar (Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakaslea eta Bake, Bizikidetza eta Giza Eskubideen Zuzendaritzako zuzendaria 2015-2019 legegintzaldian)
- Amaia Nausia Pimoulier (Eusko Ikaskuntza)
- Carlos Lacunza (Etengabeko hobekuntzarako koordinatzailea, Nafarroako VW)

- Carmen Innerarity (I-COMMUNITAS - Institute for Advanced Social Research, Nafarroako Unibertsitate Publikoa)
- David Thunder (Nafarroako Unibertsitateko Kultura eta Gizartea Institutuko filosofia politikoko Ramón y Cajal ikertzailea)
- Eduardo Ruiz Vieytez (Deustuko Unibertsitateko irakaslea eta errektoreordea)
- Gaizka Aranguren (Kazetaria. Ondare Imaterialean aditua)
- Julen Zabalo (Euskal Herriko Unibertsitatea. Proiektuaren zuzendari zientifikoa)
- Kevin Lucero (Burlatako Udaleko zinegotzia)
- Nerea Blanco-Aramendia (Ipar Hegoa Fundazioko Barne Prestakuntzako idazkaria)
- Pilar Mayo (Iruñeko Udaleko Berdintasun teknikaria. SKOLAE proiektuaren arduraduna (2017-2019)).
- Txoli Mateos (soziologoa eta proiektuaren talde eragileko kidea)
- Xabier Erize (Soziolinguista. Filologian doktorea. Euskaltzain urgazlea. Euskararen Nafar Kontseiluko kidea)

Taldeak bost bilera egin zituen 2020ko udaberriean eta udazkenean, eta ondorioak beste bi talderekin alderatu ziren: Nafarroako Herritarren Mahaiarekin (NHM) eta Nafarroako Gizarte Foroarekin (NGF). Nafarroako Herritarren Mahaiari dagokionez, Nafarroako gizarteko hainbat eragilek osatu zuten:

- Amaia Zufia (Bilgune Feminista)
- Gabriel Insausti (Nafarroako Unibertsitatea)
- Irantzu Vázquez (Nafarroako Kutxa Fundazioa)
- Joseba Santamaría (Diario de Noticias de Navarra)
- Juan Gutiérrez (Nafarroako Gazteriaren Kontseilua)
- Maider Lasa (Steilas)
- Oskar Zapata (Euskadiko Euskaltzaleen Topagunea)
- Txemi Pérez (Nafarroako Gizarte Foroa)

Covid 19aren krisiaren ondorioz, urriean talde horrekin egindako bi bilerak telematikoki egin ziren.

Azkenik, Adituen Taldeak eta Nafarroako Herritarren Mahaiak egindako hausnarketak eztabaidagai jarri zituzten Nafarroako lurralde desberdinetako euskara eta/edo kulturako udal teknikariek (Nafarroako Gizarte Foroa), hausnarketa horiek eguneroko kudeaketa instituzionalean nola gauzatzen diren ikusteko, Nafarroako lurralde osoko ahalik eta ordezkariak handienari arreta berezia eskainiz. Parte-hartzaileak hauek izan ziren:

- Leitzako, Aresoko eta Goizuetako Euskara Teknikaria
- Tafallako Euskara Teknikaria
- Lizarrako Euskara Teknikaria
- Erronkari eta Zaraitzuko Euskara Teknikaria
- Castejongo Kultura teknikaria
- Corellako Kultura teknikaria

Bilera telematiko bakarra egin zen 2020ko azaroaren 11n.

Hirugarren Fasea: Erronkak (2021-2022)

2021ean, Nafarroan bizikidetzak sustatzeko erronketan sakontzen jarraitu nahi izan genuen, eta beste urrats bat eman gure parte-hartzaileei erronka horiek gainditzeko proposamenak egiteko eskatzean. 2020an atera genuen ondorioetako bat izan zen demokraziaren funtsa berdintasunean eta, aldi berean, desberdinarekiko errespetuan datzala. Baina, benetan demokrazia sakondu eta indartu nahi bada, hau da, haratago joan nahi bada, arrisku nabarmena dago: homogeneizazioz jotzea. Arrisku horren ondorioz, nolabaiteko mesfidantza sortzen da Nafarroako nortasuna eraiki edo sendotu daitekeela entzuten denean.

Alde horretatik, galdera hau egin genuen: zein da bizikidetzak eta praktika demokratikoa sustatzeko gakoa, berdintasuna oinarritzko balio gisa arriskuan jarri gabe? Gure abiapuntua hau izan zen 2021ean: Nafarroako Foru Komunitatean elkarbizitza arazo bat dago, bidezko joko demokratiko bat eragozten duena. Aurreko bi urteetan, 2019an eta 2020an, eztabaida- eta analisi-taldeetan parte hartu zutenek adierazi zuten ez zeudela haserre edo asaldatuta, batez ere maila politikoan. Horregatik, horixe izan zen 2021eko proiektuaren helburua: bizikidetzak eraikitzea eramango gaituen konfiantzazko giroa sortzeko oinarritzko baldintzetan sakontzea. Baina, zer baldintza behar ditu bizikidetzak aurrera egiteko? Eta zer eginkizun izango luke eragile sozial eta politiko bakoitzak?

Nola eraiki esparru minimo eta gogobetegarri bat ideologia guztientzat, non euskara eta gaztelania, alde batetik, baina batez ere nazio identitate desberdinak, giro eroso, mehatxurik gabeko eta eztabaidarako ireki batean garatu ahal izango diren? Elkarren ondoan bizi beharrean, elkarrekin bizi ahal izateko, norberaren printzipioei eta identitateari uko egin gabe. Bestela esanda, nola lor daiteke gutxieneko konfiantza eta elkartasuna nafar guztien artean?

Beraz, 2021ean konfiantza izan zen landu genuen kontzeptu nagusia, hain desiratua dugun bizikidetzaren oinarri gisa. Zertan datza gizarte konfiantza? Konfiantza ikuspuntu askotatik azter daitekeela kontuan hartuta, gure galdera izan zen: Nola lor daitezke adostasun zabalak? Zer iradokizun mota egin dakizkieke Nafarroako eragileei? Horretarako, Nafarroako lurralde osoko pertsonak osatutako **Aholku Batzorde (AB)** batez baliatu ginen, helburu argi batekin: aipatutako eragileei iradokizunak edo gomendioak jakinarazi ahal izatea, konfiantzazko giroa indartzeko helburuarekin. Talde hau euskararen eta nazio identitateen arteko bizikidetzaren inguruko gaietan iraganean eta gaur egun egindako ekarpen interesgarriengatik ezagunak ziren pertsona esanguratsuek osatu zuten.

Taldea honela osatu zen:

- Anika Luján (Argia Ikastolako zuzendari ohia, Tuteran)
- Laura Pérez (Nafarroako Ahal Dugu-ko idazkari nagusi ohia, Iruñerria)
- Raul López (Steilas irakaskuntza sindikatuko kidea, Iruñerria)
- Mikel Ziordia (Gizarte Gaietako teknikaria, Tuteran)
- Aritz Romeo (Nafarroako Unibertsitate Publikoko Zuzenbide irakaslea, Iruñea)
- Oskar Zapata (Topaguneko arduraduna)
- Amaia Nausia Pimoulier (Eusko Ikaskuntzako Proiektu arduraduna)
- Txoli Mateos (Eusko Ikaskuntzaren proiektuaren Talde Eragileko kidea)
- Julen Zabalo (Eusko Ikaskuntzaren Proiektuaren zuzendaria)

Aholku Batzordeari esleitutako helburu nagusiak hiru izan ziren.

- Euskararen eta nazio identitateen inguruan nafar herritarren arteko bizikidetzarako benetako oztipoak identifikatzea.
- Konfiantzazko giroa lantzeko beharrezkoak liratekeen baldintzei eta neurriei buruz hausnartzea.
- Eta, azkenik, aholkulariei eskatu zitzaizkien Nafarroako gizartean adostasunak lantzeko ezinbestekoak diren agertokiei buruzko hausnarketa orokorra egitea. Non eta nola landu beharko lirateke?

Aholku Batzordeak 2021eko udaberrian sei saio egin zituen.

Bizikidetzarako baldintza gisa, sakon aztertu beharreko gai konfiantza zenez, horri buruzko hausnarketa teorikoak ere aztertu nahi izan genituen. Eta, gainera, interesgarria iruditu zitzaizgun kanporantz begiratzea, ikusteko Nafarroako gizartetik kanpo zer nolako konponbideak planteatu diren beste testuinguru batzuetan hainbat gatazkak bizikidetzari eragin dionean. Helburu horrekin, 2021eko ekainaren 16an **Gure desadostasunak: ezberdinen arteko konfiantza lantzen jardunaldia** ospatu genuen Iruñeko CIVICANen. Horretarako, bi eztabaida mahai proposatu ziren: nazioarteko mahai bat, Nafarroatik kanpo izandako hausnarketak eta esperientziak ezagutzeko. Bertan, Jaume López

(Kataluniako kasuari buruz hitz egin zuen Pompeu Fabra Unibertsitateko Zientzia Politikoetako irakaslea) eta Gilen García (politologoa eta Debako alkatea, Ipar Irlandako kasuaz hitz egin zuena) aritu ziren; eta Nafarroako Mahaia, tokiko adituek osatua, gure lurraldeko arazo espezifikoetarako buruz hitz egiteko. Nafarroako Mahaian Nafarroako Unibertsitate Publikoko hiru irakasle izan genituen: Carmen Innerarity, Jorge Urdanoz eta Lohitzune Zuloaga.

Azpimarratzekoa da, halaber, proiektuak 2021ean izan zuen oihartzuna; izan ere, bere indar politiko batzuek eskatuta, Julen Zaballok eta Amaia Nausiak 2021eko maiatzaren 19an aurkeztu zituzten proiektuaren emaitzak **Nafarroako Parlamentuan**. Eusko Ikaskuntzako lehendakari Ana Urkizak eta Eusko Ikaskuntzako Nafarroako lehendakariorde Mikel Aramburuk ere parte hartu zuten.

Proiektuak beste gune batzuetan izan duen presentziari jarraiki, Nafarroako Euskaltzaleen Topaguneak 2021eko urriaren 14an antolatu zen **Euskara Nafarroan: jarrerak eta aukerak** jardunaldian, Eusko Ikaskuntzako proiektuaren arduradunak, Amaia Nausiak, Talde Eragileak Nafarroako herritarren eta euskararen gaian landutako arlo nagusiak azaldu zituen.

Azkenik, 2021eko jarduera Nafarroako esparru politikotik profil ideologiko desberdinetako eta hainbat tokitako pertsona esanguratsuei egindako **hamahiru elkarrizketa sakonekin** itxi zen. Elkarrizketatutako pertsonen anonimotasuna bermatu zitzaion, kasu batzuetan hala eskatu baitzigu. Hona hemen ezaugarri batzuk:

- [E1] Nafarroako erdialdeko gizona. 45-65 urte. EH Bilduko kidea. Elkarrizketa euskaraz egin zen.
- [E2] Iruñerriko gizona. 45-65 urte. Intelektuala, EH Bilduren hurbilekoa. Elkarrizketa euskaraz egin zen.
- [E3] Erriberako gizona. 45-65 urte. Kargua du Izquierda-Ezkerran. Elkarrizketa gazteleraz egin zen.
- [E4] Iruñerriko emakumea. 45-65 urte. Kargua du Izquierda-Ezkerran. Elkarrizketa gazteleraz egin zen.
- [E5] Lizarraldeko emakumea. 45-65 urte. Podemosen kargu bat du. Elkarrizketa gazteleraz egin zen.
- [E6] Erriberako gizona. 35-45 urte. Sindikatu abertzale bateko kidea. Elkarrizketa euskaraz egin zen.
- [E7] Iruñerriko gizona. 45-65 urte. Geroa Bain kargua du. Elkarrizketa euskaraz egin zen.
- [E8] Erriberako gizona. 65etik gora urte. Intelektual liberala. Elkarrizketa gazteleraz egin zen.
- [E9] Iruñerriko emakumea. 45-65 años. Kargu bat du PSNn. Elkarrizketa gazteleraz egin zen.
- [E10] Nafarroako iparraldeko emakumea. 45-65 urte. UPNn karguak izan ditu. Elkarrizketa euskaraz egin zen.
- [E11] Erriberako gizona. 45-65 urte. Kargu bat du UPNn. Elkarrizketa gazteleraz egin zen.
- [E12] Erriberako gizona. 45-65 urte. Kargu bat du Navarra Suman. Elkarrizketa gazteleraz egin zen.
- [E13] Iruñerriko gizona. 45-65 urte. Euskararen aldeko mugimenduko partaidea. Elkarrizketa euskaraz egin zen.

2022an hipotesi orokor gisa planteatu zen ea belaunaldi berriak agertoki berri baten protagonista izan zitezkeen sozialki eta politikoki ez hain polarizatuko Nafarroako gizarte batean. Hori bi arrazoiengatik. Alde batetik, identitatea osatzeko gaur egungo gazterian atzeman daitezkeen ezaugarri berriengatik; eta, bestetik, Nafarroako testuinguru politikoan izan diren aldaketengatik, adierazten ari baitira, hasiera batean, nazio identitate eta proiektu politiko desberdinen arteko polarizazioa edo konfrontazioa arintzera omen doala.

Hala, 2022ko helburuak honako hauek izan ziren:

1. 2021eko txostenaren ondorioetan planteatutako hipotesia baliozkotzea edo ezeztatzea. Hipotesi horren arabera, pentsa liteke biztanleriaren sektore gazteenak ez direla hain kontziente, eta ez daudela hain ados gizartea eta esparru politikoa identitate- eta hizkuntza-gaien inguruan polarizatzearekin. Hau da, belaunaldi aldaketak Nafarroako politikan eta gizartean bestelako egoera bat marraztu ote dezakeen.
2. Baloratzea aldagai geografikoa (Nafarroako iparraldea eta hegoaldea), zeharka politikoa ere badena, zenbateraino izan daitekeen garrantzitsua aipatutako gaiei buruzko iritzi edo jarrera jakin batzuei eusteko orduan.
3. Baloratzea zein punturaino den erabakigarria aldagai politikoa (Nafarroako espektroko talde edo sektore politiko bateko kide gutxi gorabehera formala izatea) politikoki antolatu gabeko gazteekiko diskurtso bereziak planteatzeko garaian.
4. Politizatutako gazteriak ez-politizatuak baino diskurtso landuagoa duelako ideiatik abiatuta, gizarte- eta politika-esparruetara zuzendutako proposamen posibleak biltzea, batez ere Nafarroako Administrazioari zuzendutakoak.

Azaldutako helburuei heltzeko, bi talde antolatu ziren. Bata (bitan banatua), **Nafarroako Gazte Ez Politizatuen Taldea (GEP)** deitu genuena, eta, bigarrena, **Gazte Politizatuen Taldea (GP)**.

Nafarroako gazte ez politizatuen taldean bi bilera egin ziren, honako eginkizun hauekin:

- Talde eragileak erabiltzen zuen hipotesia kontrastatzea
- Nafarroa Iparraldeko eta Hegoaldeko gazteen arteko diskurtsoen alderaketa
- Belaunaldi berrien elkarbizitzarako aukerak aztertzea

Bileren eskema:

1. Nafarroako iparraldea, Bera (martxoaren 23an)
2. Nafarroako hegoaldea, Tutera (apirilaren 6an)

Taldea osatzerakoan, Nafarroako lurraldearen aniztasunean eragina duten hainbat faktore hartu genituen kontuan, eta haien arteko oreka bilatu genuen: lurraldea, generoa, identitate nazionala, kultura, erlijioa eta ideologia. Horrela, bi taldeetan 20 eta 28 urte bitarteko 3 emakumek eta 3 gizonek parte hartu zuten, hau da, guztira 12 partaidek.

Bestalde, Nafarroako Gazte Politizatuen Taldearen helburuak hauek izan ziren:

- 2021eko txostenari buruzko iritziak jasotzea.
- Talde eragileak darabilen hipotesia kontrastatzea.
- Politizatu gabeko gazte taldearen iritziak kontrastatzea.
- Talde Eragileak definitutako arazoak eta horiek gainditzen hasteko, gazteek identifikatzen dituzten gakoak zehaztea
Adiskidetasun mota hori, “adiskidetasun zibiko” esaten zaiona, zaila da maila handiko gizarteetan, nazio-estatuetan adibidez, sustatzea, nahiz eta, neurri bateraino, aberkideek ere nolabaiteko adiskidetasuna senti dezaketean, kultura- eta hizkuntza-kidetasunagatik. Eskala txikiko gizarteak dira, hala nola herriak, hiriak eta eskualdeko komunitateak, non gizalegeko adiskidetasuna izateko aukera bereziki nabarmena baita; izan ere, eskala txikiko gizarteetan, jendeak aukera handiak ditu etengabe bere parekoekin gurutzatzeko eta iraupen luzeagoen proiektu komunetan laguntzeko.

Adiskidetasun zibikoak gure bizitza publikoaren kalitatea hobetu dezakeela onartzen badugu, nola landu ditzakegu herritarren arteko adiskidetasun lotura horiek?

Adiskidetasuna harreman erreala denez eta ez teoria edo ideia politiko hutsa, elkarrekin bizitzeko, eremu komunetara joateko eta proiektu eta jarduerak komunetan parte hartzeko aukera naturalak zabalduz baino ezin da landu. Merkataritza bizitza indartsuak, kafetegiak, supermerkatuak eta aisialdi eta kulturako establezimenduak barne hartuko dituen, espazio interesgarri eta erakargarriak eskaini ditzake herritarrek elkarrekin bizitzeko ikas dezaten, batez ere, eskuragarri badaude eta, posible denean, auzoen barruan. Hortik harago, hainbat profiletako herritarrak erakartzeko gai diren proiektu eta ekimen profesionalak eta kulturalak gara daitezke, hala nola, antzerkiak, dantza- eta sukaldaritza-tailerrak, auzoko baratzeak eta kiroldegia.

Adiskidetasun zibikoa ez da behartu edo inposatu daitekeen zerbait. Naturaltasunez sortu behar da, eta horrek bizikidetzarako denbora eta ohiturak eskatzen ditu, pixkanaka garatzen ari direnak. Baina azpiegitura soziala, ekonomikoa, ludikoa eta kulturala landu eta erraztu daiteke, herritarren arteko bizikidetzaren eta ohiko tratuen naturala bultzatzeko. Horrela, errazagoa izango da benetako adiskidetasun zibiko iraunkorra sortzea.

[3.2. ekarpena]

Identitate kulturala eta identitate nazionala: posible da bizikidetza?

Eduardo Ruiz-Vieytez

Deustuko Unibertsitateko
Giza Eskubideen Institutuko irakasle-ikertzailea

Nortasun kolektiboak osatzen dituzten kultura elementuek zehazten dute, praktikan, giza eskubideen titulartasuna eta gozamena. Ezin da giza eskubideak errespetatuko dituen bizikidetza esparru bat eraiki, pertsonen eta taldeen kultura nortasuna kontuan hartu gabe, bereziki beren esparru politikoetan gutxiengoa badira. Hala ere, giza eskubideen eta kultura aniztasunaren arteko harremanak nahasmena, eztabaidak eta desadostasunak sortzen ditugure gizarteetan.

Europako edozein gizarte demokratikotan kultura parametro nagusiak daude, horrez gain “integrazioaren” edo “gizarte kohesioaren” ideia konpultsibo bat legitimatzeko erabiltzen direnak. Horri gehitu behar zaio demokrazia gehiengoaren arauaren aplikazio praktiko huts gisa ulertzeko tentazioa, XIX. mendean Tocqueville edo Stuart Mill pentsalariak ohartarazi zuten bezala.

Aniztasuna faktore askoren ondorio izan daiteke. Hala ere, kulturaren dimentsio batzuek baino ez dute eramaten zuzenean identitate kolektiboak eraikitza eta gizarte eskaerak artikulatza. Eztabaida hori antolatzen saiatzeko, komeni da “identitate politikoa” eta “gizarte errealitate nagusia” kontzeptuak bereiztea. Generoa, adina, sexu orientazioa edo ahalmena bezain faktore garrantzitsuak funtsezkoak dira eskubideak erabiltzeko eta, beraz, bizikidetzarako eta politika publikoetarako. Baina kasu horietan, bereizketa eskaerak ez dira identitate politiko nagusiaren aurrean definitzen, baizik eta nagusi den gizarte errealitate baten aurrean. Ez dira gizarte jakin bat beste batzuen aurrean identifikatzen duten faktoreak, ez baitiote eragiten espazio publiko bereziaren diseinuari. Desberdintasun horiek behar duten babesa, funtsean, bereizkeriaren aurkako borrokaren bidez lantzen da.

Hala ere, markatzaile kultural propioek identitate politiko edo nazional nagusia osatzen duten elementu kultural nagusiei egin behar diete aurre. Lurrean bat duten komunitate politikoek identitateak ez dira bereizten orientazio sexualagatik, generoagatik edo adinagatik, baizik eta hizkuntzagatik, kultura tradizioengatik, elementu sinbolikoengatik eta batez ere proiektu politikoagatik. Horrelako elementuetan gehiengoarekin bat ez datozen kolektiboak daudenean, harreman esparru desberdina sortzen da, non gutxiengoaren desberdintasuna gehiengoaren “identitate politiko edo nazionalaren” aurrean aldarrikatzen baita, eta ez hainbeste “gizarte errealitate nagusi” baten aurrean.

Era berean, kultura desberdintasunek komunitate baten proiektu politikoaren muinari edo, besterik gabe, barne diseinuari eragin diezaioke. “Aniztasun berriei” buruz hitz egiten dugunean, onartzen dugu beharrezkoa dela eremu publikoa ere herritar guztientzat inklusiboa izatea, bakoitza bere identitatea ekarriz (erlijiosoa, etnikoa, linguistikoa...), eta ez identitate jakin bat izan arren. Erakundeak, arauak, espazioak eta gizarte erabilerak pluralizatzeko beharra aldarrikatzen dugu, komunitate politiko pluralistak eraikitzeko. Horrek batzuetan gizarte gatazkak sortzen dituen arren, gehiengo nagusiak ia erabateko kontrol ahalmena izaten du onartu nahi duen aldaketa mailaren gainean, eta, ondorioz, ez du horregatik sentitzen bere bizimoduaren benetako mehatxu funtsezkorik. Hori dela eta, gatazkak maila lokalean edo aldizka agertzeko eta kudeatzeko joera izaten du.

Nafarroa gizarte demokratiko aurreratua da; beraz, askotarikoa da, eta identitate bat baino gehiago dago bertan. Printzipioz, ez da desberdina inguruko gizarteekin, oinarriko aniztasun dinamikei dagokienez. Alde horretatik, gaur egun Nafarroan nagusi diren diskurtso politikoak, inguruko gizarteetan bezala, positiboak dira kultura aniztasunaren aurrean, nahiz eta, egiazki, aniztasunari kontrajartzen zaizkion gizarte jarrera eta erresistentziak ezkututzen dituzten, asimilazionismo gutxi-asko aintzatetsiari dagozkionak.

Hala ere, identitate desberdintasuna komunitatearen proiektu politikoari buruzko dibergentzian islatzen denean, eta talde minoritarioak gutxieneko tamaina edo botere nahikoa erakusten badu, kudeaketa zaileko gatazka gisa sortzen da, eta “nortasun berrien” kudeaketari buruzko eztabaidak itzalean uzten ditu. Proiektu politikoaren polarizazio testuinguruetan, gatazka horrek joera du beste pluraltasunen kudeaketari lekua kentzeko, ezkutatzeko edo atzeratzeko. Gauzatzeko aukera duten proiektu politikoak kontrajarriak direnean, gehiengoak eta gutxiengoak antsietate eta frustrazio maila handiagoarekin edo txikiagoarekin bizi ohi dute egoera, hurrenez hurren.

Nafarroan, hain zuzen ere, bi proiektu politiko antagonikoren bizikidetasun egoera hori gertatzen da: bata, Espainiako nazio identifikaziokoa eta unionista, eta bestea, euskal identifikazio nazionalakoa, eta (gutxi gorabehera) separatista edo subiranista. Era berean, eskema hori konplexuagoa da berezko identitate nafarraren sendotasunagatik, aipatutako bi identitate nazionalekin maila eta modu desberdinetan lotzen baita. Garrantzitsuen da gatazka bat dagoela proiektu politikoari dagokionez, izan ere, aurretiazko prozesu konstituziogile bati buruz gutxieneko adostasun nahikoa falta delako.

Hasierako irakurketa batean, badirudi dibergentzia hori hizkuntza oinarriaren aniztasuna dela, baina azterketa osatu gabea izango litzateke, ez baitago harreman zuzenik nahitaez hizkuntza komunitateen eta proiektu politikoaren artean. Aitzitik, Nafarroaren kasuan agertzen dena da dibergentzia ideologiko edo politikoak hizkuntza erabiltzen duela indarrak adierazteko edo neurtzeko tresna gisa, eta eremu batzuetan eta besteetan euskarak duen presentzia ofizialari edo sozialari buruzko eztabaidek posizio markatzaile gisa jokatzeko dutela, “win-lose” dinamikaren barruan. Horrek esan nahi du euskararen bilakaera proiektu

politiko jakin baten atzerakada edo aurrerapenarekin lotzen dela. Proiektu politikoaren arteko aldeak elkarbizitza zailtzen du, ez hainbeste hizkuntza aniztasuna bera, Iberiar Penintsulako beste eskualde batzuetako hizkuntza aniztasuna aztertuz frogatzen den bezala. Era berean, nahiz eta EAEn hizkuntza dinamikaren eta proiektu politikoaren arteko harremana nahiko antzekoa izan, instituzionalizazioak elebitasun formala normalizatzea eragin du, eta hori bateragarria da aurrez aurre dauden bi proiektu politikoekin. Nafarroan, ordea, erabakitze dago normalizazio hori egin behar den ala ez, hain zuzen ere gatazka politikoa oraindik elkar onartzeko fasean dagoelako eta harremanek bi proiektu politiko nagusien arteko mesfidantza handia erakusten jarraitzen dutelako. Horrek guztiak azaltzen du ezen, Nafarroako identitateari edo bizikidetzari buruz ikertzen denean, hizkuntza desberdintasuna dela aipatuena, proiektu politiko bakoitzaren sendotzearen edo aurrerapenaren erreferentzia gisa ulertu ohi baita, nafartasunarekin bat egin nahi duten bi komunitate ideologiko nagusiek dituzten antsietate edo frustrazio sentimenduak indartuz.

[3.3. ekarpena]

Aniztasuna eta bizikidetza ikuspegi feministatik

Lohitzune Zuloaga Lojo

Nafarroako Unibertsitate Publikoko Soziologia eta Gizarte Langintza Saila

Eusko Ikaskuntzak proposatu zidan gogoeta egitea feminismoek eta genero ikasketek Nafarroan desberdinen arteko konfiantza eta bizikidetza demokratikoa sendotzeko egiten duten ekarpenari buruz. Hasteko, esan behar dut ez dudala argi praxi edo metodologia feminista argi eta garbi definitua, adostua eta egituratua dagoenik. Baina baieztatu dezakegu ikuspegi feminista zeharka aplikatu daitekeela esparru guztietan, baita parte hartze sozialeko eta elkarbizitzako prozesuak errazten dituzten kezketan ere.

Emakumeen ordezkaritza edo agenden edukiak aztertzeaz gain, mugimendu feministak arreta berezia jarri du gizarte patriarkaletan harremanak izateko moduetan. Horregatik, gatazkak nola ulertzen, aurkezten eta kudeatzen diren aztertzean genero ikuspegi txertatzeak kontuan hartu beharreko ikuspuntu alternatibo eta baliotsuak ematen dizkigu. Patriarkatuak perspektiba dikotomikoak (bir)sortzen ditu: erasotzaile/biktima, egia/gezurra, dena/ezere ez... irabazle/galtzaile logikak eratuak; eta horien aurrean, feminismoak adierazten digu badirela beste modu batzuk gizarte tentsioak interpretatzeko eta bizikidetza sustatzeko.

Baina, zehazki, zer ekarpen egin dezake genero ikuspegiak Nafarroan adostasun eta bizikidetza eredu berriak bilatzeko? Lehenik eta behin, emakumeek Nafarroako gizartean duten eragina baloratzea. Emakumeek betidanik lagundu diote elkarbizitzari, etxeko adiskidetzeko lanetan, autoritarioa eta inposatzailea den gizonezkoaren aurrean. Are gehiago, emakumeak izan dira eremu pribatuan zaintzera bideratutako (hain gutxi ezagutzen diren) laguntza sareen sustatzaileak.

Bigarrenik, genero azterketen interes analitikoek Nafarroako aniztasuna ulertu eta lantzeko leku pribilegiatuan jartzen gaituzte. Jakina, kontuan hartu behar dugu generoa ez dela analisi ardatz bakarra, eta beharrak desberdinak direla emakumeen artean. Komeni da, halaber, parte hartzea ulertzeko modu desberdinak onartzea eta ahalegina egitea inplikaturako alde guztien baldintzapenak kontuan hartzeko, bereziki botere harremanek menderatutakoak. Hori lortzeko, komunikazio, entzute eta elkar ulertze prozesu bat behar da, “bestearen” egoeraz arduratuko dena, eta konfiantzazko gune babestuak sortu behar dira hori gerta dadin.

Nire lan testuingurutik hurbil dagoen adibide bat jarriko dut. Ez da batere sekretua unibertsitateak oso hierarkia tradizionala eta lan egiteko oso modu maskulinoak mantentzen dituen erakundea izaten jarraitzen duela. Gero eta gehiago gara harreman eta jakintza sortzeko modu horiek zalantzan jartzen ditugunak. Hori egiteak, besteak beste, honako hauek eskatzen ditu: lidergo horizontalak sustatzea agintari bertikalen ordez; talentua ezagutu eta zaintzea, erabili eta ustiatu beharrean; gure inguruan lan egiten duten pertsonen beharrak ulertu eta babestea; norberaren mugak onartu eta partekatzea, ahultasun seinalerik gabe; pertsona gisa tratatzea, gure ikerketetan elkarrizketatzen ditugunak informazio iturri edo objektu gisa tratatu beharrean, adibidez, gure aurkikuntzen berri ematea, eta abar.

Aurrerapauso handiak egin dira norabide horretan, baina politikoki zuzena dena da nagusi, betiko funtzionatzeko modu berak aldaketa gisa (kosmetikoak) aurkezteko. Benetan eraldatzaileak diren harreman ereduak behar ditugu, baita erakunde politikoek Nafarroan bizikidetzarako funtsezko elementuak kudeatzen dituztenak ere, hala nola euskararen erabilera edo nortasun nazionalen polarizazioa. Aipatu berri dudaren ildotik, erakunde politikoek honako hauek egin behar dituzte: harreman horizontalak eraikitzea, inor izan gabe egia absolutuaren jabetu; besteen esperientzia ezagutzeko jarrera erakustea, eta, partekatzen ez bada, ontzat ematea; parte hartzen duten aktoreek behar eta erabiltzen dituzten denborak

identifikatzea eta zaintzea; konfiantza eta komunikazio espazioak eraikitzen sustatzea, elementu horiek guztiek aurrera egiteko bidea eman dezaten; eragile bakoitzak beldurrik gabe bere mugak aitortu ahal izatea, adibidez bere lana noraino hel daitekeen onartuz; prozesuaren aurrerapena lanean ari diren pertsona guztiei modu gardenean partekatzea, informazio edo konfrontazio iturri gisa erabili beharrean, eta abar. Erronka garrantzitsua da, baina egiaztatu ahal izan dut posible dela eta, batez ere, oso askatzailea eta atsegina dela.

04

**Gatazka Nafarroako
gizartean.
Euskara eta nazio
identitateak**

Nafarroako desadostasun politiko, sozial eta kulturalen zati handi batek euskara eta identitate nazionalak ditu ardatz. Hizkuntzak, berez, ez dira arazo, bistan da. Normalena ez da jendea hizkuntza jakin baten aurka agertzea, eta hori Nafarroan ere aplikatu daiteke: kasu bakanen batean izan ezik, ez da normala Nafarroako biztanleak euskararen aurka agertzea. Baina hori horrela bada, non dago arazoa? Zergatik iristen da euskararekiko gorroto egoerara, elkarrizketatutako kide batek dioenez? (E3)

Arazo nagusia da euskara batzuentzat Nafarroa osoko hizkuntza den bitartean, jende askok ez duela beretzat hartzen: nafar guztiak izan beharko lukete hura ezagutzeko betebeharra eta eskubidea? Erantzunaren arabera, sektore bat edo bestea poztuko dugu, baina ez guztiak.

Baina beharrezkoa da lurralde jakin bateko biztanle guztiak, oro har, hizkuntza berean hitz egitea? Ez zen beharrezkoa, adibidez, ez antzinateko inperio handietan ez mugape feudal txikietan, nahiz eta bazegoen *lingua franca* bat, agintariak inposatua, eta, bereziki, helburu praktikoa zuena, elkar ulertu ahal izateko. Helburu praktikoa hori bera da, antza denez, Europako estatu moderno deiturikoen gero eta zentralizazio administratibo handiagoa egiteko arrazoi nagusietako bat, hala nola, zerga kargak, lurraldearen bateratze administratiboa, barne aduanak ezabatzea eta hizkuntza.

Merkataritzaren goraldi progresiborako, eta, bereziki, Europako industrializazio prozesu zabalerako, soberan zeuden barne administrazio trabak, eta bestalde, langile masa berria behar zen, ematen zitzaizkion aginduak ulertzeko gai izango zena, bai eta haien artean elkar aditzeko ere. XVII. mendetik XIX. mendera bitarteko iraultza liberalek, berdintasuna aldarrikatuz, hizkuntza bateratzearen eskariari estaldura ideologikoa eman zioten: hizkuntza berdina herritar guztientzat, nobleziarentzat edo lurralde jakin batentzat pribilegiarik gabe.

Nazio-estatuaren proposamena da: herritar guztiak legez berdinak, bereizketarik gabe (herritartasunaren definizioan sartu gabe). Era berean, proposamen hori XIX. eta XX. mendeetan aldarrikatu zuten berriro beste lurralde batzuek, bereziki haietako burgesia batzuek, sartuta zeuden nazio-estatuaren formulazioan kaltetuta geratu zirenak, alegia: ukatu egiten zuten estatu haien eraketa, eta banantzea nahi zuten, baina beste estatu bat sortzeko haiek erreibindikaturako lurraldean, nazio-estatuaren ezaugarri berak gordez.

Hizkuntzaren gaira itzuliz, nazio-estatuak defendatutako berdintasun irizpideak iradokitzen du bere lurraldean mundu guztiak hizkuntza bera hitz egitea dela ideala. Horrekin batera, aniztasun irizpidea baztertzen du, estatu bateko hizkuntza ondarearen kontserbazioari balioa ematen diona. Nazionalismo periferikoek, estaturik gabeek, ordea, aniztasun hori aldarrikatzen dute, nazio-estatuaren hizkuntza zentralismoarekin gogaituta. Baina nazionalismo periferiko horiek beste nazio-estatu bat eratu nahi dutenez, nazionalismo horiek bezala jarduten dute, hau da, haien nazio-estatuari erantzunez, aniztasuna aldarrikatzen dute, baina berdintasun irizpidea erabiltzen dute haiek aldarrikatzen duten lurraldeari buruz ari direnean. Azken batean, nazionalismo subestatalek nazio-estatuaren logika uniformatzailea erreproduzitzeko joera dute, beti eskala txikiagoan (Máiz, 2003: 434-43; Letamendia, 1997). Beren hizkuntza eta kultura nazionala babestea dute helburu, eta, horregatik, askotan, beren aldarrikapenen jatorrian dauden antzeko arazoak izan ditzakete.

Nafarroaren kasuan, bi nazionalismo *berdintasunezko* logika berarekin ari dira lanean; biek uste dute aldeztu dituzten hizkuntzak Nafarroa osoan hitz egin behar direla. Baina ez dute abiapuntu bera: espainiar nazionalismoa jadanik eratuta dagoen estatu bati dagokio, eta horrek ematen dizkion abantailez balia daiteke, baina euskal nazionalismoak ez du inolako estaturik osatzen, eta, beraz, ez du beharrezkoa den boterea euskara lurralde osoan jakiteko betebeharra dekretatzeko.

Estatu baten botererik gabe, euskal nazionalismoak *lurralde bat/hizkuntza bat* berdintasunezko aldarrikapena justifikatu behar du, eta, horretarako, identitatea erabiltzen du: euskara Nafarroako sinboloa da eta, beraz, herritar orok izan behar du hura ikasteko eta Nafarroako lurralde osoan erabiltzeko eskubidea. Aldiz, Espainia osoko hizkuntza ofiziala gaztelania denez, Nafarroa osoan hizkuntza hori erabiltzeak eta ezagutzeak ez du eztabaida berezirik eragiten, euskal nazionalismoaren kezez gain, egoera hori euskararekin konparatzen duenean. Horrela, gaztelania edozein hizkuntza polemikatik nahiko urrun dagoen bitartean, ez da gauza bera gertatzen euskararekin. Hainbat arrazoiengatik, alde edo kontra, euskara polemikarekin eta eskandaluarekin lotzen da etengabe, Nafarroako Administrazioako lanpostu batzuetan euskara baloratzean gertatzen den bezala.

Ikus dezagun, lehenik, Nafarroako biztanleek euskararen aurrean duten jarrerari buruzko oharren bat. Eta, ondoren, euskararen politizazio eztabaidatua, batetik, eta bestetik, polemika eragiten duten esparru bi: hezkuntza sistema eta administrazioako lanpostuak betetzeko deialdiak.

4.1. Euskara, Nafarroako ondarea. Euskararen sustapenaz.

2020ko gure txostenean arreta berezia eman genion Nafarroako gizarteak euskararen inguruan duen pertzepzioari. Harremanetan jarri ginen pertsonak aitortzen zuten, oro har, euskara Nafarroako kultur ondarearen parte dela, eta erakundeek eta herritarrek hala ulertu behar dutela. Baina Nafarroak duen euskararen pertzepzioan urrats bat gehiago emanez, ikusten dugu hamaika direla haren inguruan sortzen diren polemika eta eztabaidak, eragile politiko eta sozialen artean, zein Nafarroako herritarren artean. Hori dela eta, ohikoa da pentsatzea Nafarroan badagoela, batetik, euskararen aldeko jendea; bestetik, aurka dagoena; eta azkenik, adierazi nahi ez duena, edo garrantzi berezirik ematen ez diona. Horrela da?

Gaiari buruzko datuen interpretazioan sartu baino lehen, uste dugu funtsezkoa dela argitzea zer esan nahi duen hizkuntza baten alde edo kontra egoteak. Egia esan, ez da normala hizkuntza jakin baten aurkako jarrerak aurkitzea, eta horrek ez du esan nahi normalena aldeko jarrerak aurkitzea denik. Ohikoagoa da zuzenean eragiten ez diguna alde batera uztea. Euskara, ordea, hizkuntza bat denaz haraindi uler daiteke, hau da, Nafarroaren ikur eta ezaugarrietako baten gisa. Katolikoa ez den pertsona batek Leireko monasterioa maitasunez estimatu dezakeen bezala, edo futbolaren zale ez den pertsona bat Osasunaz harro sentitu, esan genezake Nafarroan euskaldunak ez direnek euskara bere ondarearen parte dela sentitu dezaketela, nahiz eta ikasteko asmorik ez izan.

Oro har, euskal nazionalismoak ez du bat egiten jarrera horrekin, euskara *sentitzeak* ikasteko eta, batez ere, sustatzeko beharra dakarrela uste baitu. Finkatzeko zaila den puntu batean datza gakoa, hau da, hizkuntza bat zenbat maite, baloratzen edo estimatzen den zehaztea, eta horrek berarekin dakarrena: euskal nazionalismoak gai horretan oro har dituen nahiak ez betetzea, adibidez, euskararen *aurka* egotea da, ala ez? Hortaz, uste dugu garrantzitsua izango dela, lehenik, Nafarroako biztanleriaren zati bat euskararen *aurka*, edo axolagabe, dagoen jakitea.

Hasi gara lehenago ikusten (1.2.), estatu edo herrialde batek bere ondareari dagokionez duen logikak kontrakoa iradokitzen badu ere, Nafarroan mundu guztia ez dagoela euskararen alde. Datuak argiak dira, baina euskarari buruz hitz egitean, argitu beharko genuke lehenik zeren kontra dauden Nafarroako herritarrak: babestearen kontra edo sustatzearen kontra daude? Lehenengo galderari dagokionez, euskararekin lotutako arazoekin suminduta dauden taldeetan ere (Gazte ez politizatuak Tuteran, -GEP- adibidez), ez ziren euskara zaintzearen *aurka* agertzen, ezta sustatzearen *aurka* ere, baina Nafarroako iparraldeko beren habitat *naturalean* ulertzen zuten beti, eta modu kategorikoan. Argudio horren aurrean, euskararen inguruan garapen handia izan duen soziolinguistikak argi eta garbi uzten du hizkuntzek lurralde propioa behar dutela, eta ez desagertzeko sustapen sendoa behar dutela; hau da, mantentzea ez dela nahikoa, horrela ez dela hizkuntza bat salbatzen (v. Zarraga et al, 2010). Baina kasu horretan beste gai bati buruz ariko ginateke, hau da, euskararen sustapenari buruz. Esan dezagun, ondare gisa, Nafarroako biztanleek ez dutela euskararen arbuioa adierazten, ikusi ahal izan dugunez.¹ Ildo beretik, eta nahiz eta bi hizkuntzek gizarte posizio desberdinak izan, ezin esan daiteke euskararen alde mobilizatzen diren biztanleria sektoreek ez dutela gaztelania Nafarroako berezko hizkuntza gisa ezagutzen.


Euskara sustatzeari buruz, dagoeneko aurreratu dugunez, Nafarroako biztanleak hiru herenetan banatzen dira: bata alde, bestea kontra, eta bestea axolagabe. Zer esaten digute datuek? Nafarroako Foru Komunitateko 2021eko VII. Inkesta Soziolinguistikoa berriro erabiliko dugu.

Hurrengo grafikotan ikus dezakegunez, 1991ko egoeratik abiatuta (biztanleen erdia baino gehiago euskararen sustapenaren *aurka*), horrek behera egin zuen hurrengo urteetan, baina azken hamar urteetan berriz ere zertxobait gora egin du (kontrako, % 37, eta axolagabe gehiago, % 33; eta aldeko gutxiago, % 30, 2011rekin alderatuta). Aipatzekoa da eremu ez-euskaldunean % 54,3 kontrakoa dela, eta % 29,4 axolagabea (alde % 16,4). Eremu mistoak, berriz ere, biztanle gehien duen eremua izanik, Nafarroako emaitza orokorrak errepikatzeko joera du. Jarrera horiek, gainera, nahiko antzera banatzen dira adin tarte guztietan.

1 Euskararekiko jarrerekin zerikusia duen gai garrantzitsu honetan ez dugu gehiago sakonduko, baina guztiz gomendagarria da Xabier Erizeren bi ekarpen kontsultatzea (2018; 2022), babesa, sustapena eta borondatezotasuna lantzen baitira.

Gorabehera horien azalpen posiblea nazionalismo espainiarrak (bereziki UPNk) gobernuan boterea galdu izanak eduki lezake. Esan liteke UPN edo PSNren aurreko gobernuetan euskara arrisku onargarria zela, eta beraz, ez zuela kontrako erreakziorik sortzen. Gobernuaren boterea galtzeak, aitzitik, euskararen arbuio handiagoa ekarri omen du, eta euskal nazionalismoak euskara politizatu ez ezik, espainiar nazionalismoak ere politizatzen duela adieraziko liguke. Hitz egin dezagun horretaz.

EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEARI BURUZKO JARREREN BILAKAERA (1991-2021), NAFARROA (%)



Iturria: VII. Inkesta Soziolinguistikoa, 2021. Nafarroako Foru Komunitatea.

4. 2. Euskararen politizazio eta ideologizazioari buruz

Euskara politizatuta dago Nafarroan? Hori ona ala txarra da? Ez dago erantzun argirik, baina argi dago arazo horrek sortzen duen tentsioa. Hala ikusi dugu behin baino gehiagotan. Gaiari buruzko iritzi desberdinak daudela konturatzeko, ikus ditzagun horietako batzuk.

- jarrera klasiko batean, mugimendu abertzaleak politizatzen du euskara.
- eta beste jarrera klasiko batean, nazionalismo espainiarrak politizatzen du. Jarrera horiez gain,
- askok diote bi aldeek politizatzen dutela euskara (E3, E11). Baina
- elkarrizketatutako talde edo pertsona batzuentzat (AB; E1; E2; E6, E13) guztiz normala da euskara politizatuta egotea. Are gehiago, "Euskara bizirik dago politizatu egin delako". (E1)
- eta beste batzuentzat (GA; E9; E10; E11) politizatuta dago, eta negatiboa da, "bizikidetzari asko eragiten baitio". (E9).

Egia esan, hizkuntzak politizatuta daudela esatea begi-bistakoa izan beharko litzateke, jakinik administrazio bakoitzak hizkuntza politika jakin bat garatzen duela, eta gobernu osatzeko gehiengo nahikoa lortu duten alderdi politikoei gobernatzen dituztela administrazioak. Hezkuntzan edo administrazioan gaztelaniak, euskarak, ingelesak edo arabierak hartu behar duten tokia ez dute berdin ulertzen indar politiko guztiek. Baina *politizazio* mota hori oharkabean pasatzen da, eta euskaraz ari garenean, aldiz, polemika sortzen da. Politizazioa, kasu honetan, gehiegizkoa omen da.

Politizazioaren ondorio bat, jakina, *identifikazioa* da: euskara ideia politiko jakin batzuekin identifikatzea. Gure azterketan parte hartu duten asko ere ohartu dira horretaz (E1; E5; GF). Euskara abertzale izatearekin identifikatu da, eta halaxe ulertu dute bi nazionalismoek: euskal nazionalismoak onartzen du identifikazioa; eta espainiar nazionalismoak errezeloz begiratzen dio euskarari. Ez da, noski, egoerarik onena ez gizartearentzat ezta hizkuntza minorizatuarentzat ere; hori dela eta, gaia *despolitizatze*ko deiak egiten dira behin baino gehiagotan. Baina horrek ere iritzi desberdinak sortzen ditu.

Hala, jarraitzaile abertzale batzuk (E1; E6; E13), mesfidati dira balizko despolitizazioaz, haren atzean gatazkaren ukazioa baitago, eta “ukatzen diren gatazkak ez dira inoiz konpontzen, ez dira gaintitzen” (E1). Informatzaile horren arabera, despolitizazioa mendeko jarreraren dagoenari errua egotzeko modua izan daiteke:

Euskara arazo bat da euskararen aldekoek politizatu dutelako. Orduan apolitikoa izan behar zen zerbait (linguistikoa) politiko bilakatu dute eta horrek dena zaildu du. (E1)

Beste jarraitzaile abertzale batek argi ikusten du:

...politizatuta dago, eta horrela egon behar da. (...) despolitizazioaz hitz egin dute haien pribilegio egoerari eutsi nahi diotenek. (E6)

Beste informatzaile abertzale bat (E7) euskara despolitizatzearen alde agertu da, baina uste du kontu handia izan behar dela arazo bat baino konpondu nahi ez dutenen diskurtsoekin. Bere ustez, despolitizazioa proposatze hutsa euskara politizatze modu bat izan daiteke. Beste iritzi abertzale batzuentzat, despolitizazioaren jarreraren atzean botoen bilaketa baino ez dago (E2). Baina, azkenik, beste batzuen iritziak, despolitizazioa funtsezkoa da akordioetarako (PSNren kargua, E5)

Hala ere, politizaziotik harago, euskararen *ideologizazio*az ere hitz egin daitekeela uste dugu. Hurbileko kontzeptuak dira, baina politizazioak jarrera jakin bat adierazten du, gai jakin bati buruz pentsatua; ideologizazioak, berriz, jarrera oinarritzkoagoa eta emozionalagoa islatzen du, ez hain gogoetatsua, pertsona edo kolektibo jakin baten sinesmenei eragiten dielako. Euskararen politizazioak gutxi-asko arrazionala den kalkulu bat adierazten du Nafarroako eragile politikoei euskara nola tratatzen duten jakiteko. Ideologizazioa gehiago urrunduta daiteke kalkulu arrazionaletik.

Euskara Euskal Herri osoko berezko hizkuntza dela aldarrikatu, eta ondorioz, naturalena lurralde osoan hitz egitea dela defendatzen duenean, euskarak bere diskurtsoan jokatzen duen zentralitateari buruzko bere jarrera ideologikoa adierazten ari da euskal nazionalismoa. Baina jarrera politikoa ere, euskararen gorakadak aukera abertzaleei hauteskunde pisu handiagoa ekarriko diela uste baitu. Bestalde, nazionalismo espainiarrak Nafarroan euskararen garapenari trabak jartzen dizkionean, jarrera politikoa garatzen ari da, euskal nazionalismoak aurrera egin eta zabaltzearen beldur delako, baina baita ideologikoa ere, uste baitu benetako nafartasuna nazionalismo espainiarraren bidez adierazten dela. Euskara ez garatzeak ez dio eragozpen berezirik sortzen, euskara ez baita ardatza haren nafartasuna ulertzeko.

Garrantzitsua iruditzen zaigu euskal eta espainiar nazionalismoek euskarari ematen dioten balioa nabarmentzea, sortzen duen polemikaren zati bat azal baitezake, gure ustez. Hau da, biztanleriaren zati bat, euskalduna ez dena, kexu denean euskara jakiteak administrazioan lanpostu bat lortzeko aukera gehiago izatea dakarrelako (Tuterako gazte politizatu gabeek -GEP Tuter- zehatz-mehatz aldeztu dutenez), beldur logiko bat adierazten ari da, lanpostu bat lortzeko dituen aukerak arriskuan daudelakoan. Baina, horrez gain, euskararen kontrako jarrera ideologizatu, negatiboa, ere adierazten ari da, aldi berean euskarak nolabaiteko balorazioa duen lanpostu kopuru jakin batera ezin aurkezteak sortzen dion atsekabea adierazteaz gain, euskara ez ikasteko edo erabiltzeko eskubidea duela aldarrikatzen ari da eta. Ez da bat ere jarrera praktikoa eta, hurbileko adibide bat jartzearen, ez da berdina gertatzen ingelesarekin. Gizakiak praktikoa izateko joera du, batez ere lanari dagokionez, eta jarrera ideologizatu batek bakarrik (forma aseptikoenean esanda) hautsi dezake zentzu praktikoa hori.

Euskal nazionalismoarentzat ez dela hizkuntza kontu hutsa argi dago adierazpen batean baino gehiagotan ere. Adibidez, Euskal Autonomia Erkidegoko ezker abertzaleko kide batek, Pello Otxandianok, uste du euskalduntze prozesu batek akordio zabalak eta iraunkorrak behar dituela, baina, era berean, kontuan hartu behar da:

... euskararen aldeko borroka botere harremanak iraultzeko ahalegina dela, bi nazio-estatuen supremazismoari eta neoliberalismoaren homogeneizazioari aurre egitea, eta hori ezin daiteke bake santuan egin.²

Euskalgintzatik datorren beste iritzi horrek politizazio eta ideologizazio terminoak zehazteko balio lezake, politizazioa, alderdi politikoen jokalekua den aldetik, euskararentzat kaltegarria dela ulertzen baitu. Aitzitik, euskarak maila oinarritzkoagoan egon beharko luke, herritartasunaren edo bizikidetzaren mailan, besteak beste:

... politika esaten diogun, letra larriko politikatzat jotzen dugun hori, alderdien joko bat dela. Hortik kanpo utzi behar da hizkuntzaren auzia.[...] Askoz ere oinarritzkoagoa da hau: eskubide, askatasun eta bizikidetzaren auzi bat. Halako marko batean jartzen ez bada hizkuntzaren auzia eta euskararen biziberritzea, zaila izango da akordio politikoa bat iristea.

2 Pello Otxandiano: Euskara bide berrien bila, Gaur 8, 10-12-2022, 11. or.

Euskalgintzaren Kontseiluak proposatzen duen akordioak bi oinarri ditu: euskararen unibertsalizazioa (uler bedi euskal nazionalismoak aldarrikatzen dituen zazpi probintzien lurraldera), eta euskaraz eroso bizitzeko aukera...

Kontua da ea printzipio horiek bermatuko ditugun. Bizikidetzeta eta herritartasun eskubideen tamaina emango diogu? Demokrazia hitz egingo dugu hizkuntza auziaz hitz egitean? Hori da pixka bat akordio politiko horren oinarrian egon behar duena. Zailtasuna da eraldaketa politiko handiko prozesua dela hau, eta gizarte eraldaketa guztietan erresistentziak sortzen direla, hain justu, botere harremanak aldatzen direlako.³

Bestalde, euskarari buruz Nafarroako eskuinak egiten duen irakurketa Azcona eta Gortariren honako testu honetan jaso liteke (2001: 15):

Euskal nazionalistek beren kausa nazionalaren beste lotune bat bihurtu dute euskara. (...) Euskal nazionalistek behin eta berriz eskatzen dutenean Euskadiko subiranotasun nazionalerako eskubidea, euskara hizkuntza nazional gisa izango duen aberri elebakarrean pentsatzen ari dira. Elebitasuna aldi baterako izango litzateke. Baina gauza bat da hiztunek beren hizkuntzan mintzatzeko duten eskubidea aldarrikatzea, eta beste bat, berriz, hizkuntza batek nahitaezko bezeroak izateko duen eskubidea aldarrikatzea.

Euskararen funtzioa ulertzeko modu horiek eragin zuzena dute maiz Nafarroako gizartearen polarizazioa deritzonean. Elkarrizketatu batek (UPNko kargua, E11) ez du uste politizazioa negatiboa denik, baina bai polarizaziora iristen denean.

Euskararen auzia bi muturretatik polarizatu da, bai inposatu nahi dutenengatik, bai mehatxutzat hartzen dutenengatik.

Muturreko polarizazioa da, Izquierda-Ezkerretik (E3) gertu dagoen arduradun baten arabera, bando neutralik onartzen ez duena, arestian azaldu dugun bezala: oso deserosoa da muturren "erdian" sentitzea.

Izquierda-Ezkerrako beste kargu batek (E4) azaltzen du dena politikoa dela, euskara barne, eta, beraz,

Euskara ez da politikatik atera behar: konfrontaziotik atera behar da euskara. Errotik moztu behar dena da hizkuntza konfrontaziorako tresna gisa erabiltzea.

3 Aurreko aipamenean bezala, Julen Aperribaik Idurre Eskisabeli egindako elkarrizketatik ateratako testuak dira. Berria, 2022-12-06, 6-7 or.. Idurre Eskisabel Euskalgintzaren Kontseiluko egungo idazkari nagusia da. Kontseilua euskara sustatzeko hainbat elkarte biltzen dituen erakundea da.

Hizkuntza baten inguruan polarizaturik eta aurrez aurre jarririk dagoen egoera bat ez da, noski, onena ez gizarte batentzat, ez hizkuntza minorizatuarentzat, eta, beraz, gai hori despolitizatzeo deiak ageri dira maiz. UPNko elkarrizketatu batek atsekabez ikusten du egoera hau, uste baitu halakoetan euskara irteten dela galtzaile: “Nik uste gatazka politikoez ekartzen dutela pobrezia.” (E10). Despolitizazioarako dei horiek, ordea, ez dute beti arrakastarik lortzen, besteak beste, eragile politiko eta sindikal batzuen ustez politizazioa beharrezkoa baita, sindikatu abertzale bateko kide batek adierazten duen bezala: “politizatuta dago, eta horrela egon behar da.” (E6)

4.3. Euskara polemikaren erdian

Esan dugunez, Nafarroan gaztelaniak eztabaida gutxi sortzen du: Espainian ez ezik, lurralde osoan duen estatus ofiziala onartu egiten da, gogo handiz edo gutxiz. Ez da gauza bera gertatzen euskararekin: ez du ofizial mailarik lurralde osoan eta ez du aho bateko babesik lortzen. Alderantziz, polemika iturri izan ohi da, eta horrek ez dio inoiz on egiten hizkuntza bati. Horren aurrean, zer jarrera defendatu behar du Nafarroako Administrazioak?

Administrazioaren jarrera euskararen aurrean

Euskara zaintzea helburu partekatua bada, posible da euskararen aldeko apustua egitea Administrazioak inolako bultzada politikorik eman gabe? Hau da, Nafarroako Administrazioa neutral gisa agertu behar da euskararen inguruan edo euskararen aldeko apustua egin behar du, Nafarroako hizkuntza delako?

Zenbatu ezineko irizpide desberdinak daude Administrazioak horrelako polemiken inguruan izan behar duen jarrera baloratzeko orduan. Muturreko jarrera bat da Erriberako Navarra Sumako kide batek adierazitakoa: ados ageri da euskara babesteko orduan, “baina utz diezaiozun Administrazioan erabiltzeari.” (E12) Ohikoagoa da Administrazioak neutrala izan behar duela dioena: hala adierazten da parte hartu dugun talde batean baino gehiagotan, baina horrek zer esan nahi duen galdetzen denean, beste irizpide batzuk sortzen dira. Beste jarrera batek ukatu egiten du Administrazioa neutrala izan ahal izatea. Halaxe adierazten du ezkerreko elkarrizketatu batek. Aitzitik, argudiatu du Administrazioa arazoak konpontzeko dagoela eta hori da horietako bat (E5). Ezker abertzaleko elkarrizketatu batek (E1) jarrera bera du. Haren arabera, “kasu askotan administrazioa militantea izan da euskararen kontra”, eta uste du orain euskara sustatzen inplikatu behar dela (E1). Jarrera horiek ezkerreko beste elkarrizketatu batzuek ere berresten dituzte (E3; E4).

Informatzaileen kolore politikoari oso lotutako jarrerak dira. Azkenik, bi nabarmenduko ditugu, gidoi horretatik aldentzen direlakoan. Hala, ezker abertzaletik hurbil dagoen intelektual batek (E2) uste du Administrazioa nahiko ondo ari dela, baina etsigarria dela adostasunak bilatzeko ezintasuna. UPNko kargu batek (E11) ere hala dio, eta uste du PSN hobeto ari dela egiten 2019-2023 legegintzaldian Geroa Bai aurreko lau urteetan baino.

Euskararen ofizialtasuna eta zonifikazioa

Euskararen arloan Nafarroa hiru eremu berezitan banatzen duen legea da, zalantzarik gabe, gudu zelai nagusietako bat Nafarroako liskarretan. Hura desagertzea errebindikazio handienetako bat da alde batentzat, eta *lerro gorri* bat bestearentzat. Azken honen justifikazioak egitate nabari

bati erantzuten dio: Nafarroako eremu zabaletan euskara ia ezezaguna bada, zergatik egin ofiziala lurralde horretan? Argudiatzen dutenez, arabiera euskara baino gehiago erabiltzen da, eta ez da horregatik ofizial bihurtzen. Horren aurrean, beste aldeak bi argudio ildo nagusitan oinarritzen du zonifikazioaren desagerpena: batetik, euskara Nafarroako berezko hizkuntza da, eta herritarrei dagokie hizkuntza hori zaintzea eta, hala badagokio, erabiltzea; eta, bestetik, zona bat euskararik gabe uzteak Nafarroako herritarrentzat indarrean egon behar duen berdintasun irizpidea urratzen du.

Zer esan dute gure azterketan parte hartu dutenek?

2019an Elizondon, Berriozarren eta Castejonen antolatu genituen Herritarren Mahaiak (HM) ez ziren Nafarroa osorako euskararen ofizialtasunaren aurkakoak. Castejongo Mahaian, zehazki, jarrera nahiko aldekoa zen, salbuespen batzuekin, baina eskualde bakoitzaren baldintzetera egokitutako hezkuntza sistema eskatzen zen. Halaber, Nafarroako Gizarte Foroan ere alde zeuden (NGF, 2020an antolatua), eta berdin gure azterketan parte hartu duten beste kide batzuk ere. Aholku Batzordeak, 2021ean eratuak, argi ikusten du: lehentasuna du zonifikazioarekin amaitzeak. Herritarren berdintasuna bermatu nahi bada, euskaratik urrunen dauden eskualdeek baliabide gehiago jaso beharko lituzkete (AB).

Zonifikazioa oso gai sentitua da sektore abertzaleetan, testigantza askotan jaso ahal izan dugun bezala. Baina sektore ez-abertzaleetatik ere ulertzen da ofizialtasuna justiziazko edo errespetuzko neurria izan beharko litzatekeela euskal hiztunentzat, edo izan nahi dutenentzat. Horrela adierazten dute Podemosek edo Izquierda-Ezkerratik hurbil dauden elkarrizketatuek. Elkarrizketatu dugun UPNko karguak ere nahiko luke Administrazioak

...hizkuntza aniztasuna aitortuz jarraitzea, eta herritar bakoitzari eskuarki hitz egiten den hizkuntzan arreta eskainiko zaiola bermatzea. Hori bermatzea. Mediki zentro batzuetan bermatzen ari gara jendeak arabierazko errezetak ulertuko dituela, zergatik ez euskaraz? (E11)

Egia esan, zaila da eztabaidaren inguruan dauden alde desberdinak zentratzea, abiapuntu ugartitasuna kontuan hartuta. Hurbilketa bat lurralde ikuspuntuarekin egiten da, ofizialtasuna lurraldearekin parekatuz. Euskararen ikaskuntza, beraz, betebeharrak bat litzateke, gaztelaniarekin gertatzen den bezala. Beste hurbilketa ikuspuntu historikotik egiten da, historiari eta tradizioari lotuz, eta hori egungo errealitate linguistikoa islatzen da. Bi ikuspegiak borondatezko deribazioa dute: lehenengo ikuspegiak eskatzen da, gutxienez, herritarren banakako eskubideak gorde daitezela hezkuntzan eta Administrazioarekiko harremanetan. Bigarren ikuspegiak, aldiz, gehiengoaren nahia kontuan hartzea eskatzen da, hura euskara ikastearen guztiz kontrakoa baita.

Nafarroako hegoaldean dagoen euskararekiko atxikimendu falta alderdi guztiek onartzen dute, eta, beraz, ofizialtasunaren alde daudenak ere beldur dira zonifikazioak indarrean jarraituko duela oraindik, eta euskara Nafarroako lurralde osoan hizkuntza ofizial gisa aldarrikatzeak itxaron egin beharko duela, ez baitago horretarako adostasun politikorik ez sozialik. Kultura arloko udal teknikariek osatutako Nafarroako Gizarte Foroko kideek ohartarazi zigutenez, batzuetan udaletan ez dira ausartzen euskararen aldeko neurri batzuk hartzera, herritarren protesten beldur direlako. (NGF)

Egoera horren aurrean, Ezberdinen arteko Mintegiko kide batek jarrera positiboak borondatezkotasunaren bidez lortzea lehenesten du. Hala ez bada, argi eta garbi adierazten du:

Nafar guztiek euskaraz jakin behar dutela ez dut desiragarri ikusten. Ez posible ez desiragarri, gatazkarako iturria delako. (...) Ezin ditugu euskaldun sentimendurik ez dutenak euskara ikastera behartu, ezagutzera. (EM)

Beste batzuek, ordea, uste dute bi une bereizi behar direla gai honetan: ofizialtasunaren aldarrikapena, batetik; eta hori aplikatzeko modua, bestetik. Gure elkarrizketatueta batek, Izquierda-Ezkerrako arduradun politikoak, horrela dio:

Euskara ofiziala izateak ez du esan nahi inor behartu behar denik hori ikastera, jakitera, ez eta administrazio batera joan, eta denek euskaraz hitz egingo dutela itxaroteria. Ondo azaldu behar da: ofizialtasunak esan nahi du hitz egiten dutenek eskubide aitortuak izatea. Eta ez baten batek derrigor ikasi behar duzula esango dizunik. (E4)

Eta hori guztia ondo arautu beharko litzateke, haserrerik ez dadin sortu. Era berean, Aritz Romeok hau dio:

Euskara Nafarroako lurralde osoan ofiziala izateak ez du esan nahi hizkuntza hori garatu eta babesteko politikak berdinak izan behar direnik Baztanen edo Cortesen, udalerrri horien errealitate soziolinguistikoa erabat desberdina da eta. (5.2 ekarpena)

Aurrera egiteko, legeak sortzen dituen eztabaida puntu nagusietako bi hartuko ditugu: hezkuntza eta lanpostu publikoen hornidura Nafarroako Administrazioan.

Euskara Nafarroako oinarritzko hezkuntzan

Hezkuntza sistema herritarren identifikazio komunerako loturak eraikitzeke oinarritzko elementutzat hartuta, gai eztabaidagarria da gizarte guztietan. Nafarroan ere bai, noski, baina euskarari eman behar zaion tratamenduak protagonismo handia hartzen du.

Hain zuzen ere, estatu modernoaren zeregin nagusietako bat da herritarrak prestatzea eta lan merkatuan aritzeko egokitzea. Hasiera batean nahikoa zen oinarritzko kontuak idazten eta irakurtzen jakitea, hala nola argibideak edo kontratuak, baina denborarekin konplikatu egin da, eta, gaur egun, hezkuntza lan sarearen osagai nagusia da. Lehen eskulanak esperientziarekin berarekin transmititzen baziren ere, gaur egun hezkuntza sistematik lantzen dira.

Hezkuntzaren planteamendu tekniko horri, ordea, funtsezko bi osagai falta zaizkio. Lehenengoa hezkuntza bideratzeko hizkuntza. Eta bigarrena, estatuak haren bidez lortu nahi duen kohesio funtzioa.

Gai horri heltzeko modu asko daude, baina nazio-estatuaren forma klasikoa da estatu bateko herritar guztiek eskubide berberak izan behar dituztela pentsatzea, eta horregatik, hezkuntza sistemaren helburuetako bat herritarren kohesioa (eta uniformizazioa, zentzu onean) lortzen saiatzea da. Horrela ulertuta, berdintasuna bakarrik ziurtatu daiteke hizkuntza bakarra erabiliz eta biztanle guztientzako hezkuntza eduki berdinak ziurtatuz.

Batzuek uste dute komunitate baten historiak, literaturak eta hizkuntzak leku nabarmena eduki behar dutela hezkuntza curriculumean; izan ere, politika demokratikoak herritarren kultura identifikazioaren arabera eraikitzen dira, eta era horretara errazago inplikatzeko dira justiziaren bila. Ez da beharrezkoa nagusitasun moralik adieraztea, dio Amy Gutmannek. Gure seme-alabak beste haur batzuk baino gehiago maite ditugun bezala, gure herrialdeko kultura orientazioak gureak direlako eta gure bizitzari esanahia ematen diotelako baloratzen ditugu soilik (Gutmann, 2001: 64). Baina nola ulertu beharko lirateke, Gutmannen hitzetan, “gure herrialdeko kultura-orientazioak” Nafarroaren kasuan?

Zalantzarik gabe, irakaskuntza sistemak funtsezko zeregina betetzen du gizarte moderno demokratiko guztietan: kultura demokratikoaren eta kultura hori posible egiten duten gizarte bertute jakin batzuen transmisioa. Ez gara herritar gisa jaiotzen, herritar izaten irakasten digute, aldiz; eta ez gara jaiotzen lankidetzara, elkartasunera edo gureak ez diren nortasun kulturalak onartzera bultzatzen gaituen beharrezko kultura demokratikoarekin.

Beraz, hezkuntzak hartzen duen garrantzia kontuan hartuta, estatuarenaz haragoko beste hizkuntza eta kultura propioak zituzten nazio-estatuaren lurralde periferikoek beste proposamen batzuk ekarri zituzten nazio-estatuaren logika bateratzailatik ihes egiten zuten arazoei aurre egiteko. Garrantzitsua da beste eredu batzuk badirela adieraztea, askotan hezkuntza sistema antolatzeke beste aukera batzuk alde batera uzten baitira, ezjakintasunagatik batez ere.

Lehenengo bereizketa klasikoa da arazoa lurralde ikuspegitik edo ikuspegi pertsonaletik ulertzea. Ohiturik gauden lurralde ikuspegiaren arabera, estatu bateko herritar guztiek eskubide eta betebeharrak berberak dituzte, eta, horregatik, hezkuntza sistemak bermatu egin behar du herritarren abiapuntuko berdintasun hori. Eredu horren aldaera batek onartu egiten du barrutiak egotea estatuko mugen barruan, eta horietako bakoitzean lurralde eredia aplikatzen da, barruti horretarako izendatutako hizkuntzan eta kulturaren oinarrituta. Hori da Belgikako edo Suitzako kasu ezaguna, zeinean ofizialtasunak ez baitu esan nahi biztanle guztiek hizkuntza bera dutenik estatu osoan, ezta elkar ulertzeko ere. Nafarroaren kasuan, biztanle guztiek gaztelaniaz jakin behar duten bezala, euskal nazionalismoak, oro har, euskara ere jakin beharko luketela uste du. Hori guztia berdintasunaren eta diskriminazioak saihestearren alde.

Lurralde eredu horren aurrean, XIX. mendearen amaieratik aurrera, Austriar-Hungariar Inperioan, eta lurralde hartan elkarrekin bizi ziren kultura kopuru handiari irtenbidea aurkitzeko asmoz, *austro-marxista* ildoak deritzonak ikuspegi pertsonala teorizatu zuen, ez lurraldeari lotua, baizik eta pertsona kopuru jakin baten borondateari. Talde haiei, bizi ziren lekua edozein zela ere, beren kultura propioan bideratutako irakaskuntza bermatuko zitzaie, kultura jakin haren erdigunetik oso urrun egon arren. Borondatearen irizpide horren barruan beste eredu batzuk ere sortu dira. Nafarroan eragina izan dezakeen hurbileko adibide bat aurkezteagatik, Euskal Autonomia Erkidegoan bi hizkuntza ofizialek, euskarak eta gaztelaniak, garrantzi bera dute.

Hezkuntza sistemak ziurtatu behar du ikasleek, derrigorrezko hezkuntzaren aldiaren amaieran, bi hizkuntzak menderatzen dituztela, baina gurasoek beren seme-alaben irakaskuntza zein hizkuntza nagusitan egingo den aukera dezakete, beti horretarako talde bat osatu ahal bada. (ikuspegi horiei buruz, ikus, besteak beste, Larrea eta Bilbao, 2010; May, 2012; Nimni, 2005; Zabaltza, 2006).

Ikusten dugunez, berdintasun eskubideak talka egin dezake aniztasun eskubidearekin eta hizkuntza bat aukeratzeko askatasunarekin. Hori dela eta, eztabaida horrek mila ñabardura ditu, bateratzeko zailak. Zer diote gure informazio iturriek?

Erriberako eskualdeetan euskarak izan dezakeen erabateko gaitzespena aipatu dugu. Are gehiago, Nafarroako Herritarren Mahaiak (NHM) salatzen ditu eskola publikoan zenbait gurasok beren borondatez talde bat euskaraz proposa ez dezaten tokiko administrazioek askotan jartzen dituzten trabak.

Baina beste mintegi eta foro batzuetan kontrako jarrera ere aurkitu dugu, hau da, euskararen hedapena, esanez hizkuntza ofizialetako bat eremu jakin batzuetan ez irakastea Nafarroako pertsona guztien berdintasunari huts egitea izango litzatekeela. Gainera, arazoa konpontzeko modu argia da, ez ukatuz, baizik eta euskara ez dakienari aparteko balioa eskainiz (hala ere, ideia bera inposiziotzat jotzen da onartu nahi ez dutenen aldetik). Erdian beste ñabardura batzuk daude, esan bezala, batez ere Nafarroa osoan A eredu baten balizko balioaz, gutxieneko eredu gisa (hau da, euskara irakasgai gisa, gaztelaniazko hezkuntza baten barruan). Proposamen hori behin baino gehiagotan azaldu da, eta beraz, laburki azalduko dugu haren inguruan sortzen den problematika.

Administrazioak eskaintzen duen A hezkuntza ereduia Nafarroa osora zabaltzea, G ereduia (euskararik gabe) baztertuz, azken urteotan oihartzuna izan duen proposamena da, eta urrats positibotzat jo da Nafarroako hezkuntzaren hizkuntza gatazkan. Gure azterketan behin eta berriz agertu da. Hala defendatzen du, adibidez, sindikatu abertzale baten ordezkari batek (E6), Aholku Batzordeko kide batek (AB), Castejongo Gizarte Foroak (GF) edo Berako gazte ez-politizatuak (GEP).

Proposamenaren helburua da Nafarroako biztanle guztiak euskarara hurbiltzea (ikasleen % 61,3k G ereduia egiten zuen 2021ean), nahiz eta argi egon ereduak ez duela lortzen ikasleak euskalduntzea hezkuntza zikloa amaitzean. Hala ere, ez du gutxieneko adostasunik lortzen, hiru sektoretan behintzat:

1. Euskararen derrigorrezko irakaskuntzaren kontrakoak. Zonifikazioaren aldekoak dira, eta seme-alabak euskarazko ereduetan ez matrikulatzearen aldekoak, ezta irakasgai bakar baten bidez ere. Tuterako gazte politizatu gabeek (GEP) argi eta garbi adierazten dute hori. Eta Erriberako Navarra Sumako arduradun batek ere dio “eredu horrek arbuioa sorrarazten du onarpena baino” (E12)
2. Euskara Nafarroa osoan hedatzearen aldekoak (D ereduia). Diskriminatuak sentitzen dira, gaztelania Nafarroa osoan ikasten den bitartean euskararekin ez baita gauza bera gertatzen. Euskalgintzako kide elkarrizketatu batek ez du ulertzen zein izan daitekeen A ereduaren balioa: “... zertara goaz, jarrerak aldatzera edo eskubideak bermatzera?” Bere eskubideak ez baldin badira errespetatzen, tarteko eredu hauek alferrikakoak dira. (E13)

3. Euskararen inguruko derrigorrezko neurriei errezeloa dietenak. Euskararen aurka agertzen diren eskualdeetan kontrako eragina izan dezakeela uste dute. Hala adierazten da Ezbedinen arteko Mintegian (EM). Erriberako elkarrizketatu liberal batentzat (E8), ziurtzat jo daiteke eredu hori inposiziotzat hartuko litzatekeela. Bi kasuotan, eta beste zenbaitetan, pentsatzen da borondatea eta proposamena onartzeko jarrera ona guztiz argiak izan behar direla funtziona dezan. Azkenik, PSNko (E9) elkarrizketatutako batek zalantza egiten du neurriari buruz, ez baitu inon atxikimendurik lortzen, ezta euskaldunen sektorean ere.

Euskara Nafarroako Administrazioan: lanpostu publikoen deialdiak

Administrazioan plaza publiko bat lortzeko euskarak izan behar duen ezagutza mailaren inguruko polemika hizkuntza horren inguruan dagoen politizazioaren eta ideologizazioaren froga besterik ez da, eta, beraz, uste dugu ez duela merezi emandako argudioen egiazkotasunean edo arrazoimenean sakontzea.

Horrekin esan nahi dugu argudio tekniko edo legalak erabil daitezkeela, eztabaida daitezkeela lanpostu bat eskuratzeko edo Nafarroako hizkuntza ofizialetako batean laguntza jasotzeko eskubideei buruz, edo eska daitezkeen ezagutza mailaz, baina gaia guztiz politizatu dago, eta ezin da ebatzi nolabaiteko adostasunik gabe.

Gure elkarrizketa, eztabaida talde eta mintegietan ez da proposamen argirik sortu arazoa konpontzeko, nahiz eta jarrera batengatik edo besteagatik kexak azaleratu diren. Arazoa edo arazoaren zati bat ikusten da, baina ez da harago joaten. Iparraldean kexatzen dira plaza batzuk ez baitituzte betetzen euskaldunek (GEP Bera). Aholku Batzordeko kide batek azaldu du Administrazioak ez duela baliabiderik euskaldunak artatzeko, eta, euskarazko idazki bat bidaltzen bada, denek dakitela itzuli egiten dela, erakunde publikoetako enplegatu gehienek ez dutelako hizkuntza eskakizunik, eta ez direlako euskaldunak (AB). Azkenik, euskara baloratzea lortzen den kasu askotan, epaileek oztopo handiak jartzen dituzte.

Bestalde, kexak ez dira leuntzen hegoaldean, baina kasu honetan ezin delako euskarazko hizkuntza eskakizun elebidunen bat duten plazetara sartu, hau da, euskara ez dakien Nafarroako zatia diskriminatzeagatik (GEP Tuter). Ñabardurak ere aurkitu ditugu eremu honetan: batzuek onartzen dute baloratzea, baina uste dute ezin dela erabakigarria izan eremu ez-euskaldunean (E8, intelektual liberala); edo Nafarroa osoan euskara baloratzea proposatzen dutenak, nahiz eta merezimendu gisa izan kasu okerrean (E3, Izquierda-Ezkerra).

Eztabaida horretan, konparazioaren puntu klasikoetako bat beste hizkuntza batekiko, ingelesarekiko, dagoen jarrera paradoxikoa da. Kasu honetan ez dago aurkakotasunik beste hizkuntza batzuk, normalean ingelesa, lanpostu jakin batzuk betetzeko eskatzen direnean. Euskararen kasuan, ordea, euskara merezimendu gisa baloratze hutsak erabateko oposizioa sortzen du Nafarroako zenbait sektoretan. Horrek, konparazioz, euskara baloratzearen alde daudenen haserrea eragiten du, izan ere, kasu askotan, ingelesa azkenean baloratu egiten da, eta euskara ez.

Nahiz eta sarritan esaten den XXI. mendeko gizarteko gatazka handienak funtsean kulturalak direla eta izango direla, eta ez materialak, eta nahiz eta behin eta berriz esan dugun euskararen gaineko gatazkaren azpian identitate nazionalen arteko gatazka dagoela, kontuan hartu behar da alde “material” oso garrantzitsu bat Nafarroako Administrazioak euskarari laguntzeko dituen hizkuntza neurriekiko mesfidantza azaltzeko. Azkar esanda, mesfidantza horren oinarria da lanpostu bat betetzeko orduan aukera berdintasuna galtzeko beldurra, eta zenbait sindikaturen jarreran oinarritzen da. Hala adierazi zuten Nafarroako Gizarte Foroan:

Langileen sektore batek ez du pribilegiorik galdu nahi eta erakundeetan euskararen presentzia oztopatzen du, euskara ikasteari edo euskara merezimendu gisa baloratzeari uko eginez. (NGF)

Ez da ahaztu behar, Euskal Autonomia Erkidegoan ere, euskararen normalizazio sozial eta politikoaren maila askoz altuagoa dela esan daitekeen arren, epaiak ematen direla etengabe tokiko administrazioek deitutako lanpostuetarako euskararen ezagutzaren eskakizunaren aurka.

4.4. Euskararen tratamenduari buruzko jarrerak Nafarroan

Benetan zaila da aukera politikoak, eremu geografikoak, jarrera ideologikoak... identifikatzea, gaur egun Nafarroako gizartean euskararekiko dagoen jarrera aniztasuna zehaztasunez mugatzeko.

Kontuan hartuta euskararen polarizazio eta politizazio egoera, euskara sustatzeko moduak, dauden pertzepzioak, eskubide gisa duen tratamendua, edo hura garatzeko politikarik egokiena, hiru jarrera nagusi daude Nafarroan, 2020ko txostenean adierazi bezala. Hurrengo urteetan tipologiaren balioetasuna ebaluatu genuen, eta modu esanguratsuan, jaso genituen iritziek jarrera haiek onartzen zituzten, nahiz eta inor ez zen inola ere ausartu horietako batean sartzera, eta horrek adierazten digu, esan bezala, gutxienez benetan dauden jarrera gehienak bilduko dituen tipologia baten konplexutasuna. Hala, Max Weber-en *tipo ideal* gisa aurkezten ditugu; hau da, eraikuntza edo sailkapen teoriko hutsak dira, errealitatek hartutako ezaugarriez osatuak, baina ez dira puruak. Horrek esan nahi du elementu nahasiak aurki daitezkeela mota guztietan eredu analitiko gisa errealitatean erabiltzeko orduan. Hauexek dira:

1. Euskaltzale batzuentzat euskara nafar nortasunaren osagai ukaezina da eta, beraz, herritar guztien eskubidea eta betebeharra da hizkuntza hori jakitea.

Minduta daudela ageri da, euren hizkuntza eskubideak etengabe urratzen direla uste dutelako, batez ere Nafarroako Administrazioaren aldetik. Haien aldarrikapenak linguistikoak dira, eta ez dute euskararen eta euskal nazioaren arteko lotura espliziturik egiten, ezta Euskal Herriko gainerako lurraldeekin ere. Agian nazioa eta hizkuntza parekatzen dituztelako? Beren aldarrikapenatarako kaltegarria iruditzen zaielako, jendea baztertuta senti daitekeelako? Ala begi-bistakoa iruditzen zaielako ez dela esplizitu egin behar? Haien kritika gartsuaren muina Euskararen Legea eta Nafarroako lurraldea hizkuntza eremu desberdinetan bereiztea da, hau da, *zonifikazioa*. Zonifikazioa arbitrarioa eta bidegabea izateaz gain, hizkuntza errealitate betikotzen edo egonkortzen du eta,

horrela, euskararen hazkundeari oztopoa jartzen dio.⁴ Diskurtsoaren osagaiak aldatu egiten dira egoera batetik bestera, baina maiz hiru argumentu multzo izaten ditu oinarrian:

- euskarak batu egiten du, ez du kentzen. Nafarroako Administrazioak babestu eta sustatu behar duen kultura ondarea da.
- euskarak, nafar hizkuntza den aldetik, ofiziala izan behar du Nafarroa osoan, eta D eredia Nafarroako lurralde osora zabaltzea litzateke progresio logikoa.
- edozein lurraldetan bizi direla ere, euskaraz hitz egiten duten nafarrek eskubide besterenezinak dituzte, eta erakundeek eta, oro har, esparru politikoak ez dituzte ezagutzen edo urratzen dituzte. Errespetu falta horrek marjinazio sentimendu sakona eragiten du sektore honetan, bigarren mailako herritarren tratua jasotzen dutela argudiatuz.

Nolabait, Euskal Autonomia Erkidegoko euskararen aldeko mugimenduaren babesa dute, baita euskal nazionalismoaren sektore garrantzitsu batena ere, esan dugunez, euskara identitate nazionalaren elementu nagusia baita euskal nazionalismoarentzat. Zenbait eragile sozial edo politikok elkarrekin bizitzeko egiten duten deia (eta, batzuetan, baita aniztasunarekiko errespetua ere), diskriminazio objektiboa desitxuratzen duen tranpa moduko bat dela argudiatzen dute.

2. Beste muturrean, euskara Nafarroako kultura ondareztat hartu arren, **euskarak berezko ez dituen lurraldeetara hedatzearen kontrako jarrera** dugu. Euskara babesteko har daitezkeen neurriekiko mesfidantza izugarria da, euskal nazionalismoaren estrategiatzat hartzen baitira hizkuntza inposatzeko eta, horren bidez, haren eragin politikoa zabaltzeko. Hemen bai esplizitu egiten dela hizkuntzaren eta nazionalismoaren arteko harremana. Deitoratu egiten dute Nafarroako Administrazioak izan dezakeen hizkuntza politika, gaztelaniadunetikiko mespretxua ekar dezakeelako, batez ere administrazio publikoko lanpostuetan euskararen ezagutza eskatzeari dagokionez. Hezkuntza sistemari dagokionez, ez dute onartzen gutxieneko neurri modura A eredia Nafarroako lurralde osora zabaltzea, herritarrek eskatzen ez badute behintzat. Noraino baloratzen dute elkarbizitza? Ez dirudi lehentasun bat, noski. Sektore horren barruan askotariko populazioa dago, alderdi politikoetatik hasi eta diskurtso bera duten herritarretaraino. Eta hori oso aurkakoa izan daiteke batzuetan, eta beste batzuetan, berriz, oso biktimista, hain zuzen ere, diskriminatu gisa agertuta euskararen aldeko neurrien aurrean, bereziki lan esparruan.

3. Bi jarrera horien erdian, eragile sozial eta politiko ugari ditugu, eta, guztien artean, ideia bat dute: Nafarroako biztanle guztiek **mesfidantzarik gabe ikusi behar dutela euskararen babesa**, eta hori dela hizkuntza politika egokia bermatzeko modu bakarra. Ezkerreko sektore gutxi-asko liberalak, euskararen aldeko mugimenduaren zati esanguratsu bat, alderdi abertzaleak, euskararen egoeraz arduratutako intelektualak, Nafarroako Administrazio Publikoan nolabaiteko erantzukizuna duten talde politikoak... Jabetzen dira, eta hala adierazten dute, Euskararen Legeak ezarritako zonifikazioa ez dela egoera ideala, baina erremedioa ez dela

4 Ikus bedi, adibide gisa, Berria egunkariaren azala (2023-05-06): "Datuek frogatzen dute zonifikazioak galgatu duela euskararen garapena": <https://www.google.com/url?q=https://www.berria.eus/paperekoa/1938/002/001/2023-05-06/datuek-frogatzen-dute-zonifikazioak-galgatu-duela-euskararen-garapena.htm&sa=D&source=docs&ust=1684233400589968&usg=AOvVaw3siWAqQqM5k0-Wdi2tamnY>

etorriko hizkuntzaren inguruko liskarretik edo gatazkatik. Bistan da hizkuntza politika orok baduela nolabaiteko derrigortasuna, eta alde horretatik, ez dira Nafarroako Administrazioak modu *neutralean* jardun dezakeela pentsatzeko bezain inozoak. Hala ere, Nafarroako gizartearen pluraltasun politikoarekiko kezka handia erakusten dute, eta saiatzen dira, kosta ahala kosta, euskararen aldeko neurriak *ezarpen* gisa ulertuak izan ez daitezzen.

Ikusi dugunez (4.3 puntua), Nafarroa osorako derrigorrezkoa izan litekeen A eredua zabaltzeko aukerari buruz ere ez genuke guztien adostasunik aurkituko. Batzuek, ezkertiaragoak eta euskal nazionalismotik gertukoak ez direnek, desadostasuna adierazten dute hizkuntza edo kultura homogeneotasunaren asmoen aurrean. Hori dela eta, diskurtso lasaiagoa planteatzen dute hizkuntza gatazkari buruz. Beste batzuek, batez ere administrazioan erantzukizuneko karguak betetzen badituzte, pixkanaka aurrera egiteko eta euskararen aldeko neurriak hartzeko beharra planteatzen dute, baina zuhurtasunez, konfiantzarik ez duen populazioaren erantzuna kaltegarria izan ez dadin, hori bilatzen ari denaren kontrakoa izango balitzateke, nafar eskuinaren presioa oso handia baita. Intelektual batzuek argi eta garbi diote ez dela zentzuzkoa euskara sustatzearen aurka jotzea. Ez da demokratikoa; baina ez dute ere bat egiten neurritz kanpokotzat jotzen dituzten jarrerekin, eta hizkuntzen arteko bizikidetzak baketsuaren alde egiten dute. Eta, azkenik, euskararen aldeko mugimenduaren sektore bat aurkitzen dugu, aipatu dugun lehen jarreratik bereizten ari dena, jakitun baita funtsean euskaldunen hizkuntza eskubideetan oinarritutako diskurtsoak ez duela euskararekiko erakarpenik sortzen eta, nolabait, antzu bihurtzen dela. Helburua diskurtsoa aldatzea eta lantzea da, ez hainbeste politika linguistikoak, baizik eta herritarren jarrera subjektiboak (joera horren adibide bat ikus daiteke 5.4 ekarpenean).

Zer esanik ez, aipatutako sektore guztiak euskara sustatzearen alde daude, intentsitate handiagoarekin edo txikiagoarekin, baina ahalegin handia egiten dute -moduetan gutxienik- euskal nazionalismoaren asmoetatik bereizteko, eta Nafarroako herritarrei soilik dagokien gai gisa aurkezteko. Kontua ez da inposatzea, euskararekiko atxikimendua lortzea baizik. 2020an proiektu honen testuinguruan egindako txostenean dagoeneko aipatu dugu Aditu Taldeko kide baten gogoetak ezin hobeki laburtzen zuela tarteko jarrera izendatu dugun multzo horren guztiaren funtsezko kezka.

Nafarroan, gizartearen zati bat euskaldun sentitzen da eta beste bat espainiar: bi aldeak bitzita politiko, sozial eta kulturalean ordezkatuak izatea lortu beharko litzateke. (AT)

Noski, ezin dugu tipologia hau amaitu, gogoratu gabe Nafarroako gizartearen zati handi bat ere badagoela arazo horretatik guztiz kanpo edo axolagabe, lehen ikusi dugun bezala.

4.5. Euskararen inguruko bizikidetzaren bila

Posible da Nafarroan euskararen inguruko itunik? Ezinezko bat eskatzea bezala dirudi: nola adostu zerbait euskararen inguruan, liskarra sortzen duen puntu nagusietako bat bada? Gure informatzaileek erabat partekatzen dute iritzi hori. Gaia aztertzen denean, ohikoa izaten da norbera horretarako prest dagoela esatea, noski, baina berehala jartzen dira gurutzatzeko prest ez dauden baldintza edo marra gorriak: ezinezkoa da, egiturazko zerbait da; normala da aurkamendua; euskaldunok ezin dugu gehiago amore eman; gaztelania derrigorrezkoa bada, zergatik ez euskara? euskal nazionalismoak inposaketa bilatzen du Nafarroa osoan hegemoniko izateko...

Zer beharko litzateke? Kontzeptu positiboak aipatzen dira, baina ez da horietan sakontzen eta, esan bezala, normalena da berehala baldintzak jartzea. Nolanahi ere, aipatu da beharrezkoa dela *empatia* izatea euskararen arazoa norberarena ez den modu batean ulertzen dutenekin, haiek ere nafarrak baitira. Halaber, *eskuzabaltasunaz*, edo *arrazoitze kolektiboaz* hitz egiten da. Alde horretatik, *amore emateaz* hitz egiten da, mundu guztiak zerbaitean amore eman behar duela, alegia, bestela ezinezkoa izango litzatekeelako akordio bat lortzea. Alderdi politikoen artean gutxieneko *kontsentsua* bilatzeaz hitz egiten da, eta, kasuren batean, zehazten da ezen, hori ezinezkoa omen denez, adostasuna gizarte eragile desberdinen artean sor dadila. Alderdi guztien artean adostasunik lortu ezin delako ideian sakonduz, ahalik eta adostasun zabalena bilatzea ere aipatzen da, nahiz eta ez izan erabatekoa.

Aholkuak banatzeko orduan, gauza nahiko orokorrak aurkitu ditugu. Gehienak *noranzko bakarrekoak* dira, hau da, *noranzko* batean, espainiar nazionalismoari eskatzen zaio egoera ulertzeko eta ez gotortzeko etengabeko ukapen jarreran batean; eta, bestean, euskal nazionalismoari eskatzen zaio bere jarrera baretzea, ez dezala hainbeste inposizioaz hitz egin, eta uler dezala Nafarroaren zati handi batek ez duela euskara ikasi nahi. Baina euskaltzaleen aldetik ere aholkuren bat aipatzen da euskal nazionalismoarentzat, helburuak hobeto zentratzeko, alegia. Mintegiko kide honek euskara Nafarroa osora hedatzeari buruz hitz egin du:

Gaur egun ez diot zentzurik ikusten. Euskararen lehentasuna ez da zabaltzea. Borroka ez da hori: euskararen lehentasuna da ez galtzea. (EM)

Espainiako eta Euskal Herriko nazionalismoei buruzko bi *noranzkoko* beste kontseilu batzuk ere jaso ditugu. Nolanahi ere, espainiar eta euskal nazionalismoen protagonismoa nabarmena da arazo horretan.

4.6. Bizikidetzeta eta nazio arazoa Nafarroan

Gehiegi esatea da Nafarroan nazio nortasunen arteko talka dagoela? Gehiegizkoa da pentsatzea espainiar eta euskal nazionalismoa lurralde bera lortzeko lehian ari direla, eta horrek eragina duela bai bizikidetzan, bai nafar identitatean, eta baita euskararen eta gaztelaniaren onarpenean nafar hizkuntza gisa?

Tonua Beran eta Tuteran eratu ziren politizatu gabeko gazte taldeek jartzen digute batez ere. Berako taldeari dagokionez, aitortu dute, *zorionez* (sic), egunerokoan ez direla elkarrekin bizi espainiar bakarrik sentitzen den jendearekin. Eta kexu dira espainiar sentimendu horretatik euskararekiko mespretxu nabaria hautematen dutelako (GEP Bera). Talde beraren arabera, euskal herritar izateko (eta nafar izatearekin parekatzen dutela ulertzen da) ezinbestekoa da euskara jakitea, hizkuntza hori nafar identitatearen parte dela uste baitute. Hala ere, gaztelaniari buruz galdetzen denean, onartzen dute, ezbairik gabe, Nafarroako hizkuntza ere badela, euskara bezala (GEP Bera). Tuterako taldeak, bestalde, Nafarroako espainiartasuna azpimarratzen du, eta diskriminatua sentitzen da euskara inposaketatzat hartzen duelako. Egoera hori onartezintzat jotzen da, uste baitute nafarrak batzen dituen ez dela euskara, gaztelania baizik (GEP Tuteran).

Berako gazteak ez dira espainiarrak sentitzen, eta bai euskal herritarak edo nafarrak, edo biak. Tuterako gazteak, aldiz, nafarrak eta, oro har, nafarrak eta espainiarrak sentitzen dira. Eta horrez gain, deigarria da haien arteko ezjakintasun handia: Berako taldeak onartzen du Iruñea dela haien “hegoaldea”, beheerago ez baitira iristen. Gauza bera gertatzen da Tuteran, hemen ere Iruñea da erreferentzia, eta “iparraldea” hortik gora hasten da. Oro har, Iparraldeak abandonaturik sentitzen dira Tuteran. Modu esanguratsuan, Iruñea “oso euskalduna” da Tuterako taldearentzat, baina Nafarroako iparraldearen aldean, “ez hain euskalduna”, Berako taldearentzat.

Bi talde horiek, agian, Nafarroako banaketa bere gordintasun osoan islatzen dute, baina ez dira egoera horren lekuko bakarrak. Erdialdean, Iruñerrian, Berriozarren antolatutako herritar mahaiak behin eta berriz erabiltzen ditu Euskal Herria eta euskalduna kontzeptuak Elizondori buruz hitz egiteko, eta, aldiz, Castejoni buruz hitz egitean, Espainia kontzeptua erabiltzen du (HM Berriozar). Politizatuen taldeko gazte batek dioenez:

Ni Nafarroara iritsi nintzenean, Nafarroako iparraldeko herri txiki batera joan nintzen bizitzera. Espainiako bandera gizarte sare batean zintzilikatzea bururatu zitzaidan, eta lagunek hitz egiteari utzi zidaten. (GP)

Eta talde bereko beste kide batek ondorioztatzen du:

Bada estremismo bat jendeak euskara ikastea eragozten duena, eta beste bat Espainiako bandera balkoian zintzilikatzea galarazten duena. (GP)

Hau da, identitateari buruzko eztabaidak zaildu egiten du elkarrizketa sozial lasaia Nafarroan, nahiz eta horrek ez duen esan nahi identitate gaiak direla eztabaidak eta ezegonkortasun soziala sortzen duten bakarrak, jakina. Baina Nafarroan egitate egiaztagarria da, askotan onartzen ez bada ere. Alderantziz, mozorrotu egiten da batzuetan, identitate batzuek besteak aitortzeko duten ezintasunagatik.

Zein zentzutan markatzen du identitate banaketa horrek Nafarroako eztabaida politikoa? Asier Etxeniketik eskaintzen digun azterlanean ikus dezakegu nola nazio identitate forma horiek politikoki markatuta dauden, eta harreman oso konplexuak sortzen dituztela Nafarroan (ikus 4.1. ekarpena).

Hala, espainiar estatuaren lurralde antolaketarako formulei dagokienez, aukera gogokoena izango litzateke estatu bat gaur egungoak baino eskumen gehiago izango litzatekeen autonomiekin (% 27); ondoren, estatu bat beren erkidegoei erabakitzeke eskubidea aitortzen diena (% 25), eta egungo autonomia ereduari eusten diona (% 21). Azkenik, % 15ek egungoa baino egoera zentralizatuagoa nahi du. Datuak berez interesgarriak badira ere, are interesgarriagoa da nazio sentimenduen araberako lehentasunak zeintzuk diren ikustea: nafar eta euskal herritar sentitzen direnen % 63k erabakitzeke eskubidea aitortzen zaien autonomiadun estatu baten alde egiten du; soilik nafar sentitzen direnen % 43k egungoak baino eskumen gehiago dituen autonomiadun estatua nahi du. Beste sentimendu batzuetan, nafar eta espainiar sentitzen direnengan, esaterako, berdintasun handiagoa dago aukeren artean, baina estatu zentralizatuagoren aukerak garrantzi handiagoa hartzen du, aurreko sentimenduetan ez bezala.

Hau da, nazio sentimenduek jarrera politiko jakin batzuei erantzuten diete, harreman zehatzik egitea ezin bada ere (harremana argiagoa litzateke euskal eta nafar sentimenduen kasuan). Aurrekoaz gain, lurralde antolamenduko ereduekin egin bezala, Etxeniketik gai hauek lantzen ditu: erabakitzeke eskubideari buruzko erreferendumak deitzeko legitimitateaz; Hego Euskal Herria (Nafarroa barne) Espainiaren independentzia eskuratzeaz; Euskal Estatu bat sortzea erabakitzeke erreferendum baten aurreko jarreraz, eta abar.

Iparra-Hegoa ardatzaren gainean

Nafarroan egindako inkestak errepasatzen ditugunean, eta zenbait datu eskualdeka bereizita ageri denean (Nafarroako Parlamentuko iritzi publikoaren Barometroetan, adibidez), ez dugu alde nabarmenik ikusten, eta batez ere, konstanterik, Nafarroako eskualdeen artean. Gure azterketan, aldiz, identitateari eta nazio sentimenduei dagokienez, aldeak hauteman ditugu Iparraldea eta Hegoaldea dei genitzakeenaren artean. Ez gara ari desberdintasun estatistikoez, jada esan dugunez, baizik eta urruntasunaz, interesik ezaz edo elkarrekiko nolabaiteko arbuioaz.

Aurreko puntuan aipatu dugu Nafarroako iparraldearen eta hegoaldearen arteko harreman eskasa, eta biena Iruñerriarekin, erdialdean, zeinari ez baitiote adeitasun handirik erakusten ez iparraldean ez hegoaldean. Baina, hori baino gehiago, gazte politizatuen taldean (GP) (bereziki jarrera ezkertiaragoak defendatzen dituztenen aldetik), Iparrak eta Hegoak, hurrenez hurren, duten nagusitasun eta gutxiagotasun konplexuaz hitz egiten digute. Berako eta Tuterako Gazte ez-politizatuen taldeetan horrela frogatu ahal izan genuen. Hain zuzen, lehenengoan hegoaldearekiko nolabaiteko “nagusitasuna” sumatzen zen, eta Tuterako taldeak, aldiz, gutxiagotasun sentimendua zuen, defentsa sentimendua bezalako. Nafarroako Administrazioak “utzita” sentitzen ziren. Elkarrizketatutako pertsona batek, Nafarroako hegoaldean bizi denak, ohartarazi zigun Nafarroako gobernuak kolorea aldatu arren hegoaldean ez dela aldaketarik nabaritzen. (E8)

Gaske politizatuen taldeko parte-hartzaile batek, Erriberakoak, dioenez,

Erriberan gutxiagotasun konplexu zoroa dago (...). Ni 80 aldiz joan naiz Bardeetara eskursioan, eta inoiz ez Baztanera. Gutxiagotasun konplexua dago, nik ere bizi izan dut. (GP)

Eta gauza bera dio Erriberako beste parte-hartzaile batek

Erriberan bizi den jendeak aukera desberdintasuna dagoela sentitzen du, diskriminatuak sentitzen dira, adibidez oposizioen eta euskararen gaian. Arbuio gutzia ezagutzarekin konponduko litzateke. Iparraldean beti egon da nagusitasun sentimendu bat: “ai, hauek Erriberakoak, ze astotxoak!” (GP)

Zer eragin du honetan guztian euskal nazionalismoak euskarari ematen dion zentraltasunak? Iparraldean bizi den gaske politizatuen taldeko parte-hartzaile batek hau esan du:

Bai, nagusitasun sentsazio hori dagoela uste dut. Beti jo dugu Gipuzkoara. Eta Iruñekoak baino hobek sentitzen gara, benetako euskaldunagoak garelako. (GP)

Ondoren, argitu du ez zaiola egokia iruditzen hegoaldeko biztanleei euskal herritarrak (nafarrak) izatea kentzea, baina uste du ez direla “gutziz euskal herritarrak” izatera iristen, ez baitute euskaraz hitz egiten. Kontrako aldetik, Berriozarko Gizarte Foroan batek hau dio:

Gure gizartean dagoen polarizazioa oso zaila da gaintzea, batez ere euskaldun izategatik bigarren mailako herritarra naizela uste dutenean. (GF Berriozar)

Horrela, intentsitate desberdinarekin eta arrazoi desberdinengatik, talde guztiek onartzen dute geografikoki bi Nafarroa daudela. Paisaia, gastronomia eta kultura, oro har, desberdin gisa deskribatzen dira, eta, batzuetan, kontrajarri gisa ere bai. Baina, gainera, aldagai geografikoa, zeharka, aldagai politikoko bihurtzen da. Hegoaldea iparraldea baino “espainiarragoa” da, zenbait gazteek argudiatzen du, Hegoaldearekiko ezagutzarik edo harremanik eza nolabait justifikatu nahian. “Beste mundu bat da”, diote. Eta hegoaldekoak, jakina, iparraldekoak ez bezalakoak sentitzen dira. Baina ez hori bakarrik: diskriminatuta sentitzen dira. Bada halako osagarritasun bat Iparraldeko eta Hegoaldeko gaske talde politizatu gabeen artean: Iparraldeak kontzientzia txarra adierazten du, nagusia sentitzen delako (hala agertzen da, adibidez, Ezberdinen arteko Mintegian -EM-) eta Hegoaldeak suminduratik hitz egiten du, gutxiago sentitzen delako. Iparra/hegoa aldagaiak diskurso guztiak zeharkatzen ditu. Eta, hain zuzen, Nafarroako herritar guztien arteko harreman beharra izan da politizatutako gazteek Nafarroako Administrazioari egindako proposamenetako bat. Hala ere, politikoki eskuinean dauden gazteak dira iparraldearen eta hegoaldearen arteko alde hori onartzeko uzturenak.

4.7. Baina bada nafar nortasunik?

Egiaztatu ahal izan dugunez, eta jakina denez, nafarrak harro daude nafar izateaz, eta komunitate bakan bateko kide ere sentitzen dira, identitate bakana duena, gainera, nahiz eta gai honek ez duen garapen teoriko handirik sortu gure taldeetan. Gehiago dirudi ideia komun bat errepikatzen ari direla, benetan hausnartutako zerbait baino. Bitxia bada ere, aniztasuna Nafarroako ezaugarri nagusi gisa erakusten da, baina Nafarroaren berezko identitate bakarraz ere hitz egiten da. Esan liteke Nafarroak bere aniztasuna identitate bakar batean txertatzea lortu duela, baina gatazka agerikoa eta nabarmena da.

Aditu taldeko kide bat horretaz ohartzen da, eta ez da fidatzen identitate bakarraz:

...lurralde bat dugu, eta, kosta ahala kosta, identitate bakarra eraiki nahi dugu haren inguruan, errealitatek ihesi. (AT)

Hala da. Pixka bat hausnartzen denean, Nafarroako identitate bakar bat benetan existitzen den zalantzak sortzen dira. 1.2 puntuan ikusi dugunagatik, Iritzi Publikoaren Barometroaren arabera, Nafarroako biztanleen % 44,4k dio nafarra sentitzen dela; Naziometroarentzat, berriz, % 9 bakarrik sentitzen da soilik nafarra (eta askoz ere gehiago nafarra eta espainiarra). Bat gatoz bigarren interpretazio horrekin, euskal eta espainiar identitateei protagonismo handiagoa ematen dielako. Gure ustez, 'soilik nafarra' sentimendua hain handia balitz, ez luke halako egoera gatazkatsurik sortuko (gai honetaz, Riveraren ondorio interesgarriak ikus daitezke, 2018).

Baina ikus dezagun orain zertan oinarritzen duten nafar identitatea gure informatzaileek. Bi joera nagusi daude: lurraldekoak eta euskarari buruzkoak.

1. Lurraldean oinarrituriko jarreraren arabera, Nafarroako lurraldeak berak ematen du identitatea, biztanle guztientzat berdina. Bi aldaera bereizten ditugu bere barruan. Alde batetik, normalean politikoki kontserbadorea den bertsio batek nafartasuna Espainiarekin lotzen du: Nafarroa Espainiakoa da, eta nafar sentitzeak espainiar sentitzea dakar. Beste alde batetik, bertsio zibiko bat, esparru administratibo bakar batean, Nafarroan, elkarrekin bizitzeak nortasun komuna eman behar duela ulertzen duena, batez ere Nafarroako komunitatearekiko eskubide eta betebeharretan oinarritua.
2. Euskarari zentralitatea ematen dioten jarreraren arabera, lurraldeaz haraindi, Nafarroako identitatearen benetako oinarria Nafarroako antzinako hizkuntzak ematen du, *linguae navarrorum* delakoak. Gaur egun lurralde osoan hitz egiten ez denez, ezinbestekoa da herritar guztiei zabaltzea, identitate bera partekatu ahal izateko. Euskal nazionalismoak jendarteratu eta sustatu duen jarrera da, baina euskal nazionalismotik hain hurbil ez daudenen bestelako esparru batzuetan ere babesa du.

Nafarroako identitatea ia beti Espainiarekin edo euskal sentimenduekin lotuta dagoela defendatu dugu. Baina hori ez dator bat nafarrak batez ere nafarrak direla dioen ideia herrikoiarekin. Baztanen, Berriozarren eta Castejonen 2019an antolatutako Herri Mahaiak (HM) dira horren adibiderik onena. Izan ere, nabarmentzea gehien gustatzen zitzairen ideietako bat da: ideologia eta kokapen sozialetatik harago, nafar izatearen harrotasuna dago. Zertan oinarrituta? Osagaiak kontaezinak dira: batzuk aipaturik utzi ditugu, hala nola Espainia edo euskara; beste batzuk, oso orokorrak dira, hala nola Osasuna edo Nafarroako bandera; eta beste batzuk, geografikoak, hala nola iparraldeko pagadiak edo Bardeak.

Nafarroan identitate bakarra dagoela onartzeak dimentsio politiko argia ere izan du; izan ere, jende jakin bati aukera ematen zion espainiar/euskal dilema alde batera uzteko, eta horrek pisu handia izan du Nafarroako gizartean, azken hamarkadetan batez ere (baita ETaren aurrean hartu beharreko jarrerak ere). Baina gero eta gutxiagoren jarrera dela ematen du. UPNtik hurbil dagoen gazte politizatuen taldeko kide batek ezin hobeto planteatzen du:

Nafarra soilik sentitzen den jendea ezagutzen dut. Gutxiengoa dela iruditzen zait. Uste dut badagoela nafar-espainiar sentitzen dena, gero euskaldunak, eta nafar soilik sentitzen direnak. Adibidez, UPNn [...] sektore honek ez du ia garrantzirik. (GP)

Nafar identitate bakarraren aurka ere, gazte politizatuen taldeko ezkerreko beste kide batek ez du Beraren eta Tuteraren arteko loturarik ikusten. “Ez ditu nafarrak izatearen sentimenduak batzen”. (GP)

Nafarroako identitatea euskararekin lotzen duen jarrera onartzeak, bestalde, sakontasun handiko arazoak sortzen ditu, Nafarroako biztanle guztiak ez baitute euskaraz hitz egiten. Nafarroako sektorerik kontserbadoreenak zuzenean ukatzen du, eta uste du euskara ez dela beharrezkoa Nafarroako identitatean, eta ezin duela nafar sentimenduaren benetako zentzuan eragin, espainolitateari estu lotuta baitago:

Norbait euskal herritar senti daiteke euskaraz hitz egiten duelako, baina nafar eta espainiar ere senti daiteke. Iparraldean euskaraz hitz egiten duen jendea egongo da, PPri botoa ematen diona (...) Euskaraz hitz egiteagatik ez zara nafar bihurtuko Murtzian bizi bazara. (GP)

Ikuspuntu akademikoago batetik, beste iritzi batzuek ere uste dute ezinezkoa dela euskarak Nafarroako identitatea gidatzea, nahiz eta, jakina, kontuan hartu beharreko elementua izan. Are gehiago, ahots batzuei kaltegarria iruditzen zaie, biztanle guztiak ezin baitira sartu definizio horretan. (AB)

Nolanahi ere, berriro ere, euskara aurkitzen dugu polemikaren erdian. Egungo euskal nazionalismoak euskarari ematen dion zentralitatea dela eta, proposamen hau, besterik gabe, nazio gatazka bihurtzen da, horren aurkako ahotsak sortzen diren arren.

Konfrontazio horren irudi klasikoa, hizkuntzaren eta ideologiaren (euskara eta euskal nazionalismoa) arteko nahasketaren irudi klasikoa, Erriberatik dator, behin eta berriro. Esan dezagun arbuio berri samarra dela, eta ez duela aurrekari historiko argirik: Bidadorrek (2016) XIX. eta XX. mendeetan euskarak inguruan zuen ospea azpimarratzen du (ikus ere Zabaltza, 2013), eta Aholku Batzordeko partaide batek honela dio:

Nire amaren familia Buñuelekoa zen, ez ziren nazionalistak, baina euskararekin zuten harreman eskasa prestigioan oinarritua zegoen, eta inoiz ez diet euskarari buruz hitz txarrik entzun. Lortu dutena izugarria izan da; buelta eman diote. Euskararen aurkako lana izugarria da. (AB)

Hain zuzen ere, badirudi euskararen aurkako jarrera hori lotuta dagoela, alde batetik, euskal nazionalismoak Nafarroan azken hamarkadetan izan duen gorakadarekin; eta, bestetik, espainiar nazionalismoak gorakada horren aurrean izan duen erreakzioarekin. Zergatik euskararen aurkako erreakzio hori, lehen eztabaidarik eragiten ez zuen hizkuntza bat besterik ez bada? Argi dago euskal nazionalismoak ematen dion garrantzi beragatik dela. Euskal nazionalismoak euskara euskal nazioaren eraikuntzan zentralizat jotzen badu, espainiar nazionalismoaren erantzuna euskararen gaitzespena da, euskal nazioari aurre egiteko modu gisa. Erriberako Navarra Sumako arduradun politiko bat ere harriturik agertzen da euskararekiko arbuio hori dela eta, haren ustez, kontu berria baita. "Zertara dator aldaketa hau, lehen kontu hauek ongi samar funtzionatzen baldin bazuten?" (E12)

Gaitzespen hori argia da Tuterako eztabaida taldean, eta antolatu ditugun beste talde batzuetan ere adierazi da, baita komunikabideek ematen dizkiguten informazioetan ere. Erriberako elkarrizketatu batek dioenez,

(euskarari dagokionez) ...Erriberan inkesta bat egingo bazenu, ez da axolagabea, gorroto dute, argi eta garbi esaten dizut. (E3)

Hala ere, Erriberako beste elkarrizketatutako batek une bateko jarrerak direla dio:

Tentsioa areagotu egiten da euskararekin bat egiten duten eta Erriberako zenbait sektorek oraindik mehatxutzat hartzen dituzten kultura adierazpenak daudenean. Adibidez, Korrika (...) pasatzen dela: inbaditzera datoz; eta baduzu hamabost egunez inposatu nahi digutelako zurrumurrua. (E11)

Eta Erriberako hirugarren elkarrizketatu batek (E8) adierazi du ez litzatekeela alferrikakoa gogoratzea euskal nazionalistengan ere gaztelaniarekiko arbuioa ere ikus daitekeela.

Eztabaida horiek gaintzeko, iritzi batzuek uste dute bai espainiar nazionalismoak eta baita euskal nazionalismoak ere defendatzen duten hizkuntzan oinarritutako nazio kontzeptu kulturaletik irten behar dela. Batzuek, horrela, nazio demokratiko edo zibikorako bira egitea proposatzen dute (AB; AT).

Esan bezala, lurraldeari lotutako identitateaz ari dira, eta beste batzuetan ere agertu da gure azterketan. Nahasmena sumatzen dugu herritartasuna eta nazio sentimendua kontzeptuen artean, baina nahasmen hori ez dagokie antolatu ditugun taldeei bakarrik, noski, nazio-estatuaren bi kontzeptuak berdintzeak eragindakoa da eta. Nazio kontzeptua estatuaren esanahiarekin erabiltzeak (Nazio Batuen Erakundean bertan ikus daitekeenez) galarazi egiten du ondo bereiztea, batetik, lurralde mugaketa administratiboei dagokiena soilik -estatua-, eta bestetik, identitate sentimenduen eta ideologia politikoaren -bereziki nazionalismoen- eremuan sartzen dena.

Nafarroako identitate sentimenduari erreparatuz, esan dezagun normalena identifikazio elementu bat baino gehiago egotea dela, Nafarroan egiaztatu dugun bezala; beraz, ez genuke ondorioztatu behar ez dagoela identitate sentimendu komunik. Baina batasun loturak txikiak badira (Osasuna, paisaia jakin batzuk, kolore gorria sinbolo gisa, eraikin enblematikoak), ematen duten kohesio maila neurri berekoa izango da. Balioak partekatzea onuragarria da edozein gizarterentzat (baina ez ezinbestekoa, txosten honetan bertan adierazten dugun bezala), baina lotura lurralde bat besterik ez bada, Nafarroa, eta nahikoa bada identitateak lurralde ezaugarria edukitzea, ez du herritarren arteko gehiegizko konpromisorik ekarriko.

[4.1. ekarpena]

Lurralde sentimendua eta nazio eta subiranismo auzia Nafarroa Garaian

Asier Etxenike

Soziologoa. Aztiker Ikergunea
Naziometroko kolaboratzailea
Eusko ikaskuntzako Arabako Lehendakariordea Kontseilu Errektorean

Nafarroa Garaian bizi diren identitateak aztertzeke *Naziometroak* egin dituen inkesta desberdinak oso baliagarriak zaizkigu. Kasu honetan bereziki azken neurketako datuak erabiliko ditugu (2023ko maiatza), Nafarroako azpilaginik handiena azken neurketa honetan izan baitu (582 zehazki).

Identitate nazionalik bat ote den eta horiek nola harremantzen diren aztertzeke, ondoko ariketa egin dugu. Inkestan “Nongoa sentitzen zara?” galdetzen da eta Nafarroa Garaian aukerak nafarra, euskal herritarra, espainiarra eta “beste bat” dira. Horietako bakoitzari bai edo ez erantzun behar zaio (eta ez dakit edo ez erantzuteko aukera ere badago). Horien arteko nahasketa posibleak aztertuta 8 aukera agertzen zaizkigu. Nagusia nafarra eta espainiarra da (% 46). Ondoren nafarra eta euskal herritarra (% 16) eta nafarra, euskal herritarra eta espainiarra (% 12) agertzen dira. Hiru sentimendu horien artean bakarra sentitzen denean, nafarra nagusitzen da (% 9), gero espainiarra (% 6) eta euskal herritarra azkenik (% 4). Hiruretatik bat ere sentitzen ez dutenak % 6 dira. Beraz, lehen ondorio bat badugu: sentimendu edo identitate konplexuen aurrean gaude.




Sentimendu hauek zer ezaugarri dituzten, zertan parekatzen diren eta zertan desberdintzen, hobeto aztertu ahal izateko, lau sentimendu nagusiak hartu eta gainontzekoak "Beste konbinazioak" taldean sartu ditugu.

Sentimendu bakoitzaren posizio politikoa. Subiranismoa.


Espainiako Estatuaren lurralde-antolaketa formula ezberdinen aurrean, azken Naziometroan, nafarren % 27ek eskumen edo konpetentzia gehiago duten erkidegoez osatutako estatu bat nahiago zuen. Beste % 25ek erkidegoei erabakitzeko-eskubidea aitortzen dien estatu nahiago zuen, eta % 21ek gaur egungo eredu autonomikoa. % 15ek egungoa baino estatu zentralizatuagoa nahiago zuen, eta azkenik % 12k ez zekien zer erantzun.

Proporzio hauek sentimenduen arabera aztertzen baditugu oso desberdinak dira, ordea. Horrela nafar eta euskal herritar sentitzen direnen artean % 63k erabakitzeko eskubidea aitortua izatea nahiko luke. Beste sentimenduak dituztenetan proporzioak banatuagoak daude. Soilik nafar sentitzen direnen artean posizio nagusiak (% 43) eskumen gehiago nahiko lituzke. Nafar, euskal herritar eta espainiar sentitzen direnen artean gaur egungo egoeratik erabakitzeko eskubiderantza hurbiltzen diren hiru aukeren artean mugitzen dira (% 28, % 31 eta % 23 hurrenkera horretan) eta nafarra eta espainiarra sentitzen direnen artean estatu zentralizaturantza pendulaten dute gehiago, nahiz eta eskumen gehiago eta erabakitzeko eskubidea nahiko luketenen artean gehiago diren: eskumen gehiago % 26, egungo egoera % 28 eta estatu zentralizatuagoa % 22.




Beraz, sentimendu multzo horietako bakoitzak nazio ikuspegi desberdin bat dutela antzeman daiteke, nahiz eta batak ez duen bestea modu zuzen eta argi batean ekartzen, ez bada nafarra eta euskal herritar sentimendua dutenen artean.

Nafarroak erabakitzeko eskubidea izan behar duen edo ez zuzenean galdetuta, alde nabarmenak dauden arren, kasu honetan sentimendu multzo bakoitzaren barruan nagusitzen den posizioa baiezkoa da. Baiezkoari erreparatuta, estatu egituraketan bezala, posizio subiranistena sentimendu nafar eta euskal herritarra dutenek hartzen dute, eta jarraian soilik nafar sentitzen direnak. Proportzio altu batean daude baita ere nafarra, euskal herritarra eta espainiarra sentitzen direnetan. Nafarra eta espainiarra sentitzen direnen artean posizio nagusia erabakitzeko eskubidearen aldekoa da, baina guztira ez dira % 50era iristen (% 48 dira zehazki).




Nafarroako Parlamentuan adostasun politikoa egongo balitz lurralde honen etorkizun politikoa erreferendum bidez erabakitzeko, Espainiako Gobernuak erreferendum hori onartu edo debekatu egin beharko lukeen galdetuta, nafarren erdia onartzearen alde, 1/4 pasatxo debekatzearen alde (% 26) eta ia 1/4 (% 24) ez daki edo ez du erantzun.

Sentimenduka aztertuta, haien arteko aldeak areagotzen hasten dira. Lehen hiru sentimenduetan onartzearen aldeko jarrerek irabazten dute oso modu argian (nafarra eta euskal herritarra % 85, nafarra, euskal herritarra eta espainiarra % 60 eta soilik nafarra % 66). Aldiz nafarra eta espainiarra sentitzen direnen artean debekatzearen aldeko jarrera nagusitzen da (% 41) onartzearen gaineratik (% 33).




Azkenik, atal honekin amaitzeko, Euskal Estatuaz galdetu beharrean, Nafar Estatuaren alde edo kontra dauden galdetzen zaienean soilik nafar sentitzen direnen artean hazten da aldeketasuna nabarmen (% 28tik % 53ra). Nafar eta espainiar sentitzen direnen artean ere hazi egiten da, baina gutxiago eta posizio nagusia kontrakoa izaten jarraitzen du. Nafar, euskal herritar eta espainiar sentitzen direnen artean emaitza ia berdin-berdina da eta nafar eta euskal herritar sentitzen direnen artean aldeketasuna nabarmen jaitsi egiten da (% 68tik % 47ra).



Inkestan ardatz ideologiko desberdinetan norbera non kokatzen den galdetzen da. Horien artean ardatz euskal abertzalean eta espainiar abertzalean non kokatzen diren galdetzen zaie.

Batezbestekoei erreparatzen badiegu, aurretik aipatu bezala, bi muturretan posizioak argi marrazten dira. Nafar eta euskal herritar sentitzen direnen artean euskal abertzale sentimendu indartsua dago eta espainiar abertzale sentimendu oso txikia. Nafar eta espainiar sentitzen direnetan, euskal abertzale sentimendu txikia eta espainiar abertzale sentimendu sutsurik ez, baina indartsuena dutenak eurak dira.

Tartean aurkitzen ditugu beste biak, bi sentimendu abertzaleak orekatuta dutenak baina modu desberdinetan. Nafar, euskal herritar eta espainiar sentitzen direnen artean, ez bata ez bestea ez dute bereziki sentitzen, baina 5etik hurbil daude (euskal abertzalea 4,7 eta espainiar abertzalea 4). Soilik nafar sentitzen direnen artean, esan bezala, bi sentimenduak orekatuak dituzte baina kasu honetan 0ra hurbilduta (euskal abertzalea 2,6 eta espainiar abertzalea 1,6).



Beraz, lau multzo hauen artean nahiko argi marrazten dira bi posizio. Batetik nafar eta euskal herritar sentitzen direnak jarrera subiranistetan eta euskal abertzaletan kokatzen dira, Euskal Herriko markoan. Kontrako posizioan nafar eta espainiar sentitzen direnak posizio unionistetan kokatzen dira eta espainiar abertzaletik hurbil. Eskumen gehiago izateko nahi txiki batekin, baita Nafarroarentzat erabakitze eskubidea onartzeko aldekotasuna izan dezakete, baina beti ere Espainiako Estatuaren barruan jarraitzeko logikan.

Tartean kokatzen dira soilik nafar eta nafar, euskal herritar eta espainiar sentitzen direnak. Lehenengoak posizio subiranistagoetan bigarrenak baino. Hauek ez dute jarrera independentista bat, baina bai erabakitze eskubidearen aldekoa, adostutako baldintzetan Euskal Estatuaren aldeko hautua egiteko joera eta gutxienez Nafarroak eskumen gehiago izateko gogoz.

Abertzale sentimenduen ardatzez gain, beste lau ardatz ideologiko desberdinetan norbera non kokatzen den galdetzen da ere Naziometroan. Ezker-eskuin ardatzean, feministan, ekologistan eta euskararen normalizazioan.

Lau ardatzetan, batzuetan gehiago bestetan gutxiago, baina guztietan nabarmen geratzen da polarizazio moduko bat. Oro har, posizio subiranistetatik hurbilago daudenak ezkerrekoagoak dira, feministagoak, ekologistagoak eta bereziki euskaltzaleagoak.



05

**Gure gogoeta.
Inork eskatu gabeko
iradokizun gisa**

Nafarra izatearen harrotasuna agerian geratu da azterlan honetan. Hori dela eta, testigantza askok diote, tentsioak gorabehera, Nafarroako identitate sentimendua dagoela funtsean. Sentimendu hori ez da erabat definituta geratzen, eta askotan Nafarroako biztanle guztientzat lotura eta kohesio maila handirik sortzen ez duten elementu sinbolikoetan oinarritzen da.

Gure taldeen ekarpenetako bat izan da, hain zuzen ere, nafartasun sentimendu komuna beharrezkoa ote den zalantzan jartzea, eta adierazi nahi zuten, batez ere, sentimendu komun hori ez izateak ez duela zertan elkarbizitza oztopatu, nahiz eta posible den baterako proiektuak egitea eragozte.

Alde positibotik ikusita, zer egin dezakegu elkarren arteko konfiantza handitzeko, horrela Nafarroak aurre egin behar dituen identitate eta politika erronka handiak gainditu ahal izateko? Ikuspuntu gehienbat pragmatikotik begirata, zer egin dezakegu gure artean *ondo moldatzeko*, proiektu handi bateraturik bilatu gabe? Edo bestela esanda, eta Kymlicka berriro aipatuz: elkarren aitortpen sakonik bilatu gabe, gizartearen gehiengoak onar ditzakeen elkarbizitza moduak aurki daitezke?

Horretaz guztiaz zerbait gehiago esateko, eta gai horiei buruz honezkero *ad nauseam* hitz egin dugula uste izan arren, oraindik ere bada zer esanik euskarari, nortasun nazionalari eta bizikidetzari buruz.

5.1. Euskarari buruz

Erriberako elkarrizketatu bat, intelektual liberala, oso kezkatuta dago gai horretaz, baina azkenean aitortu du:

Ez diot konponbiderik ikusten, oraindik biszeralitate handia baitago, eta horrek ez du oraindik hausteko itxurarik. (E8)

Hain gotortutako jarrera horiek —“biszeralitate” hori— ez dira, jakina, kasualitatearen ondorio, edo Nafarroako gizartearen joera natural bat. Jarrera politiko horiek karga ideologiko handia dute atzetik, ulermena ezinezko bihurtzen duena. Hori da arrazoia gure lanean parte hartu duten kideek adostasun neurriren bat ikusteko ezgaitasuna erakusteko: benetan ezinezkoa da. Ezin da, esan nahi dugu, egungo jarreretan jarraitzen bada. Baina, badago jarrera horiek aldatzeko modurik?

Gure ustez, lehian ari diren bi alde nagusien, euskal eta espainiar nazionalismoen, gogoetaren bidez baino ezin da etorri. Baina horrelako prozesu bat abian jartzeko eztabaidarako beste elementuren bat aurkeztu behar denez, lanean jasotako iritziren bat komentatu nahi genuke, eta guk ere gai horri buruz hausnartu.

a) Euskararen garapenak euskal nazionalismoaren garapena ere dakarrelako ideia faltsuari buruz.

Gure ustez, euskararen inguruko liskarrak markatzen dituen ideia giltzarrietako bat da, euskararekin batera, euskal nazionalismoaren hedapena doala. Askotan jaso dugu ideia hori gure lanean, eta euskal zein espainiar nazionalismoek partekatzen dute. Elkarrizketatu abertzale batek hori berresten du:

Batzuek hala pentsatzen dute eta kanpotik ikusten baduzu ulergarria da, zeren datuek hori esaten dute. (E1)

Eta Aholku Batzordeko zenbait parte-hartzailek, argudio desberdinekin, euskararen hedapena eta Nafarroako eskuinak babesa galtzeko erakusten duen beldurra lotzen dituzte:

Alemanez ikasten dutenek ez dute Nafarroa alemanizatuko. (AB)

Pixkanaka gauzak aldatzen doaz. Gazte asko D eredutik pasatzen dira. Pixkanaka UPNk Nafarroa galtzen du. (AB)

Egoera horren jakitun, UPNko (E11) kargu batek uste du euskararen auzia despolitizatuz, ezezkoaren jarreratik ateraz eta, nolabait, euskararen nafartasuna ospatuz, bere alderdian ikusten duen etengabeko narriadura saihestu litekeela. Gai honi buruzko hausnarketa sakona eskatu du, iruditzen baitzaio eskuina dela euskararen auzia gehien politizatzen ari dena. Euskararekiko jarrera irekiago batek, ordea, euskara alderdiaren logoan bertan sartuta, adibidez, herritarren konfiantza irabazteko balioko lioke, alderdi benetan nafar gisa.

Eta euskal nazionalismoaren aldean kritikak ere ez dira falta. Atsekabetuta dagoen intelektual batek hala dio:

Katastrofe bat da Iruñetik behera egiten ari garena euskararekin. Euskara euskal nazionalismoaren erdigunean egon da pasa den mendetik, eta ez dugu jakin egokitzen. Euskara erlijio moduko bat da. (E2)

Halaber, uste du euskal nazionalismoak eraikitako “Herri bat, hizkuntza bat” leloak ez duela jada zentzurik, eta are gutxiago Nafarroan, egungo errealitate soziolinguistikoarekin. Beste ordezkari abertzale bat (E1) ados dago Nafarroa osoan euskara ikasi eta erabiltzeko eskubidea onartu behar dela, baina ondo pentsatu behar dira egoera horretara iristeko egin behar diren tarteko urratsak, beste gai batzuetan egiten dugun bezala (politikoak, sindikalak, etab.). Alde horretatik, kritikoa da Euskaingintzako sektore jakin batekin, Nafarroan jarrera maximalista duelako.


Baina egia da euskarak euskal nazionalismoaren garapena dakarrela? Ez, noski, eta garrantzitsua iruditzen zaigu hori argitzea.

Soziologian, korrelazio estatistikoaz hitz egiten da bi aldagai (bi elementu) modu linealean erlazionatzen direnean. Baina horrek ez du halaberrez kausalitaterik adierazten. Hau da, aldagaiak euskara eta euskal nazionalismoa badira, hau esan dezakegu:

- Bai, erlazio lineala dago bi aldagaien artean: euskal hiztunen ehuneko handiagoa dago euskal nazionalismotik hurbil sentitzen diren pertsonen artean, gainerakoen artean baino.
- Ez dago kausaltasun harremanik haien artean. Ez da egia aldagai bat gehitzeak bestearen igoera ere ekarriko duenik, erlatiboki bederen: ez da egia euskal nazionalistak abertzale direla euskara dakitelako.

Horrek guztiak azalpen gehiago behar ditu, bereziki Nafarroan. Has gaitzen bistakoenetik, eta nahastearen oinarria dena, gainera. 1.2 puntuan ikusi dugunez, euskara gehiago egiten da iparraldean, eta gero Iruñerrian. Era berean, ia beti, boto abertzalea handiagoa da bi eremu horietan euskaraz hitz egiten ez den eremuetan baino. Hori horrela da. Are gehiago, ondoko taulan ikusten dugun bezala, V. Naziometro-tik aterata, eta Asier Etxenikek emana, identitate sentimendua eta euskararen ezagutza erlazionatuta daude (sinplifikatzeko, esan dezagun kolore urdina: ez daki euskaraz; kolore gorria eta arrosa: ulertzen du, edo badaki euskaraz). Nafar eta euskal herritar sentitzen direnen 3/4ek euskararen ezagutzaren bat daukate; soilik nafar, edo nafar, euska herritar eta espainiar sentitzen direnen erdiak, gutxi-asko, euskararen ezagutzaren bat daukate; eta nafar eta espainiar sentitzen direnen % 84k euskaraz ez dakiela dio.

IDENTITATE SENTIMENDUA ETA EUSKARAREN EZAGUTZA NAFARROAN



Iturria: V. Naziometroa, 2023-Maiatza (Asier Etxenike)

Beraz, euskal nazionalismoan euskararen jakite maila handiagoa dago espainiar nazionalismoan edo, oro har, ezkerrean baino, eta abar. Eta bestetik, euskara dakien jendearen artean, jende gehiago dago euskal nazionalismotik hurbil.

Ikus dezagun orain ea kausalitaterik dagoen harreman horretan, hau da, ea euskal nazionalismoa zabaltzeko arrazoietako bat euskara jakitea den ala ez. Baieztapen nabarmen batetik abiatu beharko ginateke: euskal nazionalismotik hurbil sentitzen diren pertsona guztiak ez dakite euskaraz eta euskara dakiten pertsona guztiak ez daude euskal nazionalismotik hurbil.

Hain zuzen ere, lehen premisari dagokionez, euskal nazionalismoaren sektore batzuen kexetako bat da euskara ikastea eta erabiltzea ia derrigorrezkoa izan beharko litzatekeela euskal nazionalismoan. Hala ere, nabaria da euskal eta nafar sentimendua izateak euskara ikasten laguntzen duela. Hau da, euskarak ez du nahitaez euskal nazionalismora eramaten, baina kausalitatea omen dago kontrako norabidean: abertzaletasunetik hurbil daudenez erakarria da euskara ikastea edo erabiltzea.

Edozein arrazoi dela eta, Nafarroan euskal nazionalismoak erakarrita sentitzen denak euskara ikastera edo erabiltzera joko du, euskal nazionalismoak ulertzen baitu euskal nazioa euskararen inguruan eraikitzen dela. Eta euskal nazionalismoak garrantzi hori ematen dionez euskarari, euskaldunak ere euskal nazionalismotik hurbil senti daitezke, beste ideologiek baino hobeto gordetzen duela uste dutelako. Beraz, esan dezakegu Nafarroan euskal nazionalismotik hurbil egoteak harreman zuzena duela euskara ikastearekin eta erabiltzearekin, baina betiere euskara ikastea borondatezkoa bada! Azalpena argia da: euskara ikasteko derrigortasunik ez badago (eskolan, adibidez), euskal nazionalismoarekin bat datorren jendeak euskara ikasteko joera handiagoa izango du, arrazoi ideologikoengatik, beste batzuek baino.

Baina eman diezaiogun buelta argudioari, hori baita argitu nahi duguna: euskara gehiagok euskal nazionalismo gehiago dakar? Ez, eta hori argi ikusten da euskarak borondatezko ikasketa izateari utzi, eta derrigorrezko gai bihurtzen denean, hezkuntzan esate baterako. Adibide nabarmen bat Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza sisteman daukagu, zeinean, aukeratzen den eredutik at, euskara derrigorrezko irakasgaia baita, lurralde osoan hizkuntza ofiziala da eta. Derrigortasun hori izan zenetik igaro diren berrogei urteetan handitu al da euskal nazionalismoa?

Har dezagun Eusko Legebiltzarraren osaera adibide gisa. Banatu beharreko 75 eserlekuetatik, duela berrogei urte, 1984an, euskal nazionalismoak guztiaren 2/3 hartzen zituen: 49 aulki, % 65,3 (EAJ+HB+EE). Beste herena indar ez-abertzaleentzat zen: 26 aulki, % 34,6 (PSE+AP). Hainbat gorabehera gertatu da bitartean, noski, baina 2020an, Eusko Legebiltzarra 52 aulki abertzalerekin osatu zen (EAJ+EH Bildu), %69,3rekin; eta 23 ez-abertzalerekin (PSE+Elkarrekin Podemos+PP eta Ciudadanos+Vox) %30,6rekin. Urte hauetan euskara derrigorrezkoa izan da euskal eskoletan (eredu desberdinekin, jakina denez), baina abertzale / ez-abertzale proportzioa oso antzekoa da: boto abertzaleak bi heren hartzen ditu, eta boto ez-abertzaleak heren bat.

Zein da euskararen eta euskal nazionalismoaren arteko harremana? Hurrengo hiru baieztapenetan mila ñabardura galduko ditugu, beharrezkoak direnak gaia ondo aztertzeko, baina modu nahiko grafikoan hauxe esan dezakegu:

1. Euskararen irakaskuntza borondatezkoa, eta ez derrigorrezkoa, den lurraldeetan, euskal nazionalismotik hurbil dagoen jendeak beste batzuek baino gehiago joko du euskara ikastera.
2. Euskararen irakaskuntza derrigorrezkoa, eta ez borondatezkoa, den lurraldeetan, bai euskal nazionalismotik hurbil dagoen jendeak eta baita gainerakoek ere euskara ikasiko dute (motibazio desberdina egon liteke, hori bai).
3. Ez batean ez bestean, euskara ikasteak ez du ekarriko, berez, abertzaletasunaren aldeko botoa handitzea.

Ekarpen interesgarri gisa, Haritz Garmendiak ukatu egiten du, eta frogatuta utzi, hizkuntzen eta aukera politikoen arteko harremana. Horrez gain, beste aldagai batzuetan oinarrituta, transmisioaren eta erabileraren garrantzia azpimarratzen du bere testuan (5.1. ekarpena).

b) Nafarroan hartu beharreko elebitasun motaren inguruko irizpide eta ereduen nahasketa

Nafarroan bi hizkuntza ofizial daude, baina haien ofizialtasuna ez da lurralde osora zabaltzen euskararen kasuan. Horrek, hasteko, talka egiten du gure pentsamoldean, nazio-estatuaren arrazoiketara ohituta, zeinean hizkuntza ofizialak lurralde osoan baitira. Ez du zertan hala izan, 4.3 puntuaz azaldu dugun bezala. Kasu batzuetan, hizkuntza ofizialak lurraldean ere banatzen dira, hala nola flamenkoa eta frantsesa Belgikan. Baina Nafarroa nazio-estatu baten barruko autonomia da, Espainiako. Derrigorrezkoa da gaztelania Nafarroako lurralde osoan hitz egitea, eta, beraz, ezinezkoa da lurraldea banatzea, euskaltzale batzuek bi hizkuntzen egoera konparatzean deitoratzen duten bezala. Gaztelaniaren egoera horrek, gainera, arrazonamendu pertsonala, borondatezkoa, hartzeko aukera kentzen du, norberak nahi duen hizkuntza aukeratzeko, alegia .

Aurreko bidea itxirik, beste aukera bat zen Euskal Autonomia Erkidegoan jarraitutako lurralde arrazoibidea hartzea: bi hizkuntza ofizial, lurralde osoan berdintasunean. Bi hizkuntzen arteko berdintasun teorikoari buruzko kexa euskaltzalea alde batera utzita, jarrera horrek berdintasuna du alde: biak jakin beharko liriteke (gaur egun ez) eta erabilera borondatezkoa da, pertsonaren arabera. Horregatik, hezkuntzak ziurtatu behar du ikasle guztiek bi hizkuntzak dakizkitela beren hezkuntza prozesuaren amaieran. Helburu berdinzale horri jarraiki, eskualde edo zona jakin batean euskara luzaroan hitz egin ez izana ez da arrazoi bertako biztanleak ikasteaz salbuesteko edo hura galarazteko, pertsona horiei eskubide bat kentzea izango litzateke eta.

Gure ustez, Nafarroako kasuaren definizio argirik ez izateak (ik. Aritz Romeoren ekarpena, 5.2) nahasmena eragiten du, eta liskarrak sortzen ditu, biztanleriaren zati batentzat diskriminaziozko tratutzat hartzen da eta. Nahastearen terminoak sinpleak dira:

- gaztelania bakarrik balitz ofiziala Nafarroan (Espainian hala delako), ez legoke arazo teoriko handirik (euskaltzaleen eta euskal nazionalismoaren kexatik at). Hala gertatzen da Espainiako autonomia erkidego batzuetan. Baina
- bi hizkuntzak ofizialak badira Nafarroan, bi hizkuntzetako baten ofizialtasuna eremu jakin batera mugatzea hausten ari da Nafarroako herritar guztiek espero duten berdintasun irizpidea; alde batetik, euskara ikasi eta erabili nahi duten eremu ez-euskalduneko herritarrak negatiboki diskriminatzen dira; eta, bestetik, positiboki diskriminatzen dira eremu ez-euskalduneko herritarrak, hizkuntza ofizialetako bakarra dakitenez, eremu euskalduneko herritarrak gaztelaniaz egitera behartuta geratzen baitira, eta horrek hautsi egiten ditu hizkuntza ofizialak erabiltzeko berdintasun eta borondate irizpideak. Gainera, hezkuntzan, eremu ez-euskalduneko ikasleak hizkuntza ofizialetako bat ikastetik salbuetsita daude, eta gainerakoak biak ikastera behartuta daude.

Bistan da gaiaren konplexutasuna, zonifikazioa zehazteko arrazoi historiko eta soziologikoak, etab. baina aukerak gutxi dira, ikusten ari garen bezala, eta, gure ustez, horretan ahalegindu beharko lirateke gai horretan parte hartzen duten gizarte eta politika eragileak, eta, bereziki, Nafarroako Parlamentua: hauteskunde premiarik gabe, ikusmira etorkizunean jarrita, eta herritarren iritziaren eta jokoan dauden ideologiaren ezagutza zehatza izanda.

Gure ustez, prozesu horretan gutxienez hiru eztabaida teorikori egin beharko litzaieke aurre:

- Lurralde eta norbanako eskubideak (azken horiek borondatearekin lotuta)
- Berdintasun eta aniztasun irizpideak (aniztasunak berdintasunaren kontra jo lezakeela ulertuta)
- Derrigorrezkotasun eta borondatezkotasun irizpideak; herritarren eskubideak eta betebeharrak hizkuntzei dagokienez

Lehen bi kontuei buruz zerbait hitz egin dugu honezkero. Azter dezagun orain hirugarrena, alegia, euskararekiko borondatea/derrigorrezkotasunaren arteko dilema.

Demokrazia liberalek, Nafarroak, esaterako, etengabeko tentsioa dakarte herritarren eskubideen eta betebeharren artean. Hain zuzen, liberalak direlako, norbanakoaren borondatea —eta, beraz, hautapen askatasuna— funtsezko ondasuntzat hartzen da; baina, aldi berean, demokraziak direlako eta herritar guztien berdintasuna oinarri dutelako, guztiok bete behar ditugun arau unibertsalen sistema konplexu baten bidez funtzionatzera behartuta daude.

Teorian nahiko argia dena gai konplexu bihurtzen da Nafarroako hizkuntza politikak kudeatzeko orduan. Nola ulertu behar da euskararen ezagutza, eskubide ala betebehar gisa? Egoera jasanezina da, gure ustez, Nafarroako biztanleriaren zati batek (euskaldunek) euskara “bere eskubide” gisa ulertzea, Nafarroako gizarte osoak errespetatu beharrekoa; eta beste zatiak euskara gainerako nafarrek ezarritako “betebehar” gisa hartzea. Nafarroako gizarte osoa ados badago euskara Nafarroako hizkuntza dela esatean, lehenik eta behin problematika izendatzeko modu hori aldatu behar da.

Alde batetik, euskaldunek onartu behar dute eskubideak ez direla abstraktuak, *testuinguruan* ulertu behar direla: gizarte testuinguru jakin batean ulertzen dira, eta ezin dira edozein egoerataraz estrapolatu. Gaur egun eta Nafarroan uste dugu etxebizitza bat izatea, adibidez, oinarritzko eskubidea dela, baina eskubide hori duela ehun urte paper bustia zen, eta gaur egun hala da beste herrialde askotan ere.

Eta beste aldetik, egia bada Nafarroako herritarrek euskara beren bi hizkuntzetako bat dela uste dutela, ez du inolako justifikaziorik esateak euskararen ezagutzara hurbiltzeak, edozein motatakoa izanda ere, beren eskubideak zapaltzea dakarrenik. Sentimendu hori neutralizatzeko, zenbait baldintza behar dira. Tuterako Gazte ez politizatuen Taldean (GEP), adibidez, kide batek baino gehiagok adierazi zuen euskara bakarrik ikasiko zuela lanpostu bat lortzeko ezinbestekoa bazen. Jarrera hori bera, pragmatikoa, baliagarria izan daiteke seme-alabak zein hizkuntza eredutan matrikulatu erabakitzeke. Baldintza hori hizkuntzaren ospearekin lotuta dago. Euskarak ospe soziala hartzeak, lan abantailekin batera, bakarrik leunduko luke biztanleriaren sektore batzuek euskararekiko duten mesfidantza.

Nolanahi ere, borondatearen faktorea funtsezkoa da. Eusko Jaurlaritzak, autonomia lortu ondoren, eta Irlandako Errepublikak, estatua osatu ondoren, aplikatutako hizkuntza politikak konparatzen dituen ikerketa batean, ondorio nagusi hau atera zen: Eusko Jaurlaritzaren politika, *estentsiboa*, biztanleria osoari aplikatua, baina funtsean borondatean oinarritua —A eredia izan ezik—, arrakastatsua izan zen Irlandako politika *intentsiboarekin* alderatuta, zeina nahitaezkoa baitzen, baina ez baitzituen erdietsi lortu nahi ziren helburuak (Mezo, 1996). Berehala ohartuko gara, noski, ez garela egoera berean aurkitzen, arrazoi askorengatik. Lehena da ingelesaren indar globala. Eta bigarrena, guri dagokigunez garrantzitsuena dena, Euskal Autonomia Erkidegoa sortu zenetik, euskal nazionalismoa gehiengoa izan dela eta euskarak ospe sozial handia izan duela, duela hamarkada asko hitz egiten ez zen lekuetan ere.

Eta Nafarroako Administrazioaren eginkizuna ere hor sartzen da jokoan. Gauza jakina da administrazio batek ere ezin duela hizkuntza batekiko neutralki funtzionatu. Izan ere, hizkuntza politika jakin batzuk sortzen eta aplikatzen ditu: bere betebeharra da. Are gehiago, ezin da taldeen kultura eskubideak errespetatzera mugatu, erlijioen kasuan bezala. Esan dugun moduan, demokrazia liberaletako administrazioak tentu handiz aritzen dira norbanakoaren askatasunaren aurkako ezarpen edo eraso gisa ikusten diren hizkuntza neurriak ezartzeko orduan. Baina deigarria da neurri linguistikoak ezartzeko Nafarroako Administrazioak duen zuhurtzia, gizartean oso gatazkatsuak diren beste gai batzuetan aplikatzen ez duena, adibidez, azpiegiturak eraikitzeke momentuan (parke eolikoak, Abiadura Handiko Trena...) eta biztanlerian protesta handiak sortzen dituztenetan. Zergatik? Informatzaile batek baino gehiagok esan du gutxi gorabehera esplizituki: eskuineko indar politikoekiko eta berauek darabilten euskararen aurkako diskurtso beligerantearekiko beldurra da, eta horrek, zalantzarik gabe, higadura eragiten du gobernauk osatzen dituzten indar politikoetan .

Egoera benetan katramilatua da, baina hor-hemenka proposamen berri interesgarriak (ausartak askotan) sortzen dira etengabe. Horretaz guztiaz diharduten bi ekarpen nabarmenduko ditugu jarraian, beherago ikus daitezkeenak. Alde batetik, Cristina Osése (5.3 ekarpena), gogoeta egiten du, hain zuzen ere, landutako gaien inguruan, euskara eta borondatea, euskalduntze politika gisa, eta Erriberako euskararen problematika hobeto ulertzen laguntzen digu, izan ere, bera Erriberakoa da eta. Horrez gain, Administrazioak gai horretan duen zereginari buruzko iritzia ematen du. Bestalde, Iñaki Sagardoik eta Oskar Zapatak (5.4 ekarpena) Nafarroako euskalgintzako sektore baten bilakaera (*Topagunea*) azaltzen digute, eta horrez gain, gaur egun euskararekin zerikusia duten diskurtso eta jarrerak analizatzeko egindako azterketaren emaitza ere. Horren arabera, norabide diskurtsibo berriak aurkezteko ahalegina egiten dute, norgehiagokatik urrun. Aitzitik, “aliantza berriak eraikitzeke eta kontsentsu sozio politikoa lantzeke orube bat bilatzea” dute helburu.

Hiru eztabaida teoriko horiek konpondu beharreko hiru gairi buruzko eztabaida praktikoa ekarri beharko lukete: euskararen ofizialtasuna, euskara hezkuntzan eta euskararen balorazioa administrazioan.

Euskararen ofizialtasunari buruz

4.3 puntuan azaldu dira eztabaidaren gaiak. Labur esanda, lurralde irizpideez (ofizialtasuna Nafarroa osoan) edo irizpide historikoez (euskara hitz egiten den eremuan) ari gara. Eztabaida teoriko interesgarria da, baina parte hartzen duten aldeak gehiago pentsatzen ari dira irizpidearen aplikazioan, haren garapen teorikoan baino. Aurreko puntuan defendatu dugunaren arabera, uste dugu azken mendeetan latitude hauetan ohituta gauden lurralde logikak Nafarroa osoan euskararen eta gaztelaniaren ofizialtasuna planteatzera behartzen duela, salbuespenik gabe.

Errealitate soziolinguistikoa ezin da inola ere saihestu, baina ezin da arrazoi izan herritarren zati baten eskubideak mugatzeko. Hizkuntza ofizial kontzeptua ere ezaba liteke, baina bi hizkuntzetarako, eta dagozkien hizkuntza komunitate desberdinei utzi gaur egun Nafarroan hitz egiten diren hizkuntzez arduratzea. Baina beste irizpide batzuek egongo ginateke hitz egiten, eta esan bezala, horietaz ere eztabaidatu liteke, alde eta kontra dituzten puntuak aztertuz. Ez zaigu defendagarri iruditzen, ordea, hobesten dugun berdintasun printzipioari jarraituz, hizkuntza ofizial bat lurralde osoan ez izatea.

Araneraren adibide hurbila dugu, Aran bailarako (Katalunia) okzitaniar hizkuntza. Haran horretan bakarrik hitz egiten da, eta hala ere, 2010etik hizkuntza ofiziala da Katalunia osoan, eta Aran bailaran lehenetsunez erabiltzen da. Azken ideia hori azpimarratu nahi dugu, alde guztien arteko adostasunetik omen datorrelako araneraren ezaugarritzea eta erabilera. Behin eta berriz entzun ditugu halako gauzak gure azterketan. Hala adierazten du, adibidez, Aholku Batzordeko kide batek. Haren ustez, hain zuzen, gizarte eta politika adostasuna lortzea da gakoa, printzipio hauetan oinarrituta: bi hizkuntza propio, biziak eta osasuntsuak, izateak Nafarroa aberasten du, eta errespetuan oinarritutako bizikidetzarako egoerarik onena da. (AB)

Ildo beretik, Aholku Batzorde honek ideia hori azpimarratzen du:

Nafarroan ez da inoiz gehiengo sozialik izan euskararen alde, baina euskara Nafarroa osoko hizkuntza dela onartzea lortu beharko genuke. Ona da bizikidetzarako. (AB)

Aritz Romeok ere, eztabaida bere horretan jartzeaz eta zonifikazioa gainditzeko proposatzeaz gain, “Nafarroan euskara sustatzeko politikekiko atxikimendu sozial” nahikoa lortzeko beharraz ohartarazten du. Hori prozesu motel eta mailakatua izango litzateke, bere ustez, eta foru eta toki erakundeetan ezartzen du horretarako erantzukizunaren zati handi bat. (ik. 5.2 ekarpena)

Euskara hezkuntzan

Gai honi buruz 4.3 puntuan azaldukoaren ondoren, esan dezagun esparru horretan aldaketak izan direla azken urteetan, eta, beraz, gaur egun, A, B edo D ereduan taldeak osatzeko aukera dago Nafarroako lurralde osoan, edozein lekutan. Ez dirudi aukera horiek behar bezala aztertu direnik, neurri batean, Nafarroako Gizarte Foroan (NGF) azaltzen zen bezala, ikastetxe batzuetako zuzendaritzen edo tokiko gobernuen aurkakotasunagatik. Horregatik uste dugu Administrazioak ahalegin handiagoa egin beharko lukeela ereduak eskaintzeko orduan.

Deigarria da, alde horretatik, azken urteotan gero eta jarraitzaile gehiago lortzen ari den neurri posibleetako bat: A eredu (euskara irakasgai gisa) oinarrizko eredu gisa sustatzea, G eredu (euskararik gabe, osorik) kenduz. Hala adierazten du, adibidez, Aholku Batzordeak (AB), baina, horren aurrean, Administrazioak ez du jarrera aktiboagorik hartzen, eredu horiek gurasoek eskatu arte.

Alderdi politikoen eztabaida lasaia hezkuntza eremura ere zabaldu beharko litzateke, noski, eta jarraitu nahi diren lurralde edo pertsona irizpideak zehaztu, praktikan haiekin kontsekuentek izanda, hau da, errepikatzen ari garen bezala, lurralde irizpide bati jarraituz gero, euskararen irakaskuntza areagotu egin beharko litzateke, berdintasun printzipioa betetzeko.

Euskararen balorazioa administrazioan

Esan dugu Nafarroako Administrazioa ezin dela modu neutralean aritu erakundeetan aplikatu beharreko hizkuntza politiken aurrean (hezkuntza edo osasuna, adibidez). Baina barne funtzionamenduan ere ezin du egin. Erabakiak hartu behar ditu, eta maiz, erabakitzen duena erabakitzen duela, eztabaida soziala pizten da, alde batetik edo bestetik. Saihestezina da, gure ustez, baina horrek ez du esan nahi hartutako neurrien egokitasunari buruzko elkarrietzeta sosegatu eta arrazionala sustatu behar ez denik.

Hala ere, gaur egun, euskara lanpostu publikoetan baloratzea da, hain zuzen ere, eztabaida sozial handiena sortzen duen gaia. Lehen ere esan dugu: ez gara identitate beldurrez soilik ari, baizik eta, batez ere, lan gaiekin lotutako gai “materialez”, eta, beraz, lan edo sindikatu mailetatik harago, konponbide zaileko gaia da, gizarte akordio zabalagorik izan gabe. Ustezko bereizkeria sektore guztiek arrazoitzen dute: batetik, euskaldunek, beren hizkuntza eskubideen babesean inplikazio handiagoa eskatzen dute; eta, bestetik, hizkuntzaren balorazioa diskriminazio gisa ikusten dutenek: haien ustez, euskara guztiz minoritarioa da, eta zentzugabekeria iruditzen zaie hura sustatzea, eremu ez-euskaldunean batez ere.

Lehen esandakoa azpimarratu nahi dugu: Nafarroako Administrazioak, gehiengo adostuen bidez, egitura politika jakin batzuk erabakitzen dituen bezala, nahiz eta biztanle guztien gustukoak ez izan, beren lanpostuetako hizkuntza eskakizunei buruzko politikak diseinatu beharko lituzke, helburuak zein diren argi izanda eta ondorioak aurreikusita. Eta hori guztia, noski, ahalik eta eztabaida arrazional zabalena sustatzen saiatuz.

5.2. Nazio identitateei buruz

Nazionalismoa aztertzeke gaur egungo ideia nagusietako bat da nazioak komunitate irudikatutzat hartzea, Benedict Andersonen formulazio klasikoan (1993). Horri erantzunez, eta 4.7 puntuan gogorarazten ziguten bezala, ez dute zerikusi handirik Berako eta Tuterako parte-hartzaileek, baina horrek ez du galarazten bi tokietan nafar sentitu ahal izatea: irudikatutako identitatea eraikitzen ari dira, beraz. Hau da, ez dute ez elkar ezagutzen ez, agian, gauza asko partekatzen, baina bat sentitzen dira, nafarrak sentitzen dira.

Aurrekoaz gain, aipa dezagun orain gaur egungo nazionalismoaren beste ideia garrantzitsuetako bat, bere oharkabetasuna eta hutsaltasuna, alegia, klasikoa ere den Michael Billigen formulazioan (2014). Estatu eratuei aplikatzen zaie, batez ere, eta herritarrek beren nazioarekiko (estatuarekiko) sentitzen duten atxikimendua azaltzen du, oharkabea eta oroitzapen hutsalaren bidez, hala nola estatuko bandera, estatua kirol selekzio edo talde batekin identifikatzea, etab. Estatuetatik harago, nazionalismo indartsuek ere, askotan gobernu funtzioak betetzen dituztenek, euskal nazionalismoaren kasuan bezala, ideia hutsalak gara ditzakete. Euskara euskal (eta nafar) identitatearen oinarria dela dioen iritzi hedatua euskal nazionalismoak zabaldu du gehienbat, arrakasta handiz, halako moldez non, gaur egun, bi kontzeptuak batera ulertzen baitira, baita espainiar nazionalismoaren aldetik ere.

Nafarroa irudikatu bat, elementu sinple, hutsal eta ez oso arrazionalen inguruan eraikitako identitate batekin. Emozioez, sentimenduez ari gara, azken batean, etengabe agertzen direnak nafarren arteko liskarretan, ikusten ari garen bezala, eta akordioak izugarri zailtzen dutenak, askotan elkar ulertzearen oinarria den arrazoa baliogabetu dezakete eta.

Jarduera politikoa baliabide jakin batzuk erabiltzeak zer ondorio izan ditzakeen gaineko kalkulu arrazionala da. Horri erantzukizun politikoz jokatzea esaten zaio. Eta hala onartzen dute denek defendatzen den jarrerari atxikimendua bilatu nahi zaionean. Baina baliabide jakin horien artean emozioa eta sentimenduak ere sar daitezke. Izan ere, emozioek protagonismo handia hartu dute gure gizartean. Hala gogoratzen zigun Jaume Lopezek, 2021ean antolatu genuen Gure Desadostasunei buruzko Jardunaldian. Gaur egungo gizarte demokratikoetan emozioak arrazoiari eta baita funtzionamendu instituzionalari ere gailentzen zaizkio maiz. (GDJ Lopez)

Askotan esaten da eskuin muturra dela gure emozioak hobekien aprobetxatzen dituen, bere diskurtsoaren zati handi bat mehatxutzat hartzen denarekiko mesfidantzan eta gorroto sentimenduetan oinarritzen baita: lanpostua, nazioaren batasuna, hizkuntza homogeneotasuna edo familia. Baina, egia esan, aukera politiko guztiek —nazionalistek barne— emozioa erabiltzen dute diskurtsoaren elementu garrantzitsu gisa. Hainbestera, ezen esan baitezakegu gaur egun politika emozioaren eta arrazoimenaren arteko ertz labaingarrian mugitzen dela. Horregatik, Nafarroako gizartean konfiantzaz hitz egitea emozioez, afektuez eta sentimenduez ere hitz egitea da.

Ane Larrinaga soziologoak (ik. 5.5. ekarpena) gogoeta egiten du, besteak beste, gizartea eta harreman politikoak ulertzeko izaten diren harreman dikotomiko handiegiez (arrazoia eta emozioa parez pare), eta baita, itxuraz arrazoizkoak diren erabakietan, motibazio emozionalak izaten direla ulertzeko beharraz ere. Eta azken horiek ulertu gabe, ezinezkoa da giza jarduera ulertzea, eta, ondorioz, aztertu nahi den edozein testuinguru sozial edo politiko.

Zer esanik ez, eztabaida arrazional hutsak ez du arrakasta handirik izango euskararen inguruko gatazka konpontzeko orduan, baldin eta harekin emozioak eta sentimenduak lantzen ez badira; hau da, herritarren beldurrak eta jarrerak. Eta horretarako, konfiantzaren gaia aurkitzen dugu berriro ere. Gutxieneko konfiantza giroa sortu behar da. Tentu handiz eginda, ordea, emozioak, saihestezinak, arriskutsuak izan daitezkeelako, Iruñeko Jardunaldian entzun ahal izan genuen bezala. Nahitaez, oreka bilatu behar da demokraziaren berezko arrazionaltasunaren eta gizartean nagusi diren emozio eta sentimenduen multzoaren artean.

Aipatu dugun arrazionalizazio ahalegin horren barruan, sinboloen auzian ere ezin dira alde batera utzi emozioak. Hala ere, hizkuntza gatazkarekin alderatuta, askoz ere eramangarriagoa dela ematen du, eta azkarrago egin liteke aurrera agian. Berriozarko Herritarren Mahaiko kide batek, euskal ideologia nazionalistakoak, bizikidetzaren alde “zertan egongo zinateke amore emateko prest” galdetuta, argi eta garbi esan zuen, zer esan nahi zuen jakitun, eta halaxe jaso genuen urte hartako Txostenean:

Euskararen gaia konpontzeko gai bagara, ikurrinaren gaia uzteko prest nago. Uko egingo nioke, bizikidetzagatik. (HM Berriozar)

Horrek ez du esan nahi sinboloen gaineko gatazka erraza denik, ez eta enpatia eta bestearen aitormen handia behar ez duenik ere. Baina bistan da identitate guztiek beren adierazpen kolektiborako eskubidea izan beharko luketela, eta horrek esan nahi du identitate sinbolo guztiak onartu behar direla, baldin eta giza eskubideren bat kaltetzen ez badute, gure Aditu Taldeak (AT) onartzen zuen bezala.

Nafarroako identitatea eta barne kohesioa

Hasteko, gogora dezagun, esan dugun bezala, identitatea kontzeptu zabala dela, eta iritzi batzuek (GA) ez dutela lehentasunezko tratamendurik eman beharrik ikusten, betiere desberdinen arteko bizikidetzaren errespetatzen bada. Arrazoi berberagatik, beste iritzi batzuen arabera, barne kohesio handiagoa lortzeko ahalegina egiteak Nafarroako bizikidetzaren hobetzen lagundu lezake. Bigarren talde horretan, Nafarroako kohesioan sakontzea helburu duten hainbat ideia bildu ditugu, alde desberdinetatik eginak.

Ikuspegi teorikotik, hausnarketa politikorako proposamenak aurkitu ditugu, hasiera batean, dagoen polarizazio politikoa lasaitzeko eta, ondoren, eztabaida ideologiko handiak bide abegikorragoetara bideratzen saiatzeko. Kritika politikoei batzuei eta besteei eragiten diete. Haren inguruko intelektual batek kritikatu egiten du Ezker Abertzaleak garatutako sektarismoa, bereziki euskararen inguruan, nahiz eta uste duen orain gogoeta sakona egiten ari dela, eta hortik ikuspegi berriak sortzen ari direla, batzuetan euskararen sektoreekin talka egiten badute ere. (E2)

Nafarroako eskuinak egindako politikari buruzko kritikak maizago egiten dira, eta gehienetan ezkerrekoak dira. Gaur egungo tentsio egoeraren erantzukizunaren zati handi bat egozten zaio eskuinari. Podemoseko kide honek hau dio:

... nik uste dut aldaketa egon dela talde nazionalistetan gai horien guztien aurrean. (...) Mundu guztia ari da zerbait egiten, horretatik bizi nahi duten ultra guztiak izan ezik. Navarra Suma, eta batez ere PP, ez dago gauzak konpontzeko prest (E5)

Hala ere, eskuinak gai horren aurrean erakusten duen erreakziorik eza ere kezagarria iruditzen zaio elkarrizketatutako UPNko kargu bati (E11).

Euskara, argi dago, eztabaida gai nagusietako bat da. Batzuek euskara borroka politikotik (E5) ateratzeko eskatzen dute, baina ez dirudi bideragarria denik euskarak euskal nazioaren balio sinboliko gorena mantentzen duen bitartean, eta hori ez da egun batetik bestera aldatzen. Nolanahi ere, uste dugu kohesioa hizkuntza (gaztelania edo euskara) baten inguruan bilatzeko ahaleginak lekuz kanpo daudela, orain dagoen konfrontazioa hizkuntzen inguruan ezarrita badago. Iruditzen zaigu euskal eta espainiar nazionalismoek barneratu beharko luketen aurretiko jarrera bat dela, gure elkarrizketatu batek zioen bezala. (E5) Gure ustez, lehia egoeretan, hizkuntzen eginkizuna erlatibizatu eta murriztu beharko litzateke identitate eztabaidan, eta beste elementu batzuetan bilatu.

Baina, esan bezala, Nafarroako barne kohesioa handitzeko beste proposamen batzuk ere jaso ditugu. Foro batean baino gehiagotan errepikatzen dira, eta ez dirudi, beraz, iritzi bakartuak direnik. Guztiek azpimarratzen dute, bereziki, eskualdeen arteko komunikazioa indartzeko beharra. Hala, Berriozarko Gizarte Foroan uste dute beharrezkoa dela eskualdeen arteko komunikazioan inbertitzea eta arreta berezia jartzea. Horretarako baliabideak jarri behar dira (GF Berriozar). Baztango Gizarte Foroak desberdinen arteko topaketak antolatzea proposatzen du. Teknika hori, esaten dutenez, oso eraginkorra izan ohi da, desberdinen artean loturak sortzen laguntzen baitu (GF Baztan). Era berean, Gazte Politizatuak Administrazioari eskatzen diote herritarren batzarrak eta ekitaldi ludiko eta kulturalak antolatzea, Iparraldeko eta Hegoaldeko herritarren arteko ez-egutza arintzeko.

Adituen taldearen arabera, komunikazioa eta harremanak (garraioa, merindadeen arteko proiektuak, barne turismoa...) hobetzeak ondorio onuragarria izango luke lurraldearen eta biztanleriaren arteko ezagutzan, eta horrek era askotako politika orokorrak egiteko gizarteak behar duen gutxieneko konfiantza hobetuko luke. (AT) Erriberatik datozen erreklamazioei erantzunez (GEP Tuteran, adibidez), deszentralizazio administratiboak horretan lagunduko luke... Nafar herritarrek beren arazo espezifikoak kudeatzeko baliabideak dituztela sentitzen badute, horrek eragina izango du lurralde komunitateen kohesioan eta Nafarroako lurraldeen artean sor daitekeen elkarrekiko konfiantzan ere, era horretan bazterkeria edo diskriminazio sentimendurik egon ez dadin administrazio zentralaren esku hartzeagatik

2020an Aditu Taldeak zioenez, beharrezkoa da, alde batetik, bizikidetza eremu bat eraikitzea gizarte maila askotan, eta bestetik, eragile politikoek, sindikalek eta bestelakoek konpromisoa hartu behar dute konfrontazio politiko demokratiko baten gutxieneko arauak adieraziko dituen itun politiko bat egiteko (AT). Berriozarko Gizarte Foroa ere bat zetorren ideia horrekin (GF

Berriozar). Klase politikoari eta erakundeei zerbait eskatu behar bazaie, esku hartzea da, eta inoiz ez pasibotasuna. Gatazkatsuak diren gaietan esku hartzea erantzukizun politikoa erakustea da, eta Nafarroako gizarteak duen erronka nagusietako bat da elkarrekin bizi behar duten bi identitate nazional daudela onartzea, eta bakoitzaren asmoak eta helburuak demokratikoki kudeatzen ikastea. Nafarroako Gizarte Foroak uste duenez, homogeneousun kulturala salbuespena da (NGF). Aniztasuna egitate bat da, eta beraz, asmo baztertzaila eta homogeneousizatzaileak, bizikidetzarako kaltegarriak izateaz gain, alferrikakoak dira gaur egun.

Administrazioari esleitutako eginkizuna erabakigarria izango omen da. Elkarrekiko harremanak sustatzea eta topaguneak sortzea dira iradokizun nagusiak. Gazte Politizatuen Taldeak bereziki garatu zituen ideia horiek. Haien artean, neurri horiek, duten berezko balioaz gain, bizikidetzarako beste oztopo batzuen irtenbidea ere izan daitezke: enpatia falta, Nafarroako historia ez ezagutzea, herritarren ghetifikazioa... (GP). Ildo beretik doa “baliabideak deszentralizatzea”, iparraldearen (hiriburuarekin batera) eta hegoaldearen arteko desberdintasunak arintzeko neurri gisa. Administrazioari ematen zaion protagonismo horrek, ordea, talka egiten du “neutraltasun” eskaera batzuekin, baina, egia esan, ez dakigu ondo zertan oinarritzen diren eskaera horiek. Izan ere, Administrazioaren ustezko rol “neutrala” ulertzeko modu asko daude, baina, gure ustez, ezinezkoa izango litzateke gure bileretan landu ditugun moduko gaiak kudeatzeako orduan.

5.3. Nafarroako bizikidetzari buruz. Amaiera gisa

Ekin diezaiogun berriro gure txostenaren 3.2 puntuari, lau urtez egin dugun proiektuaren oinarritzko arrazoiari, alegia: Nafarroako egungo gizarteko gatazka gai nagusietako batzuk zehaztu ondoren, zer behar da gutxieneko bizikidetzara, konfiantza, elkarriketa soziala eta errespetua ziurtatzeko?

Esan bezala, konfiantzarik ezak ezinikusia eta baita gorrotoa ere eragiten ditu identitate komunitateen edo hizkuntza komunitateen artean, eta horrela egiazta dezakegu gaur egun ere. Azken batean, konfiantzarik ezaren oinarria bestearekiko beldurrean datza, ezezagunari diogun antzinako beldurra, neurri batean instintiboa, antropologiak behin eta berriz azaltzen digun bezala. Kanpotik datorrenaren beldur gara, gure bizimoduan eragin kaltegarria izan dezakeelako: nafar batzuek uste dute besteek, hauek ere nafarrak, beren bizimodua mehatxatzen dutela. Konfiantzarik eza kanpotik datorren guztia onartzeko xalotasunaren aurkakoa da, gogoeta gehiagorik gabe, baina elkar ulertzeko bide guztiak itxi eta itsutu egin gaitzake.

Mesfidantzak, ordea, antidoto argi eta eskuragarria du: elkar ezagutzea (lagunarteko agurrarekin hasita, berriro antropologiak kontatzen digun bezala). Konfiantza izateko, lehenbizi agurra onartu behar da, eta, ondoren, entzun eta hitz egin. Mesfidantzak etorkinak susmopean ikustea eragiten digu; ezagutzak, aldiz, mesfidantza uxatzen du. Hala ikasi genuen iragan mendeko 60ko eta 70eko hamarkadetan Nafarroarako migrazio fluxuetatik. Baina ezagutza hutsak ez dakar berez konfiantzarik.

Hain zuzen, konfiantzak elkar ulertzea eta onartzea dakartza, eta hori, agian, ez dugu egin nahi, bestea ezagutu ondoren ez baikaude ados haren ezaugarri edo iritziekin. Edo, hobeto esanda, konfiantza erlatiboa da: gai batzuetan konfiantza dugu eta beste batzuetan ez. Gauza nabaria da, eta gure txostenetan behin eta berriz ohartarazi dugu: batasunak ez du uniformetasuna esan nahi.

Desberdintasun sozialak, generokoak eta sexuak, kulturalak eta ideologikoak, ez dira konfiantzarekin ezabatzen, eta ez dute zertan ezabatu. Baina bestea ezagutzea ezinbesteko pausua da beste aldean jarri nahi dugun konfiantza maila jakiteko.

Bestea ezagutzea eta aitortzea, hori bai landu beharreko zerbait dela uste dugu. Hau da, kultura demokratikotzat jotzen dena, gure azterketan hainbestetan agertu den gaia. Esan genezake proiektu honetan informatzaile izan diren oso pertsona gutxi agertu dela, argi eta garbi, bizikidetzaren edo errespetuaren kontra, baina egiaztatu ahal izan dugu, bestalde, ez direla entusiasmo handiegirik sortzen duten gaiak. Horregatik esaten dugu ezinbestekoa dela orain arte egindakoa baino arreta handiagoa eskaintzea.

Esan bezala, ez gara herritar onak izaten jaiotzen, eta ez dago gure izaeran gugandik bereizten ditugun taldeez fidatzea, edozein motatakoak izanda ere. Nafarroako gizartean konfiantzarik eta errespeturik ez izateak ez du giro egokirik sortzen kultura demokratikoa nagusi izan dadin. Kontakturik ez badago, ez dago gatazkarik. Baina hori ez da demokrazia deliberatiboan oinarritutako gizarte eredu, kontrakoa baizik. Kontaktua behar da, eta hori ere iradokizun askotan jaso dugu lan honetan, bereziki Administrazioari zuzendurik: desberdinen arteko adiskidantzako harremanak sustatu behar dira. Desberdintasun geografikoak, sozialak, kulturalak eta politikoak. Zeregin hori bi ardatzetan egin behar dela uste dugu, bata bertikala eta bestea horizontala.

Ardatz bertikala Nafarroako eragile politiko eta instituzionalei dagokie. Aurretik kokatzen dugu, bigarren ardatza, horizontala, aktibatze funtsezkoa dela uste dugulako. Behin baino gehiagotan entzun dugu herritarren kexa: alderdiek ez badute nahi, ez dago ezer egitekorik. Eta politizatu gabeko gazte taldeetan, paradoxikoki, eragile politikoek diskurtsoak islatzen ziren zehazki, oro har ulertuta. Ez dira 'herritik irtendako' pentsamenduak, alderdi politikoek ikusi nahi izaten duten bezala, baizik eta hainbat komunikabidetan behin eta berriro zabaltzen den mezu mota jakin baten errepikapenaren ondorioa, azkenean biztanlerian eragiten duena. Mugimendu bertikala da argi eta garbi, eta onartu behar da Nafarroako jarrera batzuetako aldaketak ez direla etorriko alde aurretik eragile politikoek barneratu eta zabaltzen ez badituzte.

Ardatz horizontala herritarrei dagokie, oro har. Etengabeko konfrontazioak neke eta gogaitasuna eragiten ditu, baina ez da aldaketa txikirik ere atzematen, tokiko ekimenen baten ondorioz, adibidez. Aitzitik, behin eta berriaz entzun dugu baieztapen bat da prest ez egotea "gehiagotan amore emateko", eta horrek zalantzan jartzen du zenbateraino dagoen gizarte prestasunik kontsentsuak lortzeko.

Gatazkan dauden gaietan arrazionalizazio dosi handiagoa behar da, eta ahalegin hori diskurtso politikotik eta Administrazioaren lanetik etorri behar da bereziki. Kultura demokratikoa hezkuntza sisteman eta foro sozial eta politikoetan lantzen den gizartea, gehiegizko manikeismotik alde egiten duena, herritarren arteko lotura handiagoak sortuko dituen gizartea da. Baina, berriro diogu, ez da nahikoa instituzio mailan adostasunak lortzea. Gizarte prozesu zabala behar da, zeinean herritarren arteko eta erakundeen eta herritarren arteko harreman horizontalak sustatuko baitira. Prozesu horrek arrakasta izateko gutxieneko bermea izan dezan, ezinbestekoa da kontaktu fisikoa edo birtuala, elkar ezagutzea eta belaunaldien eta kulturen arteko trukerako espazioak sortzea. Nafarroako errealtatea bera ez ezagutzea da gure proiektuko datu deigarrietako bat.

Elkar ezagutzea da Nafarroako gatazkaren aurrean iradoki daitekeen errezeta erraz eta eraginkorrenetako bat. Gilen Garciak, *Gure Desadostasunei buruzko jardunaldian* hizlarietako batek, zioenez,

Konfiantza igo beharreko eskailera da, pixkanaka igotzen dena; mesfidantza, berriz, erraz irristatu gaitezkeen txirrista da. (GDJ Garcia)

eta bazekien zer esaten zuen, Irlandako gatazkan izandako esperientziagatik!

Ez dira egun baterako errezetak, prozesu luze eta lehiatu baten hasiera baizik, baina egin beharra dago, eta eskatzen dena da egiten hastea. Baikortasun zantzuak ere badaude informatzaileen adierazpenetan: talde eta elkarrizketa guztietan eskerrak eman dituzte horrelako topaketetan parte hartzeagatik. Denek onartu dute beharrezkoa dela iritzi desberdinen arteko truke lasaia. Gainera, azken hamarkadan gizarte giroa asko hobetu dela esan da, eta beraz, asaldura maila jaitsi egin dela.

Bien bitartean, Erriberan elkarrizketatutako batek zioen bezala, “denbora luzean horrela bizi beharko dugu, maitasunez eta gorrotoz”.

[5.1. Ekarpena]

(Ez)ezagutzaren kontakizuna

Haritz Garmendia


Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea (UPV/EHU).

Euskal lerrokatze linguistiko elektoralala
Hego Euskal Herrian doktoretza tesiaren egilean

Euskararen gaiak presentzia handia izan du Nafarroako eztabaida politikoan azken hamarkadetan. Komunikabideetan argitaratu izan diren lerroburuei errebaso bat ematea nahikoa da eztabaidaren izaerari antza emateko. Zenbait eragileren aldetik behin eta berriz errepikatzen dira honako adierazpenak: “imposición del euskera” edota “que vienen los vascos”. Horrek guztiak, euskararen afera eztabaida iturri bihurtu du proiektu politiko ezberdinen artean.

Ezagutzaren kontakizunak, adibidez, azpimarratzen du udalerrri bateko euskara ezagutza igo ahala, hazi egiten dela udalerrri horretan alderdi abertzaleek jasotzen duten babes elektoralala. Honako errealitatean oinarritzen da kontakizun hori:

1. Irudia: Lerrokatze elektoralala, euskara gaitasunaren eta euskal alderdiek jasotako babes elektoralaren artean.



Iturria: Egileak moldatua.

Oharra: Grafikoan hiru aldagai hartzen dira kontuan (x, y eta z). Aldagai bakoitzak, elementu jakin bati egiten dio erreferentzia. X ardatzean, esaterako, udalerrri bateko datu soziolinguistikoak zehazten dira %tan. Y ardatzean, berriz, hautagaiek jasotako botoetatik abiatuta, alderdi jakin batzuek lortutako babes elektoralala adierazten da %tan. Z ardatzean, azkenik, udalerrri bateko hautesle-errola islatzen da. Horrela, grafikoan agertzen den biribila zenbat handiagoa izan, horrek esan nahi du orduan eta handiagoa dela udalerrri horretako hautesle-errola. Gainerako grafikoetan ere, berdina da jarraitzen den logika. Ezberdintasun bakarra da gurutzatzen diren aldagai soziolinguistikoak (gaitasuna, transmisioa edo etxean erabiltzen den hizkuntza) eta elektoralak (euskal edo espainiar alderdiak) ezberdinak direla irudi batetik bestera.

Lehen begi kolpean, 1. irudiak erakusten du positiboa eta sendoa dela hizkuntza gaitasunaren eta botoaren arteko harreman-lineala. Hau da, y aldagaiak gora egiteko joera duela x aldagaiaren balioak gora egin ahala. Horregatik, ez da harrizkoa euskal alderdiek emaitza apalagoak lortzea Ablitasen edo Antsoainen, Baztanen edota Goizuetan baino. Logika horri jarraituz, normalena da alderdi abertzaleek emaitza elektoral hoberenak udalerrri euskaldunetan lortzea.

2. Irudia: Euskal alderdiek jasotako babes elektoralaren batez bestekoa %tan, eremu soziolinguistiko ezberdinetan.

		Euskararen gaitasuna %tan (2021)				
		1 eremua %0-%19	1 eremua %20-%39	1 eremua %40-%59	4 eremua %60-%79	5 eremua %80-%100
Euskal alderdiek jasotako babes elektoralaren %tan (2019-2020)	Hego EHko udalerrriak	%29,16 (185)*	%62,98 (104)	%71,88 (65)	%84,53 (80)	%91,13 (89)
	EAEko udalerrriak	%67,57 (9)	%68,39 (64)	%74,77 (46)	%86,64 (64)	%93,93 (68)
	NFEko udalerrriak	%27,20 (176)	%54,33 (40)	%64,88 (19)	%76,07 (16)	%82,07 (21)


Iturria: Egileak moldatua.

Oharra: *Parentesi arteko zenbakiak ezaugarri soziolinguistiko horiek betetzen dituzten udalerrri kopurua adierazten du.

Aipatutako joera orokor hori kuantifikatu da 2. irudian. Alde horretatik, Nafarroako kasuan datuek erakusten dute euskararen ezagutza %20ra iristen ez den 176 udalerrietan (1. eremua), euskal alderdiek jasotako babes elektoralaren batez bestekoa hautagaiek jasotako botoen %27,2a dela. Bien bitartean, euskararen ezagutza %80 baino handiagoa den 21 udalerrietan (5. eremua), %82,07 da euskal alderdiek jasotako babes elektoralaren batez bestekoa. Bi eremuen artean, esanguratsua da ezberdintasuna: %54,87koa, hain zuzen. Datu horiek ikusita, zenbaitek errezeloz ikusten dute Nafarroan euskararen ezagutza lurralde osora zabaltzea. Bilakaera horrek, ondorio elektoralak ekarriko lituzkeela uste baitute. Hain zuzen ere, ikuspuntu hori da euskara ezagutzaren afera arazo politiko bihurtzen duena.

Ezagutzaren kontakizuna, ordea, azaleko irakurketan gelditzen dela iruditzen zaigu. Izan ere, hizkuntza ezagutzaren eta hautesleen portaera elektoralaren artean harremana balego, beste horrenbeste gertatu behar luke gaztelaren eta boto espainiarraren artean. Alabaina, ez da horrelakorik gertatzen 3. irudian ikusten den moduan. Aitzitik, ezagutzaren kontakizunak zailtasunak ditu perspektiba horretatik Hego Euskal Herriko udalerrri gehienetako errealitatea azaltzeko. Adibidez, nola arrazoitu dezakegu Goizuetan %5,37koa izatea espainiar alderdiek jasotako babes elektoralaren, udalerrri horretan bertan hautesleen gaztelera ezagutza %100 bada? Irakurketa gaztelaren ardaztuz gero, ezagutzaren kontakizunak soilik Ablitas eta antzeko ezaugarriak dituzten udalerrriak azaldu ditzake arazorik gabe. Gainerako udalerrietan, ez dute bat egiten kontakizunak eta errealitateak.


3. Irudia: Lerrokatze elektoralak, gaztelera gaitasunaren eta espainiar alderdiek jasotako babes elektoralaren artean.




Iturria: Egileak moldatua.

Espainiar lerrokatze linguistiko elektoralak erakusten du aldagai adierazgarria ez dela hizkuntza gaitasuna, hizkuntza transmisioa eta erabilerak baizik. Azken bi horien kasuan, 4. irudiko datuek argi erakusten dute udalerrri bateko gaztelera transmisioaren eta erabileraren ehunekoa igo ahala, jaitsi egiten dela euskal alderdi abertzaleek jasotzen duten babes elektoralak. Horrela ikusita, ez da kontraesana Goizuetan herritarren %100ak gaztelera jakitea, eta hala eta guztiz ere, espainiar alderdiek babes elektoral oso apala lortzea.

4. Irudia: Euskal alderdiek jasotako babes elektoralak, gaztelera transmisioaren eta erabileraren arabera.



Udalerrri bateko gaztelera transmisioa % (2011)
Nafarroako 272 udalerrri




Udalerrri bateko gaztelera erabilera* %tan (2011)
Nafarroako 272 udalerrri

Iturria: Egileak moldatua.

Oharra: * erabileraren datuak erreferentzia egiten dio etxean erabiltzen den hizkuntzari. Alde horretatik, gaztelera erabileraren ehunekoa osatzerakoan batu egin dira etxean gaztelera soilik eta gaztelera eta euskara erabiltzen dituztenen datuak. Beste horrenbeste egin da transmisioaren aldagaiarekin.

Euskal lerrokatze linguistiko elektoralaren handicap-a da Ablitasen hautesleek ez dakitela euskaraz. Ondorioz, Goizuetako kasuan identifikatu dugun desfasea (gaztelera ezagutzaren eta transmisioaren/erabileraren artekoa), ezin izan da identifikatu kasu honetan. Behin puntu honetara iritsita galdera da ea badagoen hauteslerik euskara transmititu eta erabili gabe gelditzen denik, euskararen ezezagutzak eraginda, alegia, erderaz erraztasun gehiago duelako edota berak edo ingurukoek gaitasunik ez dutelako euskaraz aritzeko. Alde horretatik, 5. Irudian erreparatuz gero, deigarria da ikustea euskara erabileraren baloreak %20 baino txikiago diren udalerrietan, boto abertzaleak balio oso ezberdinak hartzen dituela.

5. Irudia: euskal alderdiek jasotako babes elektoralra, euskara gaitasuna eta euskara erabileraren arabera.



Iturria: Egileak moldatua.

Oharra: * erabileraren datuak erreferentzia egiten dio etxean erabiltzen den hizkuntzari. Alde horretatik, euskara erabileraren ehunekoa osatzerakoan batu egin dira etxean euskara soilik eta gaztelera eta euskara erabiltzen dituztenen datuak.

Fenomeno hori azaltzeko euskararen (ez)ezagutzaren kontakizuna hobesten da testu honetan. Azken horren arabera, ohikoena da hautesle batek bere hizkuntza nazionalen bizi nahi izatea. Alabaina, hautesle euskaldun batek zenbaitetan zailtasunak ditu euskaraz bizitzeko, besteak beste: eremu soziolinguistikoak euskaraz jardutea mugatzen diolako (erdaldun elebazarren dentsitatea dela eta) edota hizkuntza gaitasun erlatibo handiagoa duelako gaztelera. Horrek guztiak eragiten du hainbat udalerritan euskara transmisioaren eta erabileraren ehunekoak egoera normalizatu batean izango lirakeenak baino baxuagoak izatea. Ildo horretatik, lan honetan uste da egoera horrek zaurgarriagoa egiten duela alderdi abertzaleen aldeko botoa. Izan ere, muturreko kasuan, hizkuntza gaitasunik ezean, borondate politikoa da euskal alderdiei bozkatzeko hautesleri gelditzen zaion helduleku bakarra.

Laburbilduz, testu honetan ohiko ezagutzaren kontakizunaren aurrean begirada ezberdin bat eskaini nahi izan da euskararen gaira hurbiltzeko. Alde horretatik, testuan zehar ikusi da euskara jakiteak ez duela zertan hautesleen portaera elektoralean eragin. Aitzitik, datu bidez erakutsi da hizkuntzaren transmisioari eta erabilerari eragiten dion neurrian, hizkuntzaren (ez)ezagutza dela adierazle nagusia.

*Testuan zehar irudiak osatzeko erabilitako datu iturrien inguruko informazioa:

Datu soziolinguistikoak:

- Eustat (d.g). Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsuak. Hemendik eskuratua: <https://eu.eustat.eus/banku/indexArbol.html>
- Nastat (d.g). Estadística de población según conocimiento de euskera. Hemendik eskuratua: <https://nastat.navarra.es/es/operacion-estadistica/-/tag/perfil-euskera>
Datu elektoralak: 2019ko Nafarroako Parlamenturako hauteskundeak eta 2020ko Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak.
Eusko Jaurlaritz (d.g). Segurtasun Saila. Hauteskundeetako Emaizten Artxiboa. Hemendik eskuratua: <https://www.euskadi.eus/ab12aAREWar/resultado/maint>
- Nastat (d.g). Procesos Electorales. Parlamento de Navarra. Hemendik eskuratua: <https://nastat.navarra.es/es/operacion-estadistica/-/tag/elecciones-parlamento-navarra>

[5.2. Ekarpena]

Euskararen babes juridikoa Nafarroan: ofizialtasuna eta gehiengo soziala

Aritz Romeo Ruiz

Administrazio Zuzenbideko irakaslea
Nafarroako Unibertsitate Publikoa

Nafarroan euskarari babes juridikoa ematen zaio hiru mailatan: Nafarroako kultur ondarearen elementu gisa, berezko hizkuntza gisa eta hizkuntza ofizial gisa. Hori dela eta, botere publikoek ekintza positiboa garatu behar dute, euskara kontserbatu, zabaldu, ezagutu, hedatu eta sustatzeko.

Kultur elementua den aldetik, euskara ondare ez-materialaren parte da, eta, beraz, babestu egin behar da, Nafarroako Kultur Ondareari buruzko azaroaren 22ko 14/2005 Foru Legearen arabera.

Baina Nafarroako euskara ezin da kultura hutsera mugatu. Hortik askoz harago, euskara hizkuntza bizia da, komunikazio fenomeno, sustrai historiko sakonak dituena, eta oraindik erabiltzen dena komunikazio sozialean, administratiboan eta jarduera ekonomikoan, batez ere merkataritzakoan. Euskara, gainera, azken hamarkadetan hazten ari den hizkuntza da, beste atal batzuetan ikusi dugunez.

Bere izaera kulturaletik harago, euskara gertaera linguistiko bizi gisa babesten da. Alde horretatik, euskararen esparru juridikoak tratamendu berezia du Nafarroan, berezko hizkuntzak dituzten beste autonomia erkidego batzuekin alderatuta.

Autonomia erkidegoetako hizkuntzen koofizialtasun araubidea autonomia estatutuen bidez aitortzen da. Aitortza hori zenbaterainokoa den ikusita, esan dezakegu bi Estatutu mota daudela: norberaren hizkuntzen ofizialtasuna aitortzen dutenak, eta ofizialtasuna aitortu gabe, babes erregimen berezia ematen dietenak, baina ez koofizialtasuna.

Lehen taldean daude Katalunia (katalanari eta aranerari dagokienez), Euskal Autonomia Erkidegoa (euskarari dagokionez), Galizia (galizierari dagokionez) eta Valentziako Erkidegoa (Valentziako hizkuntzari ofizialtasun erregimen zabala aitortzen dio).

Bigarren taldean, Asturiasko Printzerria (asturierarentzat), Aragoi (aragoierarentzat eta katalanarentzat) eta Gaztela eta Leon (leonesari dagokiona) egongo lirateke. Horietan ez zaie hizkuntza ofizialen izaera aitortzen, baina babestu egiten dira hizkuntza adierazpen eta kultur ekintza gisa.

Nafarroak, ordea, araubide berezia garatu du. LORAFNaren 9. artikulua ezartzen du gaztelania dela Nafarroako hizkuntza ofiziala, eta euskara ofiziala izango dela “Nafarroako eremu euskaldunetan”. Ez du zehazten zer izan behar duen ofizialtasun erregimenak, eta ez du zehazten zer izan behar duten eremu horiek, ez nola finkatu behar diren, ez eta errealitate soziolinguistikoaren bilakaera nola hartu behar den kontuan ere. Horrela, ofizialtasunaren esparrua legegilearen borondateari lotuta geratu da.

Garapen hori 1986ko Euskararen Foru Legearen bidez egin da, eta, jakina denez, hiru eremu linguistiko ezartzen ditu: euskalduna, mistoa eta ez-euskalduna. Pertsona bat zein lekutan bizi den ikusita, euskararekiko eskubide batzuk izango ditu, edo ez. Era berean, hizkuntza hori ikasteko baliabideak eskuratzeko aukera handiagoa edo txikiagoa izango du. Euskararen Foru Legeak zehazten du zein udalerrik osatzen duten hiru hizkuntza eremu horietako bakoitza. Foru lege batek berraztertu ahal izango ditu, bilakaera soziolinguistikoaren arabera. Arauketa honek euskararekiko estatus juridikoa baldintzatzen du pertsona bakoitzaren jaiotze, bizileku edo lantokiaren arabera.

Araubide juridiko desberdina hezkuntzaren eremuan, Nafarroako administrazio publikoekiko harremanen eremuan eta gizarte hedabideetan agertzen da.

Lehenengoan, aldaketa garrantzitsuak gertatu dira 4/2015 Foru Legearen bidez, eremu ez-euskaldunean euskara komunikazio hizkuntza gisa erabiltzen duten irakaskuntza ildoak ezartzeko aukera ematen baitu, eskariaren arabera. Horrek, eremu ez-euskalduneko Nafarroako zenbait herritan D ereduko ildoak irekitzea ahalbidetu du, eta horrek garrantzi handia du hizkuntzaren hazkunderako. XIX. mendean edo lehenago euskara galdu zuten zenbait herritan, euskaldun edo euskaldun hartzaileak dira gaur egun 14 urtetik beherakoen % 60an.

Administrazioan euskararen erabilerari dagokionez, 103/2017 Foru Dekretuak baldintza gehiago ezarri zituen hiru eremuetan enplegu publikora iristeko euskararen ezagutza merezimendu gisa baloratzeko, aurreko arauketarekin alderatuta. Hala ere, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiaren 216, 217 eta 2018/2019 epaiek manu horiek deuseztatu zituzten. Gai hori arautzeko arau berri bat prestatzeak aurrez aurre jarri ditu Nafarroako Gobernua 2019-2023 legealdian babesten duten talde parlamentarioak eta alderdi politikoak, eta hori gai horren inguruan dagoen eztabaida sozialaren isla baino ez da.

Nafarren arteko eskubide berdintasun printzipioaren ikuspegitik, zonifikazioa gainditu egin behar da. Euskara Nafarroa osoko elementu linguistiko, historiko eta kulturala da, eta, beraz, Nafarroako herri osoari dagokion aberastasuna. Euskara Nafarroako gizarte osoarena da, hitz egin ala ez, non bizi den alde batera utzita, eta desberdintasun politiko, sozial edo ororen gainetik, ezbairik gabe, aniztasuna gizarte aberastasun nagusia duen lurraldean.

Are gehiago, euskara, bere berezitasun eta aberastasun linguistiko, historiko eta kultural eskerga dela eta, Nafarroaren identitatea definitzen duen elementuetako bat izatea bilatu beharko genuke.

Beharrezkoa da zonifikazioa gainditzea, Nafarroako herritar guztiak eskubideetan berdinduz, jatorriz nafarra den eta Nafarroa osoari dagokion hizkuntza baten aurrean. Hizkuntza banatzearen araubidea hizkuntza propio ofizialak dituzten beste autonomia erkidego batzuetako estatutu arauekin bat etorritz gainditu behar da.

Beste kontu bat da foru erakundeek ezin dutela alde batera utzi Nafarroako eskualde desberdinetako errealitate soziolinguistikoa, eta toki bakoitzeko errealitate linguistikora egokitutako politika garatu beharko dutela. Euskara Nafarroako lurralde osoan ofiziala izateak ez du esan nahi hizkuntza hori garatu eta babesteko politikak berdina izan behar duenik Baztanen edo Cortesen, udalerrri horien errealitate soziolinguistikoa erabat desberdina denean.

Politika horiek gehiago edo gutxiago garatu ahal izango dira, eta errealitate soziolinguistikoa kontuan hartu beharko da. Nolanahi ere, euskara hizkuntza, historia eta kultura fenomeno gisa babestu eta zabaltzera bideratuta egon behar dute, horrela ondorioztatzen baita euskara babestu eta arautzeko esparru juridikotik.

Euskara sustatu behar bada, kontu hau funtsezkoa da: euskara Nafarroan haztea nahi duenak, lehenik eta behin, Nafarroan euskara sustatzeko politikekiko atxikimendu soziala ere haztea lortu beharko du, eta, horregatik, ezin dugu alde batera utzi euskararen erabilera sustatzeko jarreraren bilakaera, atzerantz egin duena azken hamarkadan, beste atal batzuetan ikusi den bezala.

Hizkuntza zonifikazioarekin amaitu behar denez, urrats sendoak ematea ere garrantzitsua da, Nafarroako gizarteak euskara sustatzeko duen jarrera sendotzen eta zabaltzen joateko: “Piano piano si va lontano”.

Hizkuntza eskubideen berdintasuna bermatzetik harago joan behar da: Nafarroako foru eta toki erakundeek hizkuntza politika bat garatu behar dute euskararekiko atxikimendu sozial handiagoa lortzeko, munduan bakarra baita hizkuntza egiturei eta antzinatasunari dagokienez.

Marko juridiko babeslea eta bermatzailea behar da euskara berreskuratzeko, baina Nafarroan gehiengo sozial zabal batek euskara berezko zerbait bezala sentitzea eta euskara sustatzearekin ados egotea da bermerik onena euskara bizirik egon dadin eta aurrerapenak finkatu daitezzen. Gizarte babes nahikorik gabe Zuzenbidea eraikitzeak, azkenean, lokatzezko oinak dituen erraldoi bat sortzera eramán gaitzake.

[5.3. Ekarpena]

Euskara, Erribera eta borondatetasuna euskalduntze politika gisa

Cristina Osés

Soziologoa

Txantxa eta sarkasmo pixka batekin izan dela aitortu behar badut ere, askotan erabili dut “hizkuntza zonifikazioaren alaba” esaldia, euskararekin dudán harreman pertsonal eta politikoari buruz hobekien definitzen nauen egoera azaltzeko. Harreman pertsonalaz ari naiz, ezinezkoa delako partidaren une honetan, ondo bereiztea, batetik, Nafarroako hizkuntza politika, eta bestetik, gizarte gisa adierazten dugun pasioa eta tratamendu emozional zabala, eta nola ez, gaiari buruzko jarrera oro oso politikoa delako.

Euskarari buruzko eztabaidan, badirudi bi gauza argi ditugula. Lehenbizikoa da Nafarroak hizkuntza aniztasun handia duela euskararen erabilerei dagokienez, eta bigarrena, aniztasun horren ondorioz, ezin direla estrategia berak ezarri biztanleriaren euskalduntzearen inguruan, ezta hizkuntzarekiko tolerantziaren inguruan ere. Edozein politika, ekintza edo lan militante gauzatu ahal izateko, funtsezkoa da eremua eta jendea ezagutzea, eta, bistakoa dirudien arren, ez da beti egiten den kontua.

Lehenengo premisa gisa, onartu behar da Erribera hizkuntza zonifikazioaren zuzeneko biktima dela (niri galdetuz gero, kaltetuena), eta zonifikazio politika horrek eragina neurtzeko ertz eta prisma asko dituela. Testuinguru sozial, kultural eta are demografikoak eragotzi egiten du, askotan, Nafarroako biztanleen zati hori euskalduntzeko estrategiak lehenestea. Era berean, ezin da ahaztu borondate politikoa egon badaiteke ere, hauteskunde botoak galtzeko beldurrak aurreratzeko edozein proposamen bertan behera utz dezakeela. Izan ere, zonifikazioaren arazo nagusietako bat urtetan eta urtetan zabaldu den euskararekiko beldur politika izan da, eta horrek gutxiagotasun sentimendua sortu du euskarak ordezkatzén duen guztiarekiko, eta baita Erriberako beste nortasun “berezkoago” bat berresteko beharra ere.

Era berean, euskal sektore jakin batzuetatik Erriberako jendeaz dagoen ezjakintasunak eta karikaturizazioak euskararen aldeko politikekiko erreakzio negatiboa bultzatzen du. Nork ez du inoiz entzun Tafallan horma bat eraikitze kontua? Galdera hau egin daiteke: batetik, euskararen erabilera eta normalizazioa sustatzeko, zergatik aurkeztu nahi da komunikazio tresna huts gisa, baina, bestetik, Erriberari, euskara ikastearekin batera, identitate berrespen handiago bat eskatzen zaio, eta horrek eragiten du oso atzerakoiak diren sektoreek ere haien identitatea berrestea, baina euskararen kaltean.

Horren arrazoia da, ezbairik gabe, azpiegitura eta zerbitzu faltaren aurrean, euskara instituzionalki sustatzen ez denez, bi aldeei identitatea berrestea besterik ez zaiela geratzen, eta berrespen horrek pasioa eta gatazkaren tratamendu pertsonalista sustatzen ditu, oso erabilgarriak, bestalde, sektore politiko jakin batzuentzat.

Hala ere, garrantzitsua Erriberari eta euskarari dagokienez, boluntarismoaren erabilera da euskalduntzeko metodo gisa. Egia da oraindik urrun gaudela hizkuntza politikaren homogeneizaziotik, batez ere politika horrek eragin ditzakeen portaera atzerakoiengatik; hala ere, esan behar da, behingoz, borondatezko euskalduntze politika ez dela benetan euskalduntzeko eraginkorra.

Orduan, “Nafarroako identitate aniztasuna” errespetatzea lehenesten da beti, baina ahaztu egiten gara gaizki ulertutako “aniztasuna” errespetatzeari lehentasuna ematen zaionean, hizkuntza murgiltze edo ikaste zerbitzu eta baliabideak eskuratzeko aukera berdintasunik eza sustatzen dela. Borondateasuna ondo dago, baina hobe da hizkuntza politika progresiboa izatea, guztien arteko baldintza berdintasuna ardatz duena. Erriberan euskaraz ez hitz egitearen arazoa ez da euskaraz ikasteko baliabide eta interes guztiak jartzen ez dituen pertsonena.

Irtenbide handirik eman gabe, baina bai testuingurua azaltzeko, amaitu nahi nuke esanez Erriberan euskara modu errealean lantzeko, garrantzitsua dela hizkuntza zonifikazioaren alaba zer den ulertzea, eta onartzea banakako soluzioak (ikasteko edo estudiatzeko borondatea, esaterako) bakarrik erabiltzeak eta sustatzeak ez dutela egiturazko aldaketarik eragingo eremu horretan. Are gehiago, zulatze handiagoa eragin lezake lurralde kohesioan

[5.4. Ekarpena]

Aldekotasuna helburu, Nafarroarako proposamen bat

Iñaki Sagardoi eta Oskar Zapata

Nafarroako Euskaltzaleen Topaguneko kideak

Euskaltzaleen Topagunearen helburu estrategikoetako bat da etorkizunean Nafarroako biztanleriaren gehiengoa euskara indarberritzeko prozesuaren alde egotea, eta ondorioz, indarberritzeko egin behar diren aldaketa estrukturalak babestea.

Nafarroan euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarreraren inguruan galdetzen da inkesta soziolinguistikoetan, besteak beste. Guztietan, datu kezkarriak agertzen dira. 2021eko VII. inkesta soziolinguistikoan adibidez, % 30 alde agertu zen, % 33 ez alde ez kontra, eta % 37 kontra deklaratu zen.

Alde eta kontrako datuak asko aldatzen dira eskualdez eskualde. Gure ustez, urteetan eremu zabalean euskara ikusezin bilakatzeko hartutako neurri politikoek eragin nabarmena dute horretan. Izan ere, ez alde ez kontrako, herritarren kopurua esanguratsua da bai hegoaldean (% 29,4) eta baita zonalde mistoan ere (% 35,4).

Gehiengoa osatze bidean, ez alde ez kontra kokatzen diren herritarren iritzietan eragitea, beharrezkoa da gure iritziz. Topagunean horri begira era planifikatuan hasi ginen lanean 2021ean Nafarroan.

Bi urteko prozesuan, 14 laguneko talde anitz bat ukan dugu ondoan. Horrez gain, ekarpen berriak jasetzeko bi foro antolatu ditugu: bat euskaraz bestea gaztelaniaz. Osotara 50bat laguneko ekarpenak jaso ditugu.

Bidean, gaur eguneko diskurtsoak eta jokaerak aztertu ditugu, egoeraren diagnosi txikia egin dugu eta ildo diskurtsibo osagarriak eskaintzeko ariketa egin dugu. Horien plazaratzean helburu bi finkatu ditugu: aliantza berriak eraikitzea eta kontsentsu sozio-politikoa lantzeko orube bat bilatzea.

Prozesuan zehar egin ditugun elkarrizketa gehienetan, gai zentral batek ziprztintzen duela euskararen gaia ikusi dugu: bi estatu proiektuen arteko talka, nazio identitateen talka. Gure ustez, eta inolako inozokerietan erori gabe, ohiko dikotomia horiek mugitzea, berriak planteatzea, gizarte sektore zabalago batekin bat egiteko aukerak zabaldu ditzake epe ertainera.

Hau da, Estatu bat ala beste, Nazio bat ala beste dikotomiatik haratago, Uniformizazioa vs Aniztasuna. Argumentuen eztatanda Autoritarismoa vs Demokrazia-Bizikidetzaren parametroetara mugitzea lagungarri izan daiteke konplizitate berriak eraikitzeko.

Irakurriko dituzun horiek ez datoz bestelako kontakizunak ordezkatzera, osatzera baizik. Hortaz, horra hor, laburturik, Topagunearen ekarpena:

Gure praktketan zaindu beharrekoak:

Gizarte ikuspegi zabala edukitzea: desberdintasun sozialak, jaioterri anitzak, heterogeneotasun geografikoa eta ideologikoa. Lehentasunak ongi aukeratzea: Helburu & Estrategia: zer kontatu nola kontatu. Talka soziala eta eraginaren arteko balantzea.

Gai gatazkatsuak lantzeko moduak, jarrerak: aurrerapausoak aitortzea, enpatia, progresibotasuna, terminologia. Aliatuak bilatu eta zaintzea. Hezkuntzan bereziki baina gizartean ere, desberdinen arteko zubiak eraikitzea.

Aniztasunaren defentsan aitzindari izatea eta aldi berean nafar identitatearen irudi modernoa, inklusiboa, konplexua hauspotzea. Euskal Komunitatearen beharrak eta keak ongi argudiatuak plazaratzea. Hizkuntzen arteko graduazioa ez egitea.

Kontakizunerako ideia gakoak:

Kontakizunak eraikitzea helburu, jasotako materiala bi kategoria nagusitan batzea hobetsi dugu: Ekologia eta Bizikidetzak.

A. Ekologiari loturiko baloreak, etika eta ikuskera: aniztasuna, berdintasuna, zaintza...

- Euskara Nafarroako aniztasun eta aberastasun kulturalaren isla da. Aniztasunari Nafarroak egiten dion ekarpen gorena da euskara. Hemen, bere lurraldean egin dezake ekarpena, ez beste inon.
- Edozein nazio estatu proiekturen alde egiten duzula, aniztasunaren aldeko hautua da euskara sustatzearena. Uniformitatearen kontrako hautua da.
- Ekologiaren ikuspegitik habitat egokia eta nahikoa bermatu behar zaio: legez eta baliabidez.
- Euskara Nafarroako ondare kulturala izanik, naturala da euskararen garapenaren alde urratsak egitea.
- Abegikorrek gara eta gehiago izan nahi eta behar dugu: kolore, klase eta jaioterri anitzekin osatu nahi dugu euskarazko komunitatea.
- Euskarazko ereduetan, gizartean dagoen aniztasuna jaso nahi dugu, guztiekin partekatu nahi dugu gurea eta guztiena. Eredu inklusiboa behar dugu, aukera berdintasuna bermatzen duena.

- berdintasuna helburu. Ekitatea: egoera zaugarrian dagoenaren aldeko diskriminazio positiboa aplikatzea justizia egitea da.
- Euskararen sustapenak bertako ekonomia garatzen laguntzen du. Lanpostuak sortzen ditu, enpresak sortzen ditu.

B. Bizikidetzak: errespetua, elkartasuna, demokrazia

- Gizartean gatazkak egotea naturala da. Horien kudeaketa bide demokratikotik eramatea da gakoa bizikidetzarako. Euskararen inguruan gatazka dago Nafarroan. Bizikidetzaren izenean, errealitate soziolinguistikoa hobetzeko proposamenak egitea zilegia eta ona da.
- Demokrazian errespetatu eta sustatu egin behar dira hizkuntza-kultura gutxiagoak, herrikide guztion duintasunaren aitortza baitira. Estatuek sustatu beharko lituzkete hizkuntza ez hegemonikoak ere.
- Bertako hizkuntza izanik, herritar askok maitaturik, onuragarria da Nafarroan euskara osasuntsu egotea, gizarte hobea izaten laguntzen du: aberatsago, pluralago, inklusiboago. Zure moduan izan zaitezke euskaltzale. Pertsonok identitate konplexuak ditugu.
- Etorkizunean denok, sikiera, bion hizkuntzak ulertzea, aitortza eta errespetuzko ariketa erraldoia litzateke, bizikidetzaren adierazle.
- Estatu proiektuetan alderdien arteko talka dago. Euskararen biziberritzeari loturikoak zurrumbilo horretatik at kokatzea komenigarria da.
- Euskara, nafartasunaren ezaugarri kultural garrantzitsua izanik, edozein nazio estatu proiekturen alde egiten duzula, Nafar identitate plurala inklusiboaren aldeko hautua da euskara sustatzearena.
- Kontsentsuak ezinbestekoak dira. Akordioak euskararen indarberritze bidean eraiki behar dira. Bizikidetzak, kultura eta hizkuntzen aitortzatik eraikitzen baita; ez ukaziotik

[5.5. Ekarpena]

Emozioei buruz

Ane Larrinaga

Soziologia irakaslea eta Parte Hartuz Taldeko Ikertzailea (UPV/EHU)

Arrazoa eta emozioa giza ezagutzaren eta gizarte harremanen elementu banaezinak dira. Ezin da errealitate sozialik ulertu bi osagaien arteko lotura saihestezina aintzat hartu gabe. Hala ere, kultura ilustratuaren oinordekoa den gizarte modernoan, bi faktore horiek baztertzailak eta kontrajarriak balira bezala bereizi dira. Gaur egun, ordea, neurozientziak adierazten du emozioez eta erabakiak hartzeaz batera arduratzen diren garun sistemek kognizioaren eta gizarte portaeraren kudeaketan parte hartzen dutela. Era berean, emozioen ezinbesteko izaera soziala eta historikoa ere argitu da; izan ere, emozioak kultura eraikuntzak dira, eta kultura testuinguru jakin baten esparruan baino ez dute esanahia hartzen. Testuinguru horrek indarrean dagoen erregimen emozionalaren parametroak definitzen ditu, eta zehazten du nork sentitu ahal edo behar duen, zer emozio mota, eta zer baldintzapean.

Gaurdainoko testuinguru arrazionalista nagusian, arrazoimenaren eta emozioaren arteko hierarkizazioa gertatu da sarri, gizarte botereko harreman gisa gauzatua. Halakoetan, boterea arrazoimenaz jabetu dela dirudi, mendeko gizarte jarrerak arrazionaltasunik gabekotzat jotzen baitira, eta emozioetan irrazionaltasuna besterik ez baita sumatzen. Ildo horretatik uler daiteke mendekotasun egoeran dauden gizarte aktoreei egozten zaien gainkarga emozionala; hori eginez, haien arrazionaltasuna ukatzea bilatzen da. Emozioen esleipen mota hori oso nabarmena izan da estatuz azpiko identitate nazionalekin eta hizkuntza komunitate gutxituekin lotutako gaitan. Beraz, “gainkarga emozionala” izaten da gizarte diskurtso hegemonikoetan maiz erabiltzen den argudioetako bat, gizarte eragile jakin batzuen kosmobisioa eta ekintzak deskalifikatzeko, politikoki deslegitimatze edo, azken buruan, jokabide irrazionalaren kategoriara baztertzeko.

Baina, gaur egun uste da arrazoiarekin batera, emozioak funtsezkoak direla bizitza soziala eta indibiduala ulertzeko. Emozioak ekintza indibiduala eta kolektiboa bultzatzen duten faktorea dira, eta eragin handia dute gizarte taldeen barne kohesioaren eraikuntzan. Era berean, gizabanakoak gizartearekiko, bere komunitatearekiko eta bere komunitate politikoarekiko duen atxikimendu soziala bermatzen dute, gizarte edo talde elkartasunari lagunduz. Baina, aldi berean, zatiketa eta desagregazio faktore bizkortzailak dira gizartearen desadostasun edo gatazka uneetan. Arrazoi horiek direla eta, aniztasun politiko eta kulturalako egoera sozialetan bizikidetzat bilatzeak emozioen azterketa sakona eskatzen du. Bada, emozio horiek, barnean nahiz zeharka, gizarte kolektibo guztiak zeharkatzen eta gidatzen dituzte, eta haien jarrerak, irudikapen sozialak eta jokabideak baldintzatzen dituzte.

Hala, askotan ziurtatu denaren aurka, arrazoiari ezinbestean lotutako emozioak izan ohi dira eragile indibidual eta kolektiboen hautapen estrategikoen oinarria. Eta bai eguneroko elkarreragineko testuinguruetan, bai testuinguru instituzionalizatuenetan, energia ematen diote norbanakoaren eta taldearen ekintzari, baita zentzua ere. Harreman sozialak botere harremanak izan ohi direnez, botere hegemonikoek sistematikoki erabiltzen dituzte emozioek dituzten kohesio eta/edo sakabanatze, eta zentzua sortzeko funtzio horiek, ezarritako ordena justifikatzen duten mundu ikuskera jakin batzuk ezartzeko. Eta berdin egiten dute menpeko eragileek ere, beren diskurtso erresistentziak (ideologikoak) eta kontrabotere ekintzak eraikitzeko. Azken batean, arrazoiarekin batera, gizartean gertatzen diren borroka sinboliko guztietan parte hartzen dute emozioek, gizarte errealitatearen ikuspegi legitimoa ezartzeko lehian.

Emozioak gizarte egiturari ere lotuta daude. Emozioen kontzepzio estrukturalak gizarte harremanen eta emozioen arteko loturak aztertzen ditu, zehatzago esanda, egonkortasun soziala aldatzea edo mantentzea eragin dezaketen emozio mota jakin batzuen sorrera azaltzen duten baldintza sozial estrukturalak. Ikuspegi horretatik, komeni da aztertzea, adibidez, zer gizarte baldintzek eragiten dituzten gizarte kolektiboen arteko gatazkak sortzen laguntzen duten emozioak, edo kolektibo horiek denbora luzez elkartuta edukitzen laguntzen dutenak. Taldeek gizartean duten botere maila eta estatus soziala dira ikuspegi horretan interesa duten gizarte harremanen funtsezko alderdiak.

Ikuspegi estruktural horren arabera uler daitezke, esate baterako, gatazka sozial edo bizikidetzako gatazka batzuk, gizarte batean hainbat identitate nazional edo hizkuntza elkarrekin egotearen ondoriozkoak direnak. Bi auziok komunitate harremanen muinean daude, hau da, afektu harremanetan eta elkartasun loturetan. Baita gizarte banaketan ere. Zalantzarik gabe, leialtasun gatazken oinarrian osagai emozionala dago. Baita emozioak kokatzen diren botere osagai estrukturalak ere. Hala, emozioak asimetricoki banatzen dira gizartean, beste baliabide batzuen banaketaren logika berari jarraituz (baliabide sozialak, ekonomikoak, politikoak eta sinbolikoak).

- Alli, Juan Cruz (2017): *La autonomía de Navarra. Historia, identidad y autogobierno*. Nafarroako Unibertsitate Publikoa. Doktorego tesia
- Anderson, Benedict (1993): *Comunidades imaginadas. Reflexiones sobre el origen y la difusión del nacionalismo*. Mexiko: Fondo de Cultura Económica.
- Asari, Eva-Maria, Halikiopoulou, Daphne eta Mock, Steven. (2008): British national identity and the dilemmas of multiculturalism. *Nationalism and Ethnic Politics*, 14 (1), 1-28
- Azcona, José Manuel eta Gortari, Joaquín (2001): *Navarra y el nacionalismo vasco. Ensayo histórico-político sobre las señas de identidad originaria del Viejo Reino*, Madril: Ed. Biblioteca Nueva
- Barandiaran, Joseba eta Korta, Kepa (ed.) (2011): *Capital social y valores en Gipuzkoa*, Donostia: Alberdania
- Bidador, Joxemiel (2016): Ribera de Navarra y euskara, siglo XX. Historia de un encuentro insoslayable. *Príncipe de Viana LXXVII* (264), 367-403
- Billig, Michael (2014): *El nacionalismo banal*. Madril: Capitán Swing (jatorrizkoa ingelesez, 1995)
- Bueno, Mikel (2020): La batalla ideológica en el PSOE navarro durante 1977. *Príncipe de Viana*, 81 (277), 643-668.
- Cortina, Adela (1997): *Ciudadanos del mundo. Hacia una teoría de la ciudadanía*, Madril: Alianza
- De Pablo, Santiago (2009): *Lengua e identidad nacional en el País Vasco: Del franquismo a la democracia. Le discours sur les "langues d'Espagne."* Perpignan: Presses universitaires de Perpignan.
- Díaz, Diego (2012): Rojos y abertzales: La metamorfosis de las izquierdas vascas en la transición. In *Coetánea: III Congreso Internacional de Historia de Nuestro Tiempo*, 291-300. Universidad de La Rioja.
- Erize, Xabier (2001): El discurso contrario a la 'normalización' de la lengua vasca en Navarra (1997-2002). *Revista internacional de estudios vascos*, 46 (2), 661-682.
- Erize, Xabier (2018): *Un estudio sociolingüístico para nuevos consensos sociales sobre la lengua vasca en Navarra*, Iruñea: Nafarroako Foru Gobernua
- Erize, Xabier (2022): Diálogo con la población castellanohablante navarra sobre el fomento de la lengua vasca. *Príncipe de Viana*, LXXXIII (284), 761-787
- Etxebarria, Maitena (2015): La situación sociolingüística de la lengua vasca hoy: País Vasco y Navarra. *Confluente. Rivista di Studi Iberoamericani*, 7 (2), 13-45.
- Etzioni, Amitai (1999): *La nueva regla de oro. Comunidad y moralidad en una sociedad democrática*, Bartzelona: Paidós
- Garmendia, José María (1989): El nacionalismo vasco en Navarra durante el régimen franquista. *Gerónimo de Uztariz*, (3), 85-91
- Gutmann, Amy (2001): *La educación democrática. Una teoría política de la educación*. Bartzelona: Paidós.
- Gutmann, Amy (2008): *La identidad en democracia*. Madril: Katz Editores.
- Innerarity, Carmen (2007): El Islam y la República. Un conflicto entre dos identidades. *Documentos*, (84), 139-147.
- Jimeno, Jose Maria (1996): La diputación de Navarra, el Euskera y Euskaltzaindia (1949-1952). *Fontes linguae vasconum: Studia et documenta*, 28(73), 509-515.

- Kymlicka, Will (2003): Estados multiculturales, ciudadanos interculturales. In R. Zariquiey (Ed.), *Actas del V Congreso Latinoamericano de Educación Intercultural Bilingüe. Realidad multilingüe y desafío intercultural. Ciudadanía, política y educación*. Lima: Universidad Católica Pontificia de Perú, 47-69.
- Larrea, Imanol; eta Bilbao, Paul (2010): Hizkuntza-politika eta hizkuntza-plangintza. In Zarraga, Arkaitz; Coyos, Jean-Baptiste; Hernández, Jone M.; Joly, Lionel; Larrea, Imanol; Martínez, Loren V.; Uranga, Belen, eta Bilbao, Paul (ed): *Soziolinguistika eskuliburua*. 229-283. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza eta Soziolinguistika klusterra
- Letamendia, Francisco (1997): *Juego de espejos: conflictos nacionales centro-periferia*, Madril: Editorial Trotta
- Máiz, Ramón (2003): Nacionalismo y multiculturalismo. In Aurelio Arteta, Elena García Guitián, eta Ramón Máiz (Eds.), *Teoría política: poder, moral, democracia*. Madril: Editorial Alianza, 424-461
- May, Stephen (2012): *Language and Minority Rights. Ethnicity, Nationalism and the Politics of Language*. New York: Routledge (2. arg., jatorrizkoa 2001ean)
- Mezo, Josu (1996): *Políticas de recuperación lingüística en Irlanda (1922-1939) y el País Vasco (1980-1992)*. Madril: Instituto Juan March de Estudios e Investigaciones.
- Mikelarena, Fernando (2003): La evolución demográfica de la población vasco parlante en Navarra entre 1553 y 1936. *Fontes linguae vasconum: Studia et documenta*, 35 (92), 183-197.
- Miller, David (2000): Citizenship. What it does mean and why is so important. In Pearce, Nick eta Hallgarten, Joe (ed), *Tomorrow's citizens. Critical Debates in Citizenship and Education*, 26-35. Londres: Institute for Public Research,
- Monteano, Peio Joseba (2005): "Vascos" y "franceses" en la Tudela de mediados del XVI. *Príncipe de Viana*, 66 (234), 111-134.
- Monteano, Peio Joseba (2017): *El iceberg navarro Euskera y castellano en la Navarra del siglo XVI*, Iruñea: Pamiela
- Monteano, Peio Joseba (2019): *La lengua invisible El euskera en la Corte y en la Ribera Navarra en el siglo XV*, Antsoain: Mintzoa.
- Nimni, Ephraim -ed.- (2005): *National cultural autonomy and its contemporary critics*, Abingdon: Routledge
- Rivera, Xabier (2018): *Identitate nazionalak Nafarroan: Aniztasunaren aitortza*. Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU), Master Amaierako Lana.
- Walzer, Michael (1996): *Tratado sobre la tolerancia*, Barcelona: Paidós
- Zabalo, Julen; Basterra, Ilune; Iraola, Iker; y Mateos, Txoli (2011): *Etorkinak eta integrazioa. 50-80ko hamarkadetako etorkinen integrazio moduak Hego Euskal Herrian*. Bilbo: IPES
- Zabaltza, Xabier (2006): *Una historia de las lenguas y los nacionalismos*, Barcelona, Gedisa
- Zabaltza, Xabier (2013): *De la lingua navarrorum al estado vasco*, *Historia Contemporánea* 47: 471-492
- Zarraga, Arkaitz; Coyos, Jean-Baptiste; Hernández, Jone M.; Joly, Lionel; Larrea, Imanol; Martínez, Loren V.; Uranga, Belen; eta Bilbao, Paul (2010): *Soziolinguistika eskuliburua*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza eta Soziolinguistika klusterra.